

2005^{EKO} MEMORIA

EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOA



9 771887 021013

Salneurria: 15€

EUSKADIKO
AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOA



COMISIÓN
JURÍDICA ASESORA
DE EUSKADI

Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN MEMORIA 2005

EUSKADIKO
AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOA



COMISIÓN
JURÍDICA ASESORA
DE EUSKADI

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

Argitalpena: 1.a, 2006ko iraila

Ale-kopurua: 900 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta diagramazioa: Canaldirecto • www.canal-directo.com

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISSN: 1887-021X

LG: BI - 2.630-06

AURKIBIDEA

SARRERA	7
LABURTZAPENAK	9
LEHENENGO ZATIA	
EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN JARDUERA	
2005. URTEAN	11
I. KAPITULUA	
ERAKETA	13
II. KAPITULUA	
ZEREGIN AHOLKU-EMAILEARI BURUZKO DATUAK	15
BIGARREN ZATIA	
EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN DOKTRINA	27
I. KAPITULUA	
AHOLKURA IRISTEKO ERA: BETEKIZUN FORMALAK	
ETA MATERIALAK, EGIAZTATZEA ETA EZ ONARTZEA	
<i>Luis M.^a Eskubi Juaristi jauna</i>	29
II. KAPITULUA	
XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEKO PROZEDURA	37
1. Sarrera	37
2. Eginkizun aholku-emailearen mugak lege-aurreproiektuak	
prestatzeko prozedura aztertzean	
<i>M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea</i>	39

3. Araudietako ekimenen oinarriak eta azalpen-memoria <i>Asunta de La-Herrán Unceta-Barrenechea andrea</i>	41
4. Xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran entzunaldiaren izapidea betetzea <i>José Ignacio Peláez Berasategui jauna</i>	45
 III. KAPITULUA	
ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK EGITEKO PROZEDURAN	
<i>Luis M.^a Moreno Díez jauna</i>	51
 IV. KAPITULUA	
ONDARE ERANTZUKIZUNeko ERREKLAMAZIOAK	57
1. Kalte-ordainaren zenbatekoaren zehaztapena <i>José Ramón Mejías Vicandi jauna</i>	57
2. Ondare erantzukizuna funtzionario publikoek beren funtzioak betetzerakoan jasandako kalteengatik <i>José Ignacio Landín Escos jauna</i>	67
 V. KAPITULUA	
OFIZIOZKO BERRIKUSPENAREN MUGAK	
<i>Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna</i>	73
 ERANSKINAK	
9/2004 LEGEA, AZAROAREN 24KOA, EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOARI BURUZKOA	83
167/2006 DEKRETUA, IRAILAREN 12KOA, EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA	103

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak 3.3. artikuluan ezarri duenez, «batzordeak memoria bat prestatzen eta argitara ematen du urteko, bere jarduerak eta eman dituen irizpenetan jasota dagoen doktrina azaltze aldera».

Agindu hori betetze aldera, Batzordearen Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 17an egindako bileran, 2005. urteari dagokion memoria hau onetsi du. Memoria bi egitura desberdinetan bereizten da. Lehenengoan, batzordearen osaera eta organo horrek bere gain duen eginkizun aholku-emailea betetzeri buruzko daturik garrantzitsuenak jaso dira.

Bigarren zatian, Batzordeak hainbat auzitan eman duen doktrina jaso da, zehazki, aholku-emaile gisa duen esperientzia dela-eta, gure irizpena eskatzen duten administrazioeko organoentzat interesgarriak iruditu zaizkigun auziak. Ohartarazi behar dugu honako hau dela 1999. urtean organoa eratu zenetik onetsi den lehenbiziko memoria; eta, beraz, barnean sartu ditugula gai horiei buruz organo aholku-emaile honek jardunean eman dituen aurreneko zazpi urtetan hartu dituen erabakiak.

Horrez gain, eranskinetan, 9/2004 Legearen eta 167/2006 Dekretuaren testu osoak jaso ditugu, eta, gainera, CD-ROM bat sartu dugu, 1999. urtean jarduera hasi zenetik 2005eko abenduaren 31 arte eman diren irizpen guztiak bilatzeko aplikazio bat duena. Hemendik denbora gutxira, kontsulta hori Batzordearen web orrian bertan egin ahal izango da, une honetan prestatzen ari baita.

Sarrera hau bukatu aurretik, Batzordeak aukera hau baliatu nahi du kide zahar batzuei eskerrak emateko, organo honen funtzionamenduari egin dioten ekarpena dela-eta; hona kideak: Enrique Lucas Murillo de la Cueva jauna, Batzordeko lehen burua; José

Francisco Romani Echave-Sustaeta, M.^a Teresa Llantada Iglesias, Ana M.^a Aperribay Ulacia, José Ignacio López Cárcamo eta José Luis Aguirre Arratibel batzordekide zaharrak, eta Carlos Zabaleta Álvarez jauna, behin-behinean idazkari aritu zena.

Era berean, Batzordeak esker ona zabaldu nahi die, dagozkien erantzukizun politiko-ko edo administrazio-kudeaketako postuetan arituz egunero organo aholku-emaile hau sendotzeko lan egin duten guztiei eta oraindik ere horretan dihardutenei.

LABURTZAPENAK

ABJA/ABJAA	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren akordioa/akordioak
TK	Espainiako Konstituzioa
ABJI/ABJII	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena/irizpenak
EAAE	Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua
XOPPL	8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzkoa
AJAPEL	30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidegoarena
par.	paragrafoa
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia

LEHENENGO ZATIA
EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOAREN JARDUERA
2005. URTEAN



Honako hauek osatzen dute Euskadiko Batzorde Juridikoa 2005eko abenduaren 31n:

Lehendakaria:

Enrique Lucas Murillo de la Cueva jauna*

Lehendakariordea:

Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna

Batzordekideak:

M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea

Luis M.^a Eskubi Juaristi jauna

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna

José Ignacio Peláez Berasategui jauna

José Ramón Mejías Vicandi jauna

José Ignacio Landín Escos jauna

Luis M.^a Moreno Díez jauna

Asunta de La-Herrán Unceta-Barrenechea andrea

Idazkaria:

Jesús M.^a Alonso Quilchano jauna

* 2006ko urtarrilaren 12an, Enrique Lucas Murillo de la Cueva jaunak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan betetzen zuen burutza utzi du, berak hala eskatuta, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusian idazkari nagusi gisa zuen kargua utzi baitu (436/2005 Dekretua, abenduaren 27koa, EHAA 2006ko urtarrilaren 12an argitara emana).

Haren ordeaz, Sabino Torre Díez jaunak hartu du Batzordeko burutza, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren Araubide Juridikoaren idazkari orokor izendatu baitute, urtarrilaren 17ko 10/2006 Dekretuaren bidez (EHAA 2005eko urtarrilaren 2an argitara emana).

II. KAPITULUA

ZEREGIN AHOLKU-EMAILEARI BURUZKO DATUAK

1. SARRERA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egin duen jarduera aholku-emaileari buruzko datuak eskaintzean, eguneroko lanetan eragina izan duten bi gertaera hartu behar dira aintzat.

Batzordearen jardun-eremu subjektiboari dagokionez, gogoan izan behar da 2005. urtean hasi dela era nabarmenean zabaltzen, 9/2004 Legea (2004ko abenduaren 16an indarrean sartu zena) onartu zenez geroztik hasi bazen ere. Izan ere, ordutik hona, Batzordeak aldizka jaso ditu Toki Administrazioaren barruan sartutako organoen eta erakundeen kontsultak, bai eta erakunde horiei atxikitako edo horien mendeko erakunde publikoen kontsultak ere.


Nabarmentzeko moduko bigarren gertaera garrantzitsua hauxe da: 2005. urtea hauteskunde-urtea izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horrek, zalantzarik gabe, eragina izan du Jaurlaritzaren jarduera legegilean eta arauemailean; izan ere, aurreko urteekin alderatuta, era nabarmenean gutxitu da Jaurlaritzako kideek arlo material horri dagokionez bidali dituzten kontsulten kopurua. Ez dugu ahaztu behar Legebiltzarra otsailaren bukaeran desegin zela, eta ekainaren amaiera arte –hauteskondeak egin ondoren–, ez zela lehendakaria izendatu, ezta gobernu berria eratu ere.

Horiek horrela, jarraian, jarduera aholku-emaileari buruzko datu kuantitatiboak emango ditugu:

2. JASOTAKO KONTSULTEI BURUZKO DATUAK


2005eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, 123 kontsulta-eskabide iritsi dira organo aholku-emaile honen idazkaritzara; batzordeburuak ez ditu izapidetzeko onartu eskabide horietako 9, eskabide horiek ez dituelako egin 9/2004 Legearen 20.1 artikuluan adierazitako organoak.

Izapidetzeko onartu ziren 114 kontsultetatik, 1 organo kontsulta-egileak kendu zuen, 16 Batzordeak atzera itzuli zituen –batzordeburuak berak (8) edo Osoko Bilkurak hartutako akordioaren bidez (8)– izapidean atzemandako akatsak zuzen zitzaten, edota irizpenarenpean jarritako kontsulta hori ez zegoelako jasota Batzorde honek jakin behar dituen kasuen artean 9/2004 Legearen arabera, eta, azkenik, 84 kontsultari buruzko irizpena egin da, baina oraindik 13 kontsulta daude urtea bukatu aurretik ebatzeko.




Hona hemen kontsulta-eskabideen ebaluazioaren azterketa hilabeteen arabera:

Izapidetzeko onartu diren kontsulten bilakaera, hilez hil



Aurreko urteekin alderatuta, izapidetzera onartu diren kontsulta-eskabideen ebaluazioa ondoko koadroan agertzen dena izan da:

Izapidetzeko onartu diren kontsulten bilakaera, urtez urte




Izapidetzeko onartu diren kontsulten izapideei dagokienez, horietatik 3 baizik ez dira 9/2004 Legeak 26. artikulua 2. eta 3. idatz-zatietan ezarri duen presazko prozeduraz egin; batzordeburuak atzera bota du behin organo kontsulta-egileak emandako presazko izaera, horretarako arrazoirik ez zegoela argudiatuta.

Espedientea aztertzean, batzordeburuak, hizlariak hala eskatu ondoren, 3 kontsultetan informazioa zabaltzeko eskatu du, eta 9 aldiz eskatu dio organo kontsulta-egileari bidalitako espedientean dokumentatu gabe dauden izapideak egiteko arrazoia justifikatu dezan. Organo kontsulta-egileek ez dituzte informazioa zabaltzeko eskabideak eta errekerimenduak finkatutako epean bete; eta, hortaz, Batzordeak 8 kontsulta itzuli ditu atzera, iruditu baitzaio eskatutako agiriak eta justifikatu gabe utzitako izapideak ezinbestekoak direla.

Azkenik, aipatu behar da Aholku Batzorde Juridikoak ohiko 37 bilkura eta aparteko bilkura bat egin dituela; eta ez duela agerraldirik izan organo kontsulta-egileetako funtzionarioekin, ez eta agintariek ere.

3. EMANDAKO IRIZPENEI BURUZKO DATUAK

Denboraldi honetan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 104 irizpen onetsi ditu guztira (kontuan hartu irizpen horietatik 20 Batzordeari 2004. urtean bidalitako espedienteei buruzkoak direla); lehenbiziko sailkapen orokorraren arabera, honelaxe sailkatu ditzakegu kontsulta horiek:



Emandako irizpen horiek 9/2004 Legeak 3. artikuluan ezarritako tipologiaren arabera banakatzen baditugu, datu hauek lortuko ditugu:

Lege-aurreproiektuak	3
Legegintzako dekretuei buruzko proiektuak	0
Erregelamenduzko xedapenen proiektuak	37
Tokiko autonomia aldezteko gatazkak	0
Administrazio-egintzen eta -xedapenen ofiziozko berrikuspena	7
Berrikusteko ohiz kanpoko administrazio-errekursoak	0
Administrazio-kontratuen deuseztasuna, interpretazioa eta suntsiaraztea	10
Administrazio-emakiden deuseztasuna, interpretazioa, aldaketa eta amaiera	0
Ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioak, erreklamazioan eskatutako kopurua 6.000 eurokoa edo gehiagokoa denean	47
Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren eraketa, antolakuntza, eskumen eta funtzionamenduari buruzko gaiak	0
Udal-mugarteen aldaketa, lurralde historiko bati baino gehiagori dagokionean	0
Lege honen aplikazio-eremuan sartutako administrazioen eskumenekoa den beste edozein gai, betiere, horretarako, lege-mailako edo -indarreko arauetara jarraiki, Administrazio aholku-emaileak parte hartzea nahitaezkoa bada	0

Ondoko grafikoan islatu dira irizpenek aurreko tipologiaren arabera dituzten ehunekoak:



Azkenik, hona hemen datuak organo kontsulta-egilearen ikuspegitik:



– Autonomia Erkidegoko Administrazioa: 64 irizpen, honela banatuta:

	XEDAPEN OROKORRAK	ADMINISTRAZIO- EGINTZAK	GUZTIZKOA
Lehendakaritza	0	0	0
Lehendakariordetza	2	0	2
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	6	3	9
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	3	0	3
Barrualdea	7	9	16
Industria, Merkataritza eta Turismoa	2	1	3
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	1	0	1
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	6	9	15
Osasuna	4	0	4
Kultura	3	0	3
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena	1	1	2
Garraioa eta Herri Lana	1	1	2
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	4	0	4
GUZTIZKOA	40	24	64

– Euskal Herriko Unibertsitatea: 2 irizpen

– Toki Administrazioa: 38 irizpen, honela banatuta:

	ADMINISTRAZIO- EGINTZAK
Alegiako udala	1
Antzuolako udala	1
Barrundiako udala	1
Basauriko udala	4
Bernedoko udala	1
Bilboko udala	16
Donostia-San sebastianeko Udala	1
Eibarko udala	1
Erandioko Udala	1
Getxoko udala	3
Aguraingo udala	2
Sestaoko udala	1
Vitoria-Gasteizko udala	2
Zestoako udala	1
Bilbao Kirolak-Instituto Municipal de Deportes	1
Lea-Artibaiko Mankomunitatea	1
GUZTIZKOA	38

Emandako irizpeni dagokienez, 5 boto partikular eman dira ondoko gaii buruz:

IRIZPENA	KONTSULTA	BOTO PARTIKULARRA
2/2005 Irizpena	113/2004 Kontsulta, A.A.R jaunak aurkeztutako ondare-erantzukizunari buruzkoa; izan ere, berak ordezkatzan dituen jaun-andreen ama hil baitzen erreka bat bideratzeko obrak egiten ari zirela izan zuen istripuaren ondorioz.	Beitia Ruiz de Arbulo jauna
8/2005 Irizpena	132/2004 Kontsulta, Merkataritza-jardueraren Legea garatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako ordutegiak antolatzeari dagokienez.	Eskubi Juaristi jauna
14/2005 Irizpena	127/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuetako ordainsari osagarriak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.	Peláez Berasategui jauna
31/2005 Irizpena	12/2005 Kontsulta, M.V.B.R. andreak eta C.C.C. jaunak aurkeztutako ondare-erantzukizunari buruzkoa, haien haurrak Sestaoko ... BHI (Bizkaian) hartu zituen kalteak direla-eta aurkeztua.	Landín Escos jauna
104/2005 Irizpena	95/2005 Kontsulta, Mankomunitateko buruaren 1999ko ekainaren 9ko Dekretua ofizioz berrikusteko espedienteari buruzkoa; dekretu horren bidez onetsi baitziren langileak funtzionario bihurtzeko oinarriak.	Beitia Ruiz de Arbulo jauna

4. LEGE-AURREPROIEKTUEI BURUZKO IRIZPENEN ZERRENDA ETA ERREGELAMENDUZKO XEDAPENAK

Lege-aurreproiektuak (3)

IRIZPEN- ZK.A	IZENBURUA
06/2005	1/2005 Kontsulta, Euskadiko kooperatiben Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
49/2005	114/2004 Kontsulta, Euskadiko Ondarearen Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
93/2005	90/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasen eta prezio publikoen Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuari buruzkoa.

Erregelamenduzko xedapenen proiektuak (37)

IRIZPEN- ZK.A	IZENBURUA
01/2005	112/2004 Kontsulta, angularen arrantzaren Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
04/2005	130/2004 Kontsulta, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Berriztapen Zentroa (TKNIKA) sortzen duen eta zentroko lanpostuen zerrenda onesten duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
05/2005	122/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-kasinoen baimenak eta instalazioak planifikatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
07/2005	129/2004 Kontsulta, Euskal Eskola Publikoa eratzen duten ikastetxeen ekonomia- eta finantza-araubidea arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
08/2005	132/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritzako ordutegiak antolatzeari buruzko merkataritzako jardueraren Legea garatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
09/2005	133/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan bingo-jokoaren erregelamendua onesten duen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
10/2005	119/2004 Kontsulta, Euskadiko kooperatiben Legea garatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

IRIZPEN-ZK.A	IZENBURUA
11/2005	3/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan titulartasuneko arrantza-portuen instalazioetan edo ekipamenduan inbertsioak egiten dituzten zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren edo administrazio-emakidaren titularrak diren pertsona fisikoei nahiz juridikoei diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
12/2005	125/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuen zerrendak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
13/2005	126/2004 Kontsulta, Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen arlo funtzionalak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
14/2005	127/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuetako ordainsari osagarriak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
15/2005	118/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan zaldiek parte hartuta egiten diren kirol- edo lehiatze-jardueretan oinarritutako apustuak arautzen dituen eta, orobat, apustuak egiteko makinak, lokalen eta hipodromoak plangintza egiten duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
19/2005	2/2005 Kontsulta, hiriguneetako, gune publikoetako eta eraikinetako irisgarritasunaren inguruko baldintzei eta informazio eta komunikazioei buruzko arau teknikoak onesten dituen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
20/2005	123/2004 Kontsulta, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onesten duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
21/2005	128/2004 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuen Balorazio Batzordea sortzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
23/2005	13/2005 Kontsulta, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hautestontziek, kabinek, boto-txartelek, gutunak eta gainerako agiriek izango dituzten eredu ofizialak eta bete behar diren ezaugarriak zehazten dituen eta, orobat, materiala aurkezteko prozedura finkatzen duen Dekretua hirugarrenez aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
24/2005	10/2005 Kontsulta, Ertzaintzako funtzionarioen lanbidea egiaztatzekeko elementuei buruzko eta, orobat, lanbide-kategoriaren hainbat bereizgarri buruzko Agindu Proiektuari dagokiona.
26/2005	11/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako kanpoko ikastetxe publikoetan lagun bakarreko aginte-organok hautatzeko prozedura arautzen duen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
29/2005	7/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoko apustuen erregelamendua onesten duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

IRIZPEN- ZK.A	IZENBURUA
30/2005	16/2005 Kontsulta, Ertzaintzako funtzionarioek zerbitzua egitean dituzten segurtasun-baldintzak indartzeko neurri ekonomikoak ezartzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
36/2005	21/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren sukaldaritzako hondakinen eta gizakiek jateko modukoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
38/2005	25/2005 Kontsulta, titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
39/2005	26/2005 Kontsulta, Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Estatutua onesten duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
41/2005	28/2005 Kontsulta, musikako irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailen curriculuma ezartzen duen eta maila horietara iristeko modua finkatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
42/2005	24/2005 Kontsulta, tatuaje- eta mikropigmentazio-praktikak, gorputz-zulaketa (piercing-a) eta antzeko teknikak egiten dituzten establezimenduei aplikatu ahal zaizkien higiene- eta osasun-arauak eta baldintza teknikoak finkatzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
43/2005	34/2005 Kontsulta, Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren postu funtzionalak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
44/2005	35/2005 Kontsulta, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
47/2005	37/2005 Kontsulta, EAEko eremuan genetikoki eraldatutako organismoekin egindako jarduerak arautzeko prozedura ezartzen duen eta genetikoki eraldatutako organismoak kontrolatzeko EAEko Sailen Arteko Batzordea sortzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
48/2005	39/2005 Kontsulta, osasun-sistema nazionalaren farmazia-laguntza lortzeko erabiltzaileen identifikazioa arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
50/2005	44/2005 Kontsulta, industria-segurtasunaren arloko prestakuntzako banakako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
51/2005	43/2005 Kontsulta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko lurralde-esparruan Diseinu Grafikoko lanbide-familiako Argazkilaritza Artistikoko Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-tituluari dagokion goi-mailako prestakuntza-zikloaren curriculuma ezartzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
53/2005	45/2005 Kontsulta, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

IRIZPEN- ZK.A	IZENBURUA
80/2005	77/2005 Kontsulta, euskal kirol-federazioen araubidea arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
82/2005	76/2005 Kontsulta, Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoan zerbitzu egiten duten fakultatiboen lanbide-garapena arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
85/2005	74/2005 Kontsulta, gune zoologikoen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
94/2005	96/2005 Kontsulta, Berariazko Lanbide Heziketako teknikariaren eta goimailako teknikariaren titulua lortzeko probak arautzen dituen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
97/2005	97/2005 Kontsulta, arrantzaren arlorako eta arrantzako nahiz akuikulturako produktueterako laguntzen Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

BIGARREN ZATIA
EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOAREN DOKTRINA



AHOLKURA IRISTEKO ERA: BETEKIZUN FORMALAK ETA MATERIALAK, EGIAZTATZEA ETA EZ ONARTZEA

Luis M.^a Eskubi Juaristi jauna

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpenak eman ahal izateko kontsultarako sarbidea izateko, hainbat baldintza jarri dira lanean hasi zenetik, hala baldintza subjektiboak nola objektiboak; eta horrek era askotako kasuen ikuspegi askotarikoa sortarazi du Batzordearen doktrinan.

Jarduera aholku-emaileak barne hartzen dituen erakunde publikoen arloa une bakoitzean zein izan den zehazteaz gain –oraingo Legea eman zenez geroztik zabaldu egin baita–, eta, era berean, sarbiderako baldintza horiek betetze aldera indarrean egon diren arautegietako xedapenei jarraiki, Batzordeak horiek tinko eta zorrotz betetzeko eskatu du eta eskakizun hori arian-arian indartu egin da.

Horren erakusgai, horra hor, lehenik eta behin, irizpena eskatzeko legezkotzat jotzen diren agintariak eskusibo bihurtzeko joera, ibilbide luzeagoko beste instituzio aholku-emaile batzuetan (Estatu Kontseiluak, Generalitat-aren Aholku Batzorde Juridikoak, etab.) ere bete behar zen baldintza.

Ildo horretan, eta araudian lehenago zegoen zehaztugabetasuna alde batera utzita –zehaztasun falta horren ondorioz, maiz onartzen baitziren tartean zeuden administrazioen barruko organo zenbaitek bidalitako espedienteak (Euskal Herriko Unibertsitateak gehienbat 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan bidalitako ondare-erantzukizuneko eta ofiziozko berrikuspeneko prozeduretan hainbat jarduera-eremutako errektoreordeek, eta, era berean, Autonomia Erkidegoko Administrazioeko edo haren menpeko erakundeetako goi-mailako karguek bidalitako hainbat espediente-mota)–, kontsultarako gaitasun hori areago mugatu da, Legeak ezarritakoari jarraiki, organo edo erakunde kontsulta-egilearen legezko ordezkaritza duten agintariei murriztu baitzaie.

Hala, bada, ekimena forma aldetik bereziagotu egin den bezala –esate baterako, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren xedapen orokorrak prestatzeko, ekimen hori

modu eksklusiboan kontseilariei eman baitzaie, Gobernu kide diren aldetik—, antzeko irimotasunez jokatu nahi izan da Batzordeari kontsulta egiteko ahalmenarekin; eta, horrenbestez, eskatu ahal izango da, hala Autonomia Erkidegoko Administraziooko saillek haren irizpenarenpean jartzen dituzten xedapen-proiektuak eta gainerako gaiak bidaltzeko, nola alkate edo erakunde publiko bateko buru batek irizpena emateko bidaltzen dion edozein gaitarako.

Legea eman ondoren izan den inflexio-puntuak eragina izan du Toki Administrazioan; kontsulta-instantzia berri gisa sartu da, eta, bere aniztasuna eta hedadura aintzat hartuta, horrek hasieran zailtasunak eragin ditu irizpideak bateratu ahal izateko irizpenaren baldintza horretan eta beste batzuetan.

Era horretan, eta toki-korporazioko burutzak kontsulta betetzean izandako gabezien ondorioz, hainbat kasutan, Batzordearen burutzak espedienteak ofizioz itzultzeko Legeak 21.1 artikuluan ezarritako ahalmena erabili du, kontsultek ez zituztelako legeak eskatuako baldintzak betetzen.

Baina ordena formaleko betekizunez gain, Batzordearen kontsultarako sarbidearen inguruan bere eskumeneko hainbat gai daude, tipologia zehatzekoak direnak; era askotako suposamenduak daude eta, gaur egun, legearen zerrenda batean berariaz jasota daudenez, eskumen aholku-emailearen zirkulu materiala berehala ulertzeko aukera ematen dute, arau heteronomoak sartu beharrik gabe —lehen horixe egin behar baitzen—.

Kontsultatzeko moduko gaien zerrendan jasotzen diren auziak sakon aztertuta daude eta, horrez gain, ez da esku-hartze fakultatiborik berariaz sartu; hori dela-eta, Batzordeak erabaki du irizpide zorrotzak izatea bere irizpenarenpean jartzen diren gaien ezagutzan, eta, adierazitako tipologiarekin bat etorri ezik, espedienteen helburuak orraztu eta kontsultak onetsi gabe utzi beharko dira.

Hala, bada, atzera bota behar izan du irizpena emateko prozedura, akordio bidez (4/2001 ABJA), ondare-erantzukizun gisa egin den espedienteen; izan ere, proposatzen zen kalte-ordainetarako suposamenduak benetan aipatzen zuena zen babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeo lursailak desjabetzeko egintzak ezeztatu ahal zirela, itxuraz, betearazi gabe baitzeuden eta haien jabeak kalte-ordainak jaso gabe baitzeuden. Azkenik, erabaki zen biderik egokiena kalte-ordaina emateko eskabidea formalizatzea zela, hala behar izanez gero, ofiziozko berrikuspena egiteko prozedura baten barruan; eta hori erabaki ondoren, horri buruzko kontsulta egin beharko zen.

Ofiziozko berrikuspena egiteko prozedura berezi gisa, Batzordeak erabaki zuen izapideak egin behar zirela —baina modu autonomoan, ez epaia betearazteko gertaera baten barruan, organo aholku-egileak horrelaxe egin nahi baitzuen—, fakultatibo espezialistentzako hautatze-probetako hautagai baten bazterketa zela-eta, legeak ezarritako prozedura ez egiteagatik baliogabetu baitzen (7/2001 ABJA). Akordioan azaldukoaren arabera, epaiak zioen administrazio-egintzen ofiziozko berrikuspena egin behar zela, behar ez zen moduan zerrendan sartu zen hautagaia bertatik baztertzeko; ala-

baina, ezin zen ulertu berrikuspen-prozedura hori epaia betearazteko gertaeran hasitako prozedura gisa sartuko zenik.

3/2003 ABJAren bidez ebatzitako auzian, agerian jarri zen berariaz lehenbiziko aldiz nahitaezkoa zen eta aukerakoa ez zen esku-hartzea, legez Batzordeari dagokiola esku hartzea, Euskal Herriko Unibertsitateak kontratazio publikoaren arloko gai bat zela eta egin zuen eskaera bati erantzunez. Akordioari jarraiki, kontsultan kontratazio berri baterako prozedura aipatzen zen, eta ez –iradoki nahi zen modura–, kontratua aldatzeko espediente bat; izan ere, horrelako espediente bat izatekotan, Batzordeak esku hartu beharko zukeen zenbait baldintza bete ondoren.

Nahitaezko eta ez hautazko kontsulta egiteko beharrari buruzko aipamenak berriz agertzen dira 4/2003 ABJA; kasu horretan, behar ez zen modura –ondare-erantzukizun gisa– bideratu ziren irakasle batek administrazio-errekurtso batean egindako eskakizunak, eta, gainera, aho batez eskatu zen txosten bat prestatzeko, aurkeztutako erreklamazio-motei oro har eman beharreko tratamenduari buruz.

2/2005 eta 3/2005 ABJAAn, batzordeak antzeko argudioak baliatu zituen kontsulta ez onartzeko; hor, kalte-ordaina jasotzeko asmo bana aipatzen zen, energia elektrikoa ekoizteko ur publikoen emakida bati zegokion administrazio-harreman batek eragindakoak; eta ez zen aipatzen emakidak ezeztatu, interpretatu, aldatu edo agortu zirenik, hala izatekotan esku hartu beharko zukeen-eta.

Kontsultarako behar diren ordena materialeko edo funtsezko baldintzak aztertuta, esanahi berezia dute, oso garrantzitsuak direlako, egintza arau-emalleekin zerikusia duten horiek.

Besteak beste, lehenatasuneko tokian daude, Legeari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarreko legeak garatze edo betearazte aldera ematen dituen erregelamenduzko xedapenen proiektuak; xedapen horiek lotuta daude lege autonomikoekin, eta horiek lehenago azertuak ditu Batzordeak legeetara joz eta Estatuko Kontseiluaren Lege Organikoaren bidez lortutako aplikazioa baliatuz.

Batzordearen irizpenarentzat eskuragarria zen legeen betearazpenerako erregelamenduen kontzeptua, bestalde, lanean hasi zen unean ezarri zen, eta Sailen arteko Batzordeari eta Droga Menpekotasunen Aholku Batzordeari dagozkien 1/1999 ABJI honakoa adierazi zen: «Erregelamendu betearazlearen xedea eta helburua legea osatzea da, legea eraginkorra izan dadin, eta, beraz, bere zeregina legearen arauak garatzea da, hala aginduak eta printzipioak nola jarraibideak, hartara, Legeak lortu nahi dituen eta legearen testuaren bidez osorik ezin eskura daitezkeen xede arautzaileak bete ahal izateko» (16. par.). Ildo berean, bi lanbide-kontseilu onartzeko dekretuei buruzkoak diren 12/1999 ABJIren (53. par.) eta 13/1999 ABJIren (66. par.) arabera, «Legearen berariazko agindu bat edo, gutxienez, printzipio edo jarraibide bat aurkitu behar da, lege hori aztertutako proiektuaren eremu funtzionalean sartu ahal izateko, hau da, erregelamendu betearazlearen esparruan sartzeko».

Batzordeak erregelamendu betearazlearen kontzeptio material hori onartu du –aurre-tiazko izapidean, oro har, ez da modu autonomoan hartu, kontsulta nahitaezkoa dela jotzeko baldintza gisa; aitzitik, irizpenaren barruko beste alderdi bat bezala hartu da (txakurrak edukitzeko modua arautzen duen 17/2000 ABJren 1. eta 2. paragrafoak)—; horrela, bada, irizpena ematea baldintzatzen duen faktore bilakatu da arian-arian, proiektuak benetan gabezia bazuen arauen berrikuntzaren aldetik. Hala ere, gehiago agertzen da argudiozko sostengu gisa, kontsulta egitea eragozten duen benetako arrazoi modura baino (erkidego arteko arrotan eta itsas uretan alderdi sentikorrek adierazteari buruzko 5/2004 ABJA eta profesionalen elkargoko organo bat sortzeko 5/2005 ABJA).

Ñabardura gehiago izan ditu Batzordearen doktrinak, Eusko Jaurlaritzak Estatuko legeria garatzeko autonomia-erkidegoko eskumenak baliatuz eman dituen erregelamenduzko xedapenen proiektuak aztertu direnean.

Ildo horretan eta jatorri-izendapenaren erregelamendua onesteari eta onartzeari buruzko 97/2000 ABJIn esandakoari jarraiki, Batzordeak normalean kontuan izan du tartean dagoen eskumen estatutarioa eta proiektu arau-emailearen izaera, irizpena nahitaezkotzat eta, beraz, onargarrizat jo ahal izateko. Kasu horretan, jatorri-izendapenen arloan eskumenen banaketak duen berezitasuna gogorarazi ondoren, irizpena ukatu zen, uste baitzen proiektua gauzatzeko eskumen betearazlea erabili behar zela, aurrez zegoen legezko estatutua egokitzea mugatzen zelako.

Antzeko arrazoiak aipatu ziren irizpena emateari uko egiteari buruz –ez baitzen ari-keta arau-emailea, betearaztekoa baizik, eta, gehien jota, antolakuntzakoa, ez baitze-goen bereziki loturik inolako lege autonomikorekin—, zehazki farmako-zaintzako sistema arautzeko 4/2004 ABJA; hor estatuak farmazia-produktuen gainean duen eskumen eskusiboa aztertzen zen.

Estatuko legeria garatzeko eskumen autonomikoetan ahalmen arau-egilea baliatzeko moduan nolabaiteko berrikuntza egin zuen auzitegiko medikuen izaera aldakorreko ordainketa osagarriari buruzko 5/2002 ABJAk, honelaxe adierazi baitzuen (7. eta 8. par.):

7. Lehen eta behin aditzera eman behar dugu 187/1999 Dekretuaren 3.2 b) artikulua-ren xedea arauzko xedapenak direla, zehazki, Autonomia Erkidegoak estatuko oinarrien, oinarritzko legeriaren edo oinarritzko arauen arabera hartu behar dituen gaietako dagozkienak. Alegia, berezko orientazio politikorako ahalmena baliatuz, Estatuak mugatutako erregulazioaren barruan. Tankera horretako harreman baten aurrean noiz gauden zehazteko, tartean dauden eskumen-titulua edo tituluak aztertu behar dira, eta zehaztu behar da konstituzionaltasunaren multzoaren ondoriozko eskumen-eskema. Izan ere, erregelamenduzko xedapen autonomikoa, materialki, estatuko legeriaren benetako garapena dela ondorioztatzen denean baizik ezin izango da nahitaezkotzat jo, lehen aipatutako Batzordearen 3.2 b) artikuluari jarraiki.

8. Hortaz, bada, gure nahitaezko irizpenetik kanpo utzi dira estatuko ordenamenduaren aplikazio hutsaren inguruan dauden erregelamenduzko arauak, hau da, betearazleak

baizik ez diren eskumenak baliatuz ematen diren arauak. Normalean, zerbitzuen administrazio-kudeaketa eta antolakuntzaren esparruan sartzen diren xedapenak.

Lehen adierazitako doktrinak baldintzatu du estatuko legeria garatzeko proiektu arau-emaileei buruz Batzordeak egin duen esku-hartzea ulertzeko modua.

Erkidego arteko arrotan eta itsas uretan alderdi sentikorrek adierazteko 5/2004 ABJAn, hainbat arrazoi metatu ziren, guztiz betearazleak eta arau heteronomoen ordenamendu autonomikoa egokitzea mugatutakoak, arauen benetako berrikuntzarik egin gabe, eta horien bitartez irizpena nahitaezkotzat ez zela jo zen.

Geroxeago, hiri-jabetzako ganbera ofizialen langileen eta ondarearen araubideari eta destinoari buruzko eta idazkaritza judizialarekin lankidetzan aritzeko organoari buruzko 8/2005 eta 9/2005 ABJAAetan, areago sakondu da eduki materiala: batzordearen irizpena eskuratu ahal izateko, estatuko legeria garatuz proiektu arau-emaileei eskatu ahal zitzaizkien berezko aukera politikoak, adierazitako bi proiektuetan baldintza hori ukatzen baitzitzaien. Zehatzago, honakoa adierazi zen (8/2005 ABJA, 32.etik 40.era bitarteko paragrafoak):

32. Esandakoari jarraiki, d) idatz-zatiak ondo jasotzen du estatuko oinarritzko arauaren esparruan eman den arau autonomikoaren suposamendua.

33. Auzitegi Konstituzionalaren doktrina horrekin bat etorrira, oinarritzko araua garatzen duen arau autonomiko hori (legea nahiz erregelamendua izan) ez dago honi lotetsita hierarkia-erlazio batez, baizik eta eskumener printzipioaren bidez; eta, hala, Autonomia Erkidegoari aukera ematen dio berezko aukera politikoak sartzeko, eta oinarritzko araua erabiltzen da muga gisa (gutxieneko eduki komunari dagokionez); arau autonomikoak, beraz, arlo honetan ahalmen arau-emailea duten lurralde-erakundeek osatzen duten ordenamendu juridikoa osatzen du, konstituzionaltasunaren multzoa aplikatuz.

34. Hau da, oinarritzko arauaren eta arau autonomikoaren arteko harremana ez da erregelamendu betearazleak bera garatzen duen Legearekin duenaren modukoa. Ez du estatuko arauaren erregulazioa osatzen, zehazten, xehekatzen edo mugatzen; aitzitik, eskumen autonomikoa baliatzen du erregelamenduzko arau-alderdian, estatuko arauak ezartzen dituen mugei loturik. Horrenbestez, Autonomia Erkidegoak bere aukerak sar ditzake, bere interesei eta ezaugarriei egokituta, betiere, estatuko oinarritzko arauak itxuragabetzen ez badituzte.

35. Horiek horrela, Batzordeak arlo honetako nahitaezko esku-hartzea mugatzean, erregelamendu betearazleari dagokionez izan den irizpide material bera aplikatzen du.

36. Oinarritzko arauaren/garapenerako arau autonomikoaren arteko erlazioaren esparruan emandako xedapen orokorren proiektuak bere irizpenaren pean jarri dira; eta, hala, beraz, aztertu du ea arau autonomikoak berezko aukera politikorik sartzen duen, ordenamendu juridikoa osatzeko dagokion zeregin pribatiboa bete, edo, aitzitik, ea eremu murriztu eta mugatuago batean mugitzen den, haren aplikazioa egokitzeko lanera mugatuta (horretarako, aski baitira eskumen betearazleak; eta, hori gorabehera, eskumen horiek xedapen orokor batean jaso ahal izango dira).

37. Nahitazko esku-hartzea, beraz, erregelamenduzko xedapenen batzuen proiektuetara mugatzen da, zehazki, Autonomia Erkidegoak estatuko oinarrien, oinarritzko legeen edo oinarritzko arauen esparruan jardun behar duen horietara, betiere, erregulazio bat badute, berezko orientaziorako duten gaitasunaren eta erregulatzeko xede gisa hartzen den sektoreko araudiaren konfigurazioaren emaitza modura. Hala, beraz, hala jokatu da, xedapenak ondo heltzen badio erregulazio jakin bati –guztiz edo zati batean–, eta erregulazio horren bitartez. Oinarriak aplikatzeaz gain, EAEko berezko araudia ere aplikatzen bada.

38. Hortaz, ez du esku-hartze hori zabaltzen estatuko ordenamendua aplikatzera mugatzen diren erregelamenduzko xedapenetara, hau da, berez oinarritzko araua garatzen ez duten arauetara –betearazteko eskumenak baliatzeko baizik ez baitira arau horiek–.

39. Batzordearen iritziz, 3. artikulua d) idatz-zatiaren interpretazio horren arabera, berme-maila berean daude estatuko arauen esparruan emandako erregelamenduzko xedapenen proiektuei dagokienez egindako nahitazko esku-hartze hori eta erregelamendu betearazleari dagokiona.

40. Mugaketa kopia gisa egin da, arrazoituta araberara; hain zuzen, lege baten nahitazko osagarria edo garapena ez diren erregelamenduzko xedapenei aplikatzen zaienaren kopia gisa; izan ere, xedapen horien bidez baliatzen diren ahalmenak aurretiazko legerik gabe ere baliatu ahal izango liriteke, Administrazio Publikoak dagozkion helburuak behar bezala bete ditzan ordenamenduak hari ematen dizkion autoantolatze-ko ahalmenen erakusgarri baitira; bestalde, oinarritzko araua/arau autonomikoa harremanaren eremuan ondo bereiz daitezke indartutako bermea zein suposamendutan ez den beharrezkotzat jo.

Landa-garapeneko programei buruzko 8/2002 ABJAn, irizpenik ez zutela egingo erabaki zuten; hona zertan oinarritu ziren horretarako: proiektuan jasotako aginduen izaera ez zen guztiz juridikoa (13. par.): «Landa Garapeneko Legearen 4. artikulua patxadaz irakurrita, alabaina, ondorioztat atera dezakegu Landa Garapenerako Programak berez ez direla arau juridikoak. Ez dute eskubiderik ez betebeharririk ezartzen, ez dute eskudantzarik, eskumenik edo harremanik aldatzen edo zehazten organoen edo instituzioen artean; era berean, ez dituzte Administrazio Publikoen jarduteko formak edo prozedurak arautzen. Haien zeregina ez da arau-emailea, terminoaren zentzu juridikoan. Era berean, ezin dira hartu programa-, helburu- edo printzipio-arau gisa; proiektuaren edukia bete zein ez bete, horrek inoiz ez du ekarriko haiek betetzeko edo betearazteko egintzen balioa edo baliorik eza.»

Bestetik, lehen ikusitako irizpideak Europako erregelamenduak eta zuzentarauak garatzeko eta aplikatzeko proiektuetara nola egokitu ikusteko, 7/2003 eta 2/2004 ABJAA ditugu, nekazaritza- eta janari-produktuak sustatzeko jardueri buruzkoak eta behien entzefalopatiak jota atzemandako kasuen aurretik eta ondoren akabatutako animaliak direla-eta emandako kalte-ordainei buruzkoak direnak, hurrenez hurren. Han, azkenean, esaten zen irizpena ez zela nahitaezkoa.

Batzordeak maiz erabili ditu bere funtzionamendu-arauek izapideak egiaztatze eta informazioa zabaltzeko ematen dizkieten eskumenak.

Kapitulu honetan, hizlariak eskaturik bidalitako espedientean dokumentatuta ez zeuden izapideak egiaztatzeari buruz, hizlariak eskaturik, burutzak zuzenean egin dituen errekerimenduak alde batera utzita, guztiz nabarmenak dira osoko organoak aztertu dituen kasuak. Izan ere, horietan, normalean aurretiazko hautemate garrantzitsu bat agertzen zen, egin gabeko izapideen edo agirien gaiaren azken azterketa egiteko.

Batzordearen doktrinan, eskumen horiek erabiltzeari dagokionez, nolabaiteko bereizketa sumatzen da irizpenean aztertu beharreko gaiaren izaera arau-emailea den edo ez den aintzat hartuta.

Erregelamenduzko xedapenei dagokienez, Batzordeak adierazi zuen (48/1999 ABJI) ezarritako lehenbiziko ahalmena egiaztatzailea baizik ez zela, eta, hori dela-eta, ezin zirela zuzendu, irizpenaren ondorioei begira, kontsulta egindako eguna baino lehen egin gabe zeuden nahitaezko izapideak.

Iritzi horren ondoren, ikusi zen nolabait bereizi behar zirela dagoeneko irizpena emanda zeuden kasuak —izapideak baztertzearatik ondorioa aurkakoa izanez gero, maiz espedientea atzera itzultzen zen, berriz zuzendu ahal izateko— eta kontsulta berria eskatzea ekartzen zuten kasuak (3/2001 ABJAA).

Arauemaileak ez ziren gaietan prozedura ez betetzeari dagokionez, Batzordearen irizpidea desberdina izan da, beharbada, halakoetan, hirugarren batzuei dagozkien esku-bide eta interes zehatzak daudelako, eta hirugarren horiei ezin zaielako leporatu instrukzio irregularra edo osatu gabea egin izana.

Batzordeak batzuetan informazioa zabaltzeko eskumena erabili du, esate baterako, ondare-erantzukizuneko kasu batean, lekuko frogen praktika eskatzeko (2/2000 ABJA). Baina kontsulta egin duten erakundeek irizpena emateko beharrezkotzat jotzen ziren instrukzio-egintzak egin ditzaten hartu diren itzultze-akordioak, normalean, beren arauekin zerikusirik ez duten legezko edo arauzko aginduetan oinarritu dira.

Praktika honi buruzko adibide gehien aurkezten digun gaia ondare-erantzukizuna da. Espedientea zabaltzeko eskaeraren oinarrian, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluko konstituzio-eskubideei lotutako zenbait alderdi bete ez direlako kontua dago; hala nola, eskatzailearen eta tartean dauden hirugarren batzuen entzunaldiaren izapidea, edo erreklamazio-egileak eskatutako lekukoaren proba —ez baita egin, ez eta arrazoiak emanez atzera bota ere—, edo erabilitako prozeduraren nahitaezko izapideak ez egitea, esate baterako, lesioa eragin duen zerbitzuaren txostena (2/2000, 1/2002, 3/2002, 6/2002, 1/2003, 6/2003, 9/2003, 1/2004, 3/2004, 4/2004, 6/2004, 7/2004, 1/2005, 4/2005, 6/2005, 7/2005 eta 10/2005 ABJAA).

Horrez gain, Batzordeak kontsulta ez onartzeko erabakiak hartu ditu, akordio gisakoak, iraugitzeko arrazoi bat tartean zegoelako, ofizios berrikusteko prozeduran (1/2001 ABJA) eta kontratua suntsiaraztekoan (2/2002 ABJA). Iraugitzeko arrazoi hori dela-eta, iritzia emateko dagoen modua ikusita, oso bestelakoak dira prozedura era ez-ohikoan

bukatzeko izan diren beste modu batzuk –adb., denboraz kanpoko delako edo ondare-erantzukizuneko egintza preskribatu delako izan direnak–; horiek, alabaina, ez dira oztopo izan gaiaren sakonari buruzko irizpena emateko (60/2004, 97/2004 ABJII).

Prozesu-ordenaren aldetik dauden eragozpenei dagokienez, aditzera eman behar da Batzordeak bere irizpena osatu duela, hainbat gaitan azaldu duela, eta beste organo aholku-emaile batzuek duten irizpidea ez bezalako delako, kontsultako xede berberaren gainean prozesu judizial ireki bat batera gertatzeari dagokionez; hori gorabehera, gaiari buruz duen iritzia emateko eskumena baliatu ahal izan du (52/2005 eta 102/2005 ABJII).

Legezko abstentzia dela-eta tartean dauden Batzordeko kideek irizpena eman ahal izateko lege-aldetik izan daitezkeen eragozpenen tratamendua, normalean, akordio bidez egin da (2/2001 eta 6/2001 ABJAA).

Bestalde, Batzordeak administrazio-jarduerako iradokizunak eta proposamenak egiteko duen eskumena baliatu du batzuetan, adibidez, hezkuntza-arloko erantzukizunari buruzko kontsultei dagokien administrazio-espeditentea osorik bidaltzeko gomendioa egiteko (1/2000 ABJA), edo profesionalen elkargoen arloko legea garatuko duen xedapen orokorra emateko (5/2001 ABJA).

XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEKO PROZEDURA

1. SARRERA

Xedapen Orokorrak prestatzeko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Batzordeak orain arte esan duen gisan, laburbilduta jasotzen ditu arauak prestatzeko antolamendu juridikoan lehenagotik agintzen zuten arauak eta printzipioak. Hargatik, Batzordeak xedapen orokorrak prestatzeko prozedurari buruz duen doktrinari ekiterakoan, funtsean, ezin dugu berezi bera indarrean sartu aurretik zegoenaren eta ondorengoaren artean.

Prozedura hori aztertzean, honako gai hauek aztertu dira bereziki irizpenetan:

Lehenik eta behin, Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen helburuetan arauzko ekimenak eta lege-aurreproiektuak sartuta daudela kontuan izanik, eta, era berean, ekimenez eta aurreproiektuek antolamendu juridikoan zein kokapen desberdina duten aintzat hartuta –Zioen Azalpenean adierazten den moduan–, orain, Batzordeak aurreproiektu horiek prestatzeko prozedura aztertzean dituen mugak aztertuko ditugu.

Bigarrenik, Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak prozeduraz duen kontzepzio instrumentala abiaburutzat hartuta –horrek prozedura «arau arrazoizkoak», hau da, ondo oinarritutako arrazoiak lortzeko tresna gisa eratzten baitu–, aditzera emango dugu *iter*-aren balorazioa azalpen-memoria baten bidez jakinarazi behar dela, proiektuan bildutako xedapenen ondorio ekonomikoei buruzko aurreikuspenak berariaz aipatuta.

Azkenik, entzunaldiaren izapidea aztertu dugu, Legeak arreta berezia jartzen baitu horretan, garrantzi handia baitu etorkizuneko arauak ukitu ditzakeen eskubideen eta interesen eta erregulazioaren berme gisa.

2. EGINKIZUN AHOLKU-EMAILEAREN MUGAK LEGE-AURREPROIEKTUAK PRESTATZEKO PROZEDURA AZTERTZEAN

M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea

Lanean hasi zenez geroztik (besteak beste, 39/1999, 84/2003 ABJII), Batzordeak beti nabarmendu ditu zeregin aholku-emailearen barne duen helburu zehatzaren arabera bere esku-hartzeak dituen inguruneak (lege-mailako eta arau-mailako proiektuak, administrazio-egintzak, etab.).

Arauen ekoizpenari dagokionez, aditzera eman du zeregin aholku-emaileak berekin dakarren legezketasun-epaiak, funtsean, aztertzeo hiru arlo handi hartzen dituela barne. (i) prozedurazko baldintzak –horiek ez badaude edo akatsen batekin betetzen badira, xedapena deuseztatu daiteke–; (ii) etorkizuneko arauaren eduki materiala, eta, horretarako, bere konstituzionaltasuna eta legalitatea aztertu behar da, batetik, Legeari dion begirune formala eta, bestetik, zuzenbideko printzipio nagusiei dien begirune materiala; eta (iii) etorkizuneko arau-ekoizpena bat datorren gainerako ordenamendu juridikoarekin eta bitartekoak eta helburuak egokituta dauden.

Lege-aurreproiektuen berezitasuna hiru arlo horietan ikus daiteke; izan ere, legegilea, nahiz eta ordenamenduaren goi-mailako arauen menpe egon –esaterako, Espainiako Konstituzioaren edo EAeko Estatutuaren menpe– ez baita arau horietan jasotako agin-
duen betearazle huts bat, bai baitu «eratzeko askatasuna» deitu izan dena; hori bali-
oespen politikoen arabera baliatzen da –«legegileak ez du Konstituzioa betearazten,
zuzenbidea sortzen du, askatasunez, Konstituzioak eskaintzen duen esparruan, eta
arauen ahalmena baliatzean, bestalde, «Konstituzioa eta Legeak (EKren 97. art.) bete-
tzen ditu»– (besteak beste, 209/1987 KAE, abenduaren 22koa).

Hala, beraz, lege-aurreproiektuek hautatzeko aukera gehiago dute «zuzenbidea sortze-
ko erari dagokionez», eta, horren ondorioz, Batzordeak parte har dezan, interpretazioa
areago mugatzen da, bere zereginak beste produktu arau-emaile batzuei dagokienez
beharko lukeena baino, hartara, lege orok duen dimentsio politikoen ondoriozko
mugak betetzeko, herriaren borondatearen adierazpena diren aldetik.

Azaldutako gaia ardatz gisa harturik (lege-aurreproiektuen prozedurazko baldintzak
aztertzea, alegia), Batzordea ohartu da Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari
buruzko Legeak aurreproiektu horientzat ezarri duen prestatze-araubidea eta arauzko
ekimenak bertan bukatzen direla.

Hala, aditzera eman du lege-aurreproiektuak aztertzean –Espainiako Konstituzioak,
EAeko Estatutuak edo, zenbaitetan, lege organikoek izapide bereziren bat eskatzen ez
badute behintzat–, prestatze-lanetarako baliatu den *iter*-aren balorazioa guztiz des-
berdina dela erregelamenduetan egin behar denarekin alderatuta. Hauetan izapideak
gaizki egiteak (adib., entzunaldirik ezak edo interes publikoen eta pribatuen partaide-
tza ezak, edo nahitaezko txostenen gabeziak) eragina izan dezake arauaren etorkizu-

neko balioan; aitzitik, lege-aurreproiektuetan ez da horrelakorik gertatzen; izan ere, salbuespenetan baizik ez da haien baliagarritasuna zalantzan jartzen, betiere, gabezia legebiltzarraren borondatea osatzeko muga bada (108/1986 KAE).

Desberdintasun nabarmen hori dela-eta, Batzordea lege-aurreproiektuak prestatzeko prozedura aztertzean, funtsean, ahalegindu da proiektatutako erregulazioaren alderdi onak hobetzen, hau da, arrazionaltasuna hobetzen –zehazki, proposatutako xedek lortzeko erabilgarritasuna eta erregulazioa zuzentzea, arautu nahi den errealitatera egokituz–.

Zeregin aholku-emaileak lege-aurreproiektuei dagokienez halako berezitasun bat eduki arren, Batzordeak zenbait ohar egin ditu aurreproiektua eta memoria prestatzeko prozedurari buruz, horiek hobetzeko asmoarekin, eta organo aholku-emailearekin lankidetzan aritzeko asmo hutsak bultzatuta. Baina, betiere, atzendu gabe organo aholku-emaileak aurreproiektua prestatzeko prozedurari buruz egiten duen balorazioak ez duela zerikusirik testuaren balidazio juridikoarekin eta, era berean, ez duela aukerarik ematen azken arauaren konstituzionaltasunari oztopoak jartzeko.

3. ARAUDIETAKO EKIMENEN OINARRIAK ETA AZALPEN-MEMORIA

Asunta de La-Herrán Unceta-Barrenechea andrea

A) Iritzi orokorrak

Aurreneko irizpenetatik hasita, Batzordeak beti nabarmendu du proiektuaren azalpen-memoriaren esanahia eta beti adierazi du memoriak prozedurazko *iter*-aren balioespen laburtu bat eduki behar duela: oinarria, hautabideak, egindako aukerak, aukera horiek egiteko arrazoiak, balorazio juridikoa eta ekonomikoa. Hala, beraz, memoriak informazio aski eman behar du proiektuan jasotako erregulazioaren xedeaz eta erregulazio hori egiteko arrazoiez (12/1999, 13/1999, 16/1999 eta 84/2003 ABJII).

Ildo horretan, Batzordeak memoriari buruzko balorazio ona egin dezan, memoriak honelakoak jaso behar ditu: proiektuaren beharra azaltzen duen justifikazio burutua, proiektua onartuz lortu nahi diren helburu zehatzak, dauden aukera ugarien aldeko eta aurkako alderdiak aztertzea, kontsulten eta txostenen izapidea zein ingurune naturalean egin behar den zehaztea, proiektua egiteko modukoa den aztertzea, erregulazioan dauden hautabideen azterketa erkatua, eta proiektua prestatzeko prozedura-ren deskribapena (13/2003, 78/2002 eta 114/2003 ABJII).

Bestalde, irizpen askoren arabera, komenigarria da espedientea agiri batekin osatzea, eta, bertan, ekimenaren bidez lortu nahi diren helburuak (ez bakarrik juridikoak) zehaztasun gehiagoz azaltzea, edota arauetako erabaki nagusiak hartzeko arrazoiak adieraztea, eta, orobat, egindako alegazioak aztertzea eta proiektuan jasotako arauaren indarraldirako aurreikusten diren ondorioak ere bai.

Batzordearen iritziz, batzuetan, «aurreproiektua prestatzeko egindako hausnarketa ez da behar bezala kanporatu, justifikaziozko memorian eta zioen adierazpenean jasotako azalpenak oro har aztertutako arau-ekimenaren arrazoiak eta helburuak jasotzera mugatu baitira eta ez baitituzte aintzat hartu aurreproiektuak barne hartzen duen erregulazio zehatzen arrazoiak. Arrazoi horiek aditzera eman behar dira, nahiz labor-zurrean egin, eta bereziki lortu nahi den araubide juridikoaren funtsa azaldu behar da ardatz gisa, hartara, aurreproiektuaren justifikazioa osatuago egon dadin» (43/2000 ABJI).

Memoriaren edukiak lotura izan behar du ekimenen konplexutasunarekin eta maila teknikoarekin, eta egokitu behar da «proiektuaren ildo nagusiak ulertu ahal izateko, artikuluetan jasotzen diren figura eta teknika juridiko zehatzak sakonki ezagutu beharrik gabe» (49/2004 ABJI).

Zehazki, guztiz garrantzitsua da jasota uztea zer dela-eta ez diren onartu ekimena prestatzeko prozesuan erregulazioaren oinarrizko alderdiei buruz egindako oharra. Ez da iradokizun eta alegazio guztien azalpen zehatzik eman behar, baina hartutako erabakirik garrantzitsuenen arrazoiak azaldu behar da. Ekimena idatzi duen organoa, egin diren ohar batzuk ez onartzeko edo emandako hautabide jakin bat hautatzeko,

isiltasunaz baliatzen bada, sarritan, proiektuaren eduki jakin batzuk behar bezala balioesteko ezinbestekoak diren epaitzeko elementurik gabe geratzen gara (33/1999, 39/1999, 95/2001 eta 46/2004 ABJII).

Batzordeak hainbat irizpenetan errepikatu du memoriaren helburua zein den, hain zuzen, «lege-proiektuak eta gainerako xedapen orokorrak prestatzeko prozedura ez da berez helburu gisa hartu behar, baizik eta azken araua hobetzeko baliagarria izango den tresna gisa. Arlo horretan, arrazoiak adieraztea –espedientean jasota uztea– behar-beharrezkoa da aukera era egokian balioesteko eta lortu nahi diren helburuen ekimenaren testu zehatzarekin bat datorren jakiteko».

Memoria osatua aurkezteak, beraz, bi xede hauek ditu: alde batetik, Batzordeari aditzera ematen dio zein diren ekimenaren eduki batzuen xedea eta helburua, hartara, epaitu ahal izan dezan era egokian jaso ote diren (84/2003 eta 26/2004 ABJII); beste aldetik, Gobernu Kontseiluari hartu nahi duen erabakia zuzen hartzeko guztiz garrantzitsua den elementu baten berri ematen dio, ekimena hartzeak izan ditzakeen ondorioak balioesteko aukera ematen baitio eta, are garrantzitsuagoa dena, aukera ematen baitio, orobat, proiektuan adierazitako helburuak betetzen ari diren jakiteko. Azken batean, agirietan jasotako horren bidez Gobernu Kontseiluari lana erraztu nahi zaio, araua onartzeari buruzko erabakia hartzeko (78/2002, 60/2002, 12/2005, 13/2005, 14/2005, 21/2005 eta 43/2005 ABJII).

Espedientea osatzen duten agirietan baldintza formalak betetzeari dagokionez, Batzordeak aditzera eman du, prozedurak duen izaera antiformalista oinarritzat harturik (43/1999 eta 17/2000 ABJII), «garrantzi gutxiagokotzat jo behar dela ekimenetan justifikaziozko agiriek duten izena, nahiz eta formazko normalizazioak eta homologazioak zerikusia eduki administrazio-eraginkortasunarekin eta agiriak erabiltzeko segurtasunarekin» (56/2003 ABJI). Hain zuzen, «agirien euskarri egokia lortzeko, hauxe baizik ez guke nabarmenduko: komenigarria dela izaera desberdineko edukiak agiri berean ez nahastea. Guztiz desiragarria da agiriaren edukia, haren izena eta –are garrantzitsuago dena– egilearen trebakuntza bat etortzea...» (74/2002 ABJI).

Bestetik, kontzeptu aldetik, ondo bereiz daitezke azalpen-memoria eta arauko zioen azalpena, bakoitzak helburu desberdina baitu: lehenbizikoak informazio zehatza –edo aski– eman behar du, hain zuzen, honelakoa: arauak barne hartuko duen errealitatearen ezaugarriak, arautu nahi den sektore zehatzerako dauden helburuak, hori lortzeko aurkezten diren aukerak, eta azkenean hautatutako irtenbideak aukeratzeko arrazoiak. Bigarrenak, berriz, legearen edukia azalpen sintetikoa egiten du, eta hor argi eta garbi jasota daude aukeratu diren hautabideak (39/1999 ABJI).

B) Inpaktu ekonomikoaren balorazioa

43/1999 ABJI Irizpenak hausnarketa sakona egin zuen gai honetaz, eta ordutik hona Batzordeak behin eta berriz esan du guztiz garrantzitsua dela arau-proiektu bakoitza-

ren inpaktu ekonomikoa balioestea; lehen ere Xedapen Orokorrek prestatzeko prozedurari buruzko Legeak alderdi horren onurak nabarmendu zituen antolamendu juridiko autonomikoan, eta lege-mailako aginduei jarraiki hori ezartzeko beharra adierazi zen; hona lege-aginduek: ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Legearen 57. artikulua, kontrol ekonomiko era kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25. artikulua eta ondorengoak, eta, ildo berean, irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak –EAEko aurrekontu-araubideari buruz indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginari dagokionak– Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa.

Horretan oinarriturik, esan behar da prozedurak ahalik eta informazio osoena eta zehatzena eman behar diola arauari buruzko erabakia hartu behar duen organoari, ekimenak gastu publikoan izango duen inpaktuari buruz, hartara ondo balioetsi ahal izan dezan bideragarria edo egiteko modukoa den (43/1999, 19/2000, 21/2000, 89/2000, 7/2001, 15/2001, 17/2001, 49/2001, 64/2002, 78/2002, 13/2003 eta 95/2004 ABJII).

Alabaina, finantza publikoetan izan dezakeen eraginaz gain, beste alderdi bat aipatu behar da, inola ere bazter ezin daitekeena (gaur egun, lehen esan bezala Xedapen Orokorrek prestatzeko prozedurari buruzko Legearen 10. artikulua haren alderdi onak nabarmendu ditu): arau berria aplikatzeak beste administrazio publiko batzuei, partikularrei eta, oro har, ekonomiari eragin diezaiekeen kostuari buruzkoa (43/1999, 100/2001, 7/2004 eta 78/2004 ABJII).

Hala, Batzordeak aditzera eman du, zenbaitetan, arau baten bideragarritasuna aztertzeko, arau hori aplikatzeak gizarteari eskatuko dion ahalegina barne hartzen duen azterlana egin behar da. Bai eta arauak ekar ditzakeen mozkin ekonomikoena edo bestelako mozkinena ere; gero, horren ondoren, bi alderdiak haztatu beharko dira, heinekotasunaren printzipioari jarraiki. «Eta kostuaren eta mozkinaren arteko azterlan edo ebaluazio hori egiteko, batetik proiektuak ekarriko duen gastu publikoaren balorazioa egin behar da (Espainiako Konstituzioaren 31.2 artikuluari jarraiki, kostua-mozkina ebaluazioari dagokion gastu publikoa aintzat hartu behar da baliabide publikoen bidezko banaketa egiten denean), eta, bestetik, jarri nahi den arauak jarduerari ezartzen dien baldintzek eta betebeharrak tartean dauden guztiei (toki-erakundeak, partikularrei, enpresaburuei) ekarri ahal dieten ondorio ekonomikoa haztatu behar da, besteak beste, ondasun eta zerbitzu batzuen prezioan izan ditzakeen ondorioak» (43/1999, 56/2001 eta 78/2004 ABJII).

Hortaz, ekonomia- eta finantza-aldeko ondorioen aurreikuspena ez da mugatu behar arau berriak Ogasun Nagusian izan dezakeen eragina aztertzerako; aitzitik, aintzat hartu beharra dago arautu nahi den sektorearen oinarri sozio-ekonomikoak alda daitezkeela, eta, hala behar denean, ondo zehaztu behar da araubide iragankor egokia dela.

Azken batean, «Gobernu kontseiluari aurkeztu aurretik, aski hausnartu behar da egiturazkotzat jo dezakegun aldaketa bultzatzeko, ez hainbeste alderdi on objektiboez, baizik eta oraingo egoerari dagokionez ekarriko dituen aldaketek; bestela, arriskua egongo baita –aldi baterako arriskua, behintzat– (baina gutxi gorabehera luzatuko

dena) legeko aurreikuspenak oro har inork bete ez ditzan edo horiek betetzeKo jar-
duera murriztu edo geldiarazi behar izateko, proiektua izapidetzean adierazitako bo-
rondatez bestera» (63/2001, 20/2003, 30/2004 ABJII).

Azkenik, memoria ekonomikoa «egin nahi den erregulazioa gorabehera egin behar
da. Proiektuak ekonomia- eta aurrekontu-aldetik duen dimentsioari buruzko haus-
narketa egin beharko da beti, nahiz eta hausnarketaren emaitza izan holako dimen-
tsiorik ez dagoela. Bestela esanda: araudi bat itxuraz ekonomia aldetik kaltegarria ez
dela iruditu arren, hala ere, izapide hori egin beharra dago; ezin da jakintzat eman
kaltegarria dela, horrek agerian egon behar du, eta dagokion memorian adierazi eta
arrazoititu beharra dago» (55/2000, 77/2000, 122/2000, 21/2002 ABJII).

4. XEDAPEN OROKORRAK PRESTATZEKO PROZEDURAN ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA BETETZEA

José Ignacio Peláez Berasategui jauna

A) Iritzi orokorrak

Xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran, izapideak egiten dituen organoarekin zerikusirik ez duten hirugarrenen partaidetzari dagokionez, entzunaldiaren izapidea nabarmendu behar da –gaur egun Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzko Legeak arautua– nahitaezkoa baitzen administrazio-xedapenei dagokienez, lege-testu hori prestatu aurretik, Espainiako Konstituzioaren 105. a) artikulua arabera, berariazko lege autonomikoen beharrik gabe (18/1981 KAE, 21/1999 ABJI, 23. par.).

Xedapen Orokorrak izapidetzeko ardura dutenek (adibidez, 40/2003 ABJIren 13. par.) eta Batzordeak berak sarritan entzunaldiaren izapidea batera aztertzen dute, eragina izan dezaketen administrazio publikoen partaidetzari dagokionez, eta, batzuetan, nahitaez esku hartu behar duten organoei dagokienez edota Administrazioaren organoei dagokionez.

Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzko Legeak argi egituratzen du auzia: 9. artikuluan administrazioen partaidetza bereizten du, izapidearen garrantzia desberdina baita herritarrentzat eta Administrazioarentzat. Horrez gain, Euskal Autonomia erkidegoko administrazio organoen partaidetzaren izaera eta garrantzia ezin da parekatu herritarrek dutenarekin, are gutxiago, iritzi huts bat ematea besterik ez bada egin nahi, ordenamenduak emandako eskumenen baliatu beharrik gabe.

Hortaz, partaidetza batzuen eta besteen tratamenduak, une eta era egokienari dagokionez, koherentea izan beharko luke eta prozeduraren une aurreratu baterako gorde beharko luke entzunaldia bera eta beste administrazio batzuen partaidetza, eta, orobat, mugarik gabe aurreratu beharko luke Administrazioaren edozein barne-ekarpen. Era berean, partaidetza batzuek eta besteek behar duten erantzunak egokia izan beharko du.

Hemen, zentzu zorrotzean aztertuko dugu Batzordeak entzunaldiaren izapideari buruz hartzen dituen erabakiak.

B) Entzunaldiaren izapidearen araubide orokorra

Batzordeak iritzi abstraktua eman ahal izan du entzunaldiaren izapideaz, Xedapen Orokorrak prestatzeko prozedurari buruzko Legea sortu zuen aurreproiektuari buruzko irizpena ematean (13/2003 ABJI). Han esan genuenez, Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua eta beste agindu batzuek sistema demokratikoari dagokion adminis-

trazioa diseinatu nahi dute. Konstituzio Auzitegiaren esanetan, «printzipio hori dago-kie administrazio demokratiko eta parte-hartzaileei, herritarrekin elkarriketa egiten dutenei, eta berme ona da erabakiak egokiagoak izateko; orobat, konstituzioko beste balio eta printzipio batzuei lorturik dago, besteak beste, administrazioaren benetako eraginkortasunari eta justiziari» (102/1995 KAE, ekainaren 26koa) (lehen aipatutako 13/2003 ABJren 26. par.).

Batzordeak bereiz aztertu zituen arauzko proiektuak eta lege-aurreproiektuak (irizpen horren 132. orria eta hurrengoak), Xedapen Orokorrek prestatzeko prozedurari buruzko Legeak konstituzioaren aurreikuspenetara hedatzen baitu izapidearen esparrua, eta, hortaz, arauzko prozedurek duten izaeraz bestelakoa den izaera hartzen baitu; hori aipatzen ez bada ere, xedapena ez da baliogabetuko (83/2002 ABJI, 9. par.), baina zeregin aholku-emailea zailduko da, eta hori zuzendu ezik, Gobernu Kontseiluak ez du epaitzeko elementurik edukiko (80/2002 ABJI, 14. par.). Bera baliogabetu ahal izateko, Espainiako Konstituzioan, EAEko Estatutua eta, zenbaitetan, lege organikoetan horri buruz ezarrita dagoen hartu beharko litzateke aintzat (76/2004 ABJI, 24. par.).

Xedapen Orokorrek prestatzeko prozedurari buruzko Legeak 8. artikuluan ezartzen duen izapiderako salbuespenari dagokionez, «interes publikoan» oinarritzen da, baina irizpenari dagokion aurreproiektuan zentzu zabalagoa zuen. Ildo horretan, Batzordeak azpimarratu zuen izapidea ez egiteko interesek benetan oso larriak izan behar dutela, eta hori ahal dela ondo egiaztatu behar dela.

Horrez gain, Batzordeak hainbat iradokizun egin zituen entzunaldiaren edukiari buruz, zuzeneko izaera zuen edo, elkarteen edo erakundeen bidez egiten zelako, zehar-kakoa ote zen aintzat hartuta.

Legerik egon ezik, Administrazioak, Xedapen Orokorrek prestatzeko prozedurari buruzko Legea eduki arte, entzunaldia ez egitea erabaki zezakeen, baina erabaki horren arrazoiak azaldu behar zituen eta arrazoi aski garrantzitsuak behar ziren entzunaldiari dagozkion Konstituzioko balio eta printzipio horiek alde batera uzteko; esate baterako, ez zen aski adieraztea legezkoa ez zen proposamenean adierazitako epea igarora zela (17/2000 ABJI, 8. eta 11. par.)

Arau-proiektu gehienetan, Batzordea ohartu da entzunaldiaren izapidea ondo burutu dela, edo izapide hori egitea ez dela nahitaezkoa izan, interes partikularrik atxikitzen ez zelako. Alabaina, hasiera-hasieratik, Batzordeak adierazi du proiektu batzuek zenbait gabezia zituztela izapide garrantzitsu horretan.

C) Izapidearen subjektuak

Erraz identifikatzeko moduko zuzeneko interesdunak daudenean, izapidea nahitaez egin behar da (12/2001 ABJI, 14. eta 15. par.), eta izapiderik gabe onesten den araua-

ren balioa baldintzatzen du (86/2002 ABJI, 37. eta 43. par.; 62/2003, 10. par. eta ondorengoak; 100/2003, 35. par.; 49/2004, 26. par. eta hurrengoak).

Enpresaburu, merkataritza edo profesionalen batek eragina jasan badu bere bidezko interesetan, betebeharren hartzaile den aldetik, hain zuzen, proiektuan bildutako xedapenean ezarritako adierazpen jakin batzuk egin direla-eta, izapidea zentzuzko moduan egin behar da, hau da, Legeak onartzen dituen eta proiektuak kaltetutako bidezko interesen ordezkartzeaz eta defentsaz arduratzea xede duten elkartei edo erakundeetara entzunaldia egin behar zaie; eta, horrelakorik egon ezik, bide egokiak eta neurrikoak eman behar dira parte-hartzeari begira, parte-hartzerik ez badago xedapena baliogabeturik geratuko baita (21/1999 ABJI, 22.etik 25.era bitarteko par.; 100/2001, 10.c) par.; 42/2002, 29. par.). Pronuntziamentu berberaren ondorioz, jarduera ekonomikoa mugatuko da; eta, hartara, proiektuan bildutako xedapena eman aurretik jarduera horretan aritu ahal zen azpisektore bati ez zaio horretarako baimeunik emango (16/2003 ABJI, 12.etik 15.era bitarteko par.). Enpresa-, lanbide- edo arte-arloan eragina duten hezkuntza-alderdiei dagokienez, sektore horiei entzunaldia egin behar zaie (66/2004 ABJI, 28. par.; 69/2004, 28. par.; 51/2005, 27. par.). Enpresa, lanbide- edo lanbide-arloko interesak tartean daudenean, merkataritza, industria eta nabigazioko ganberiei entzunaldia egin beharko zaie, edo, bestela, interes orokorrak edo korporatiboak ordezkartzen dituzten nahitaezko lanbide-elkargoei edo elkartei; hori egin ezik, xedapena baliogabeturik geratuko da (45/2000 ABJI, 15. eta 16. paragrafoak eta ondorioa); salbuespena egingo da, ordea, onespina eman aurretik eta –hala behar denean– Batzordeak irizpen berria eman aurretik egiten bada (lehen aipatutako 93/2000 ABJIri dagokionez). Sektore ekonomikoetarako laguntza zehatzak aldatzeko irismen gutxi duen xedapena bada, ordezkartzeaz duten korporazioei, merkataritza, industria eta nabigazioko ganberiei, eta arrantzaleen kofradiei ez zaie entzunaldia nahitaez egin behar, aski izango baita enpresaritza-elkarreetik edo Autonomia Erkidegoan elkarte horiek bateratzen dituen erakundeak parte hartzea (90/2000 ABJI, 23. par.).

Subjektu batzuek izapidearen hartzaileak izan daitezke, erabilgarritasunaren aldetik, baina, bestetik, horrelakorik ez aipatzeak ez du baliorik eza eragin behar. Hala, gertatzen da artxibozainen lanbide-sektoreekin, nahiz eta proiektua publikoak ez diren edo pribatukoak diren artxiboetara buruzkoa izan, edota erakunde publiko edo pribatu espezializatuei buruzkoa izan (24/1999 ABJI, 19. eta 20. par.).

Lege baten erregelamendu aldetik garatu nahi denean, arau-egileak hainbat aukera baditu xedapenean edukia finkatzerakoan, tartean daudenei eta interesdunei erantzun beharko die; salbuespena egingo da, ordea, Legeak aurrez jaso duen zerbait proiektuan badago eta entzunaldi berria egiteko arrazoiak badaude (12/2004 ABJI, 24. par.).

Batzordeak erabaki du izapidea behar bezala egin dela, interesdun batzuei laguntza eman zaienean eta Autonomia Erkidego osoa barne hartzen duen elkarte-egoerarik ez denean eta jarduera neurri batean lanbide-arlokoa ez denean (74/2002 ABJI, 10. par.).

D) Bereziki, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak

Xedapenaren bidez, gutxienez hein batean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa bermatu nahi bada edo haien eskubidetan eta interesetan eraginik badu, entzunaldia egin beharko zaie antolatzaileei. Espainiako Konstituzioaren 51.2 artikuluan ezarritakoaz gain, Kontsumitzailearen Estatutuaren azaroaren 18ko 10/1981 Legea indarrean dagoen bitartean, izapidea nahitaezkoa zen, 26. artikuluari jarraiki; eta, hartara, erregelamendu-xedapena izapide hori egin gabe onetsiz gero, baliorik gabe geratzen zen (19/1999 ABJI, 24. par.; 5/2000 ABJI, 16. eta 17. par.; 60/2000 ABJI, 26. eta 27. par.; 16/2003 ABJI, 13. par.).

Erakunde horiei entzunaldia egin behar zaie arlo ekonomikoan kalteren bat dagoenean, elikagaien kateko azken hartzaileak diren aldetik, azpiproduktuak eraldatzeko eta ezabatzeko proiektatu diren neurrien kostuak haiei dagozkielako (55/2002 ABJI, 43. par.).

Batzordeak erabaki du erakunde horiei ez zaiela entzunaldirik egin behar zenbait produktu merkaturatzeko neurri murriztaileak proiektuan jasota ez badaude (56/2001 ABJI, 16. par.).

Lege horren ordez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen abenduaren 22ko 6/2003 Legea ezarri da; lege horren aurreproiektua izan zen, izan ere, 80/2002 Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpenaren xedea. Hain zuzen, 72. paragrafoan, proiektuaz genuen sutea eman genuen aditzera, 32. artikuluan, erakundeek entzunaldia izateko duten eskubidea arautzen baitzuen xedapen orokorrak prestatzerakoan. Hori betetzeko modurik bazen, zehazki, Kontsumoko Aholku Batzordearen txostenaren bidez, txosten hori ere nahitaezkoa baita. Batzorde horren osaera kontuan izanik, izapide bi horiek ondo bereizi behar dira. Era berean, enpresa-erakundeei dagokiena bestelako izapide berezia da.

E) Izapidearen edukia eta forma

Izapideak honakoa behar du: (i) alde batetik, proiektuari buruzko iritzia emateko aukera, eta (ii), bestetik, Administrazioak aurkeztu diren alegazioei erantzuna eman ahal die, lortu nahi den erregulazioaren funtsezko alderdiei buruzkoak (122/2000 ABJI, 9. par.). Bestalde, orain dagokigunaren moduko izapideak egiteko, aintzat hartu behar dira txostena egin duen pertsonaren edo organoaren iritzia eta proposamenak, hartara, ondo arrazoituz, onartzeko edota atzera botatzeko; izan ere, horrela jokatu ezik, izapidea azalekoa eta itxurakoa baizik ez litzateke izango, eta ez litzateke bere helburua lortuko, alegia, prozeduran eta, beraz, erregelamendua prestatzeko zereginean pertsona edo organo horren irizpidea sartzea (33/1999 ABJI, 10. par., eta 95/2001 ABJI, 13. par.).

Horri dagokionez, ez da aski jasota uztea ekimenaren edukia tartean dagoen sektorearen errebindikazioa dela; txostenari, bestalde, horren berri eman zaio (87/2004 ABJI, 4. eta 5. par.).

Alabaina, erantzuna ez da sakona izan behar; aitzitik, alegazioek eta iradokizunek behar adinako esanahirik ez dutenean, erantzuna ez da ezinbestekoa, baina, hala ere, emaitza bikaina emango liguke (55/2000 ABJI, 7.etik 10. paragrafora eta 43/1999 ABJI, aipatua).

Alegazioak aurkezteko, izapideak egiten dituen organoarekin izandako bilerak baliatu daitezke (4/2000 ABJI, 19. par.), edo bestela idatziz jar daitezke bilera horien ondoren, eta, era berean, erantzuna eman beharko zaie (17/2000 ABJI, 14. par.).

Interesdunek *motu proprio* aurkeztuta ere, ez da behar bezala zuzenduta geratuko izapidea egiletsi ez izana (17/2000 ABJI, 6. par.).

Proiektua bidalita, behar beste denbora igarotzen bada erantzunik gabe, izapidea berterik egongo da (29/2000 ABJI, 7. par.).

Entzunaldiaren pean jarritako testuaren bertsioak bat etorri beharko du izapidetutako testu osoarekin (95/2001 ABJI). Horrez gain, entzunaldiaren xede den testuaren gainerako bertsioak eta irizpenaren pean azkenean jarri den testuarena desberdinak direnean, Batzordeari bidalitako espedientearen sartu behar dira izapideen ikuspegi osoa eta koherentea emateko (55/2002 ABJI, 31. par.).

Izapideen prozedurako une egokia –prozedurari baliagarri zaizkion guztiak bezala–, Batzordeari espedientearen kontsultarako bidali aurretik egin behar da, baina geroko praktikak ez du kaltetzen ekarpenak ekimenaren guttiz aldekoak badira (116/2000 ABJI, 10. par.).

Tartean dauden gizarte-sektoreak zabalak eta era askotakoak direnean, eta haien elkarrean ordezkaritza zailtzen denean, egokia da entzunaldiaren izapidea baliatzea (17/2000 ABJI, 12. par.).

F) Izapidea egiaztatzea

Ezinbestekoa da ekarpenak aztertzea; alderdi hori, interesdunen parte-hartzea zehazteaz gain, arauaren oinarrien zatia ere bada, haren legezotasunari eta egokitasunari buruzko hausnarketa egiten baitu. Azterketa hori agiritan jaso behar da, prozedurako ezinbesteko gertaera guztiak bezalaxe (122/2000 ABJI, 7. eta 8. par.).

Aski da interesdunentzat duen garantiza jasota uztea, azken batean, era horretan araua kontsultatutako horiei begira egokia eta eraginkorra dela bermatze aldera; baina, hala ere, hobe da erantzunak eta haien oinarriak modu sistematikoan eta bateratuan sartzea memorian bertan edo bestelako azalpen-agiri (26/2001 ABJI, 15. par.) bakar batean (8/2003 ABJI, 25. par.).

Alegazioak batera eta multzoka balioetsi daitezke azaldutako auzietan, eta hori bereziki justifikatuta egongo da agenteen kopurua handia denean (94/2001 ABJI, 21. par.).

Balorazio juridikoa behar duten alegazioei dagokienez, aski da txosten juridikoan erantzuna ematea (94/2001 ABJI, 22. par.), baiian ekimena Zuzenbidearen araberakoa izan arren, hala ere, egokitasunaren edo komenentziaren araberako irizpideetan oinarritutako alegazioei erantzun beharko zaie, horiek ere legezkoak baitira (20/2003 ABJI, 19. par.). Hala ere, alegazioa lege aldetik onartezina bada, ez da erantzuteko beharrik egongo (79/2002 ABJI, 25. par.).

Era berean, ez dira berariaz erantzun beharko benetan garrantzirik ez duten alegazioak (79/2002 ABJI, 25. par.).

Arau-garapen bati dagokion izapidea ez da egokia alegatzeko, garatutako legean jasotako aukerari dagokionez; hori gorabehera, interesdunek Legea erreformatzen ahalgintza izango dira, prestatzeko prozedurarekin zerikusirik ez duen bide batez (90/2002 ABJI, 15. par.).

Partaidetza handia dagoenean, erabilgarritasunari eta komenentziari dagokienez, lortu nahi den helburua erraztuko litzateke egin diren oharren txosten-laburpen bat edo koadro-laburpen bat sartuta, ohar garrantzitsuenak nabarmenduta eta batzuk onartzeko eta beste batzuk atzera botatzeko aintzat hartzen diren irizpideak azalduta, bai eta, hala behar denean, izapideko parte-hartzaileak aukeratuta. (113/2000 ABJI, 22. eta 23. par.; 71/2001 ABJI, 13. par.; 39/2003, 23. par.).

Entzunaldia egiteko artean egon diren erakundeak, ondo identifikatu behar dira, bestela Batzordeari zailduko baitzaio izapidea behar bezala bete den egiaztatzeke lana (17/2003 ABJI, 12. eta 13. par.).

Entzunaldirako deialdiaren hartzailearen batek horri entzun ez dionean, Batzordeak beharrezkotzat jotzen du izapidea egiletsi dela egiaztatzea, bidalitako testuaren kopia eta jakinarazpenaren egiaztatzea aurkeztuz (40/2003 ABJI, 12. par.), baina beste agiri batzuetan hori atzematen bada, eta baieztapen hori ezeztatu dezaketenez daturik ez badago, izapidea bete dela joko da (88/2001 ABJI, 7. par.).

Alabaina, Kasu batean edo bestean, Batzordeak jo du entzunaldia berariaz bete dela emaitzaren berri eman ez bada ere (11/2001 ABJI).

III. KAPITULUA

ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK EGITEKO PROZEDURAN

Luis M.^a Moreno Díez jauna

Administrazio-egintza bat, edozein izaeratakoa dela ere, prestatzeko, araututako prozedura bat bete beharra dago. Prozesu-izaerako aginduen artean, entzunaldiaren izapidea nabarmendu behar da, ezinbestekoa baita.

Izapide hori oro har araututa dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (hemendik aurrera, AJAPEL), bi zati ditu, eta horietako bakoitzak eskubide jakin bat gauzatzeko modua bermatzen du: alde batetik, espedientea izapidetu ondore, espedientea ezagutzeko dagoen eskubidea, eta, bestetik, espedientean jasotako jarduerak ikusita agiriak edo justifikazioak aurkezteko dagoen eskubidea.

Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzordearen eta, geroxeago, Euskadiko Aholku Batzordearen doktrinak hasierako irizpenetatik onetsi du izapidea zein garrantzitsua den –bereziki izapidearen lehenbiziko zatia– partikularraren eskubidearen berme gisa eta administrazio-ebazpenaren asmatze modura (64/2005 ABJI, 17 par.). Hori dela-eta, izapide horrekin zerikusia duten hainbat alderdi aztertu behar zian dira, hala nola:

- Interesduna babesik gabe uzteko kasuen azterketa kasuistikoa egin behar da, izapidea aipatu ez bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84.4 artikuluan oinarrituta.
- Entzunaldiaren izapidearen eta ebazteko proposamenaren artean, hasieran behintzat, ezin da bestelako jarduerarik egin, azken ebazpena emateko behar denaz gain. Hala, bada, egokiena den prozesu-egoera bideratu behar da defentsarako eskubidea betetzeko eta Administrazioak –akordioa hartu ondoren– ondo informatuta gera dadin, dagokion espedientean jasota dagoenarekin, eta, horrez gain, partikularrak berak horri begira egiten dituen alegazioekin eta probekin.

- Entzunaldiaren izapidean, era justifikatzen duten helburuak betetze aldera eta bere erregulartasunaren oinarri gisa, espedientea osorik jakinarazi behar zaie interesdunei.
- Interesdunei entzunaldiaren izapidea utziko zaie, duen edukia, helburua eta araubide delata eta, edo izapide funtsezkoa delako, administrazio-prozesuko harremanari dagozkion beste batzuek ez bezalakoa.

1. IZAPIDEA EZ EGITEA

Batzorde honek aipatutako doktrinak behin eta berriz nabarmendu du ezinbesteko garrantzia duela interesdunaren entzunaldiaren izapideak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 84. artikuluan ezarri duenak, jakina denez, *audi alteram partem* printzipioa funtsezkoa baita administrazio-prozedura osoan.

Alabaina, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84.4 artikulua, entzunaldiaren izapidea ez egitea baimentzen du «interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan ebazpena ematerakoan».

Alabaina ofizios hasitako ondare-erantzukizuneko prozesu baten aurrean bagaude, Batzordeak (6/1999 ABJI) adierazi du entzunaldiaren izapidea hastea nahitaezkoa dela beti, alde batera utzita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 84.4 artikuluan ezarri duen balizko kasua tartean dagoen edo ez dagoen, interesduna zuzenean agertu ez bada prozeduran; izan ere, orduan, izapide hori izango da interesdunak izango duen azken aukera Administrazioaren ondare-erantzukizunaren arloko prozedura arautzen duen 429/93 Errege Dekretuak 11.3 artikuluan arautzen dituen jarduerak behin-behinean artxiboan gordetzeak ekarriko liokeen kaltea saihesteko.

Interesdunak eskaturik prozedura hasten den gainerako kasuetan, Batzordeak zehaztu du, oro har egia dela izapide ez egin arren ezin dela automatikoki aplikatu deuseztasun-akatsa erabatekoaren kalifikazioa (horiek ohiz kanpokoak eta interpretazio mugatukoak baitira), baina aintzat hartu behar dela beti defentsa-gabeziaren kausazioa izan daitekeela, jurisprudentziak horri begira eskatzen duen zentzu material eta dinamikoa kontuan izanik eta auziko inguruabarrak arretaz aztertzea eskatzen duela aintzat harturik.

Hori dela-eta, nahiz eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legeak 84.4 artikuluan izapidea ez egitea justifikatzeko proposamena egin, izan daitekeen defentsa-gabezia ondo aztertu beharra dago, zeren, Batzordearen iritziz, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 11. artiku-

luak eskatzen duen entzunaldiaren izapidea prozeduran bete dela jotzeko, ez baita aski ebazpen-proposamenak aditzera ematea artikulu hori kasuan aplikatu daitekeela. Hala zehaztu zuen 83/2000 Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpenak, frogatu baitzuen aztertzen ari zen kasua ezin zela izan «adierazitako aginduan azpiratu, zeren ebazpen-proposamenak bestelako gertaerak eta probak hartzen baititu aintzat interesdunak adierazitakoez gain».

Batzordeak frogatu arren Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legeak 84.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki izapidea ez dela beharrezkoa, hautatu egin du interesduna babesik gabe utz dezaketen kasuen azterketa kasuistikoa egitea, ondo egiaztatzeko erreklamazio-egileen legezko interesak aldezteko eskubidea ez dela kendu, ukatu, gutxitu edo murriztu.

Hori egiaztatu ondoren, Batzordeak erabaki du ez dela bidezkoa espedientea itzultzea entzunaldia egiteko, horren ondorioz denbora luzatu behar den kasuetan, hori erreklamazio-egilearen onurarako izan beharrean, bere kalterako izango baitzaio eskubidean oinarritutako administrazio-ebazpen bat lortzeari begira (64/2005 ABJI) .

Era berean, ez dute defentsa-gabezia materialik ikusi, erreklamazio-egileak aurka egiteko bideak baititu bere eskubidea aldezteko eta, gainera, interes publikoaren bermearen aldetik argi ikusi baita espedienteak behar diren osagaiak dituela Batzordeak jaso duen izapidetze-egoera ikusita iritzia eman ahal izan dezan horri buruz (63/2005 eta 59/2005 ABJII).

2. ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA EMATEKO UNEA

Batzordeak une oro esan du entzunaldiaren izapidea emateko uneari dagokionez dagoen arau orokorra, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren Legearen 84.1 artikuluari eta 429/1993 Errege Dekretuaren 11. artikuluari jarraiki, honelakoa izan behar duela: horren eta ebazpen-proposamenaren artean ez du egon behar, hasieran behintzat, bestelako jarduerarik, azken ebazpena emateko garrantzitsuagoa denik.

Ez da aski interesdunei entzunaldia emateko prozedura betetzat jotzea; izan ere, ondo egiaztatu behar da, eraginkortasuna eta legezko balioa izan dezan «prozedura izapidetu ondoren eta ebazpen-proposamena eman aurretik» (76/2005 ABJI).

Entzunaldiaren izapidea prozedura izapidetu ondoren eta ebazpen-proposamena eman aurretik egin behar da eta horren arrazoia aski argi dago: «erreklamazio-egileari aukera eman behar zaio izapidetutako guztia azter dezan» (29/2003 ABJI).

Entzunaldi horretan interesdunak alegazioak egin eta egoki iruditzen zaizkion agiriak aurkez ditzake; baina hori egin ondoren izapideak egin dituen organoak ezin du izapiderik egin «datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko, hartara, ebazpena eman

ahal izateko» (Erregelamenduaren 6. artikulua); eta horrela izapidetu denari dagokionez, erreklamazio-egileak ez du horren berri izango egokiak diren alegazioak egin ahal izan ditzan (29/2003 ABJI).

Alabaina, Batzordearen doktrinaren azterketa kasuistikoa egiten badugu, hainbat al-ditan ez fa ondorio juridikorik izan printzipio hori bete ez arren.

Hala ere, aurreko beste txosten bat errepikatzen denez edukian eta biltzen dituen elementuak erreklamazio-egileak ezagutzen dituenek, erabaki zen ez zuela defentsa-gabezia sortzen, jurisprudentziak horretarako eskatzen duen zentzu material eta dinamikoarekin, eta kasuaren inguruabarrak arretaz aztertzeo eskatzen baitu.

Era berean, Batzordea ohartu zen 5/2002 ABJIIn aztertutako balizkoan interesdunari ez zaio entzunaldiaren izapidea egiaztatu ebazpen-proposamena idatzi aurretik. Baina, hala ere, erabaki zen «hori ez egiteak kasu honetan ez du ondorio juridiko nabarmenik, eta, beraz, ebazteko proposamenak osorik hartzen zuen erreklamazio-egilearen bertsioa eta hark aurkeztutako kalteen balioespena».

54/2000 ABJIIn jo zen, entzunaldiaren izapidea denboraz kanpokoan izan arren, ez zela beharrezko prozedurak atzera-eragina izatea, «ebazpen-proposamenean aintzat hartu diren gertaera, alegazio eta proba bakarrak interesdunak berak aurkeztu dituenak izan direlako (30/1992 Legearen 84.4. artikulua)».

3. ESPEDIENTEAREN ERABATEKO PUBLIZITATEA

Batzordeak gogorarazi duen moduan, espedientea osorik jarri beharko da agerian, ezin izango baita entzunaldia egoera jakin batzuetara mugatu. Hala, bada, 76/2005 ABJIIn eta 64/2005 ABJIIn, honakoa zehaztu zen: «izapideak barne hartu behar du ordura arte izapidetu den espediente osoa; bestalde, interesdunei izapidea hasi dela jakinarazi behar zaie, espedienteen jasotako agirien zerrenda bidali behar zaie, eta gutxienez hamar eguneko epea eman behar zaie alegazioak egin eta egoki iruditzen zaizkien agiriak eta egiaztagiriak aurkeztu ahal izan ditzaten».

Alabaina, Batzordea ohartarazi da entzunaldiaren izapidea egitean sarritan irregular-tasunak izan direla, interesdunari administrazio-espedientearen zati baten berri eman baitzaio, espedienteko alderdi guztien berri eman beharrean.

Funtsezko izapide hau ez betetzeak maiz espedientea baliogabetezko arrazoia izaten da, interesduna babesik gabe uzten baita. Alabaina, Batzordeak, jurisprudentziako doktrina betez, argitu egin du, baliogabetezko ondorio horien zorrotasuna arintze aldera, prozedurako ekonomiako printzipio funtsezko batek baliogabetezko deklarazioa saihesteko gomendatzen duela oinarritzat hartuta; izan ere, deklarazio horren bidez jarduerak behar ez den moduan bikoiztuko bailirateke –egindako akatsa zuzentze aldera–, eta jarduera horien emaitza sekula ez litzateke baliogabetezko es-

pedientearen desberdina izango –1960ko otsailaren 17ko eta 1974ko urtarrilaren 22ko epaiak– (110/2003 ABJI).

Hargatik, prozedura bat baliogabetzeko moduko defentsa-gabezia eragin duen jarduera baten aurrean gauden zehaztu ahal izateko, Batzordeak erabaki du «defentsa-gabezia hori alderdi materialetik jotzea, hau da, aztertzea ea era nabarmenean gutxitu al den interesdunaren asmoa aldezteko eskubidea; azken batean, ondorio gisa, zehaztu behar dugu ea dagokigun kasuan interesdunari ezkutatu zaizkion erantzukizuneko ekintza benetan baliatzeko oinarrizkoak ziren elementuak» (29/2003 ABJI).

Alabaina, batzuetan, argi ikusten da interesdunaren asmoa defendatzeko eskubidea era nabarmenean gutxitu dela, baina, hala ere, Batzordeak erabakitzen du irizpena ematea, haren aldeko irtenbidea areago ez atzeratzeko. Hala, 48/2002 ABJIIn, Batzordeak erabaki zuen irregulartasun bat zegoela prozeduraren izapideetan, baina ez zuen beharrezkotzat jo espedientea atzera itzultzea, izan ere, «izapidetutakoa ikusita, bigarren txosten polizialeko termino zehatzak kontuan izanik (ia ez dute lehen txostenaren bertsioa aldatzen, erreklamazio-egileak gertaerei buruz eman duen bertsiora hurbiltzen den alderdi bat edo beste kenduta), eta erreklamazio-egileak berak entzunaldiaren izapidean bertsio poliziala eta berea bat datozela adierazi zuela aintzat hartuta, epaitzeko elementu aski ditugu Erregelamenduaren 12.1 artikuluan jasotako kontuei buruz dugun iritzia emateko».

Ildo berean, 29/2003 ABJIk honela dio: «esandakoari jarraiki, jarduerak atzera-eragina eduki beharko lukete, ebazpen-proposamena eman zen unetik aurrera, baina erreklamazioaren instrukzio osoa ikusteko, Batzorde honek uste du epaitzeko iritzi aski dituela Erregelamenduak 12. artikuluan finkatutako moduan Administrazioak ondare-erantzukizuna duen erabakitzeke, eta –gaia aurreratze aldera– erreklamazio-egilearen asmoaren alde gaudenez, gai honi buruz dugun iritzia azaldu behar dugu».

4. IZAPIDEAREN SUSTANTIBITATEA

Batzordea eskatu du entzunaldiaren izapideak sustantibitatea izan behar duela, eta adierazi du «Administrazioak jarduteko duen era horretan, instrukzio-ekintza bakarra baliatzen da prozedurako hainbat izapide eta, orobat, 11. artikuluan ezarritako entzunaldiaren izapidea betetzeko, eta hori, hasiera, behintzat, irregularra dela jo beharra dago» (29/2003 ABJI).

Batzordeak 71/2005 ABJIIn argitu zuenez, oro har, ez da egokia izapide desberdinak egintza bakarrean bateratzea (hasteko akordioa, interesdunen entzunaldia, ebazpen-proposamena eta Batzordeari egindako kontsulta ere bai); izan ere, «haietako bakoitzak eduki eta helburu zehatza du, eta Legeak ezarritako unean egin behar dira».

Aurreko idatz-zatietan aipatutako kasuetan bezala, Batzordeak erabaki du ondo aztertzea interesdunaren defentsa-gabezia materiala egon den organo instrukzio-egileak egindako jarduerak atzera-eragina izan behar dutela erabaki denean.

Hala, 71/2005 ABJIn aztertu zen kasuan erabaki zen prozedura eta interesdunen entzunaldia aldi berean hastea. Dena dela, horren ondoren instrukzio-egintzarik izan ezenez eta bertan jasota zeudenez ebazpena emateko behar ziren datuak, Batzordeak erabaki zuen «ez zirela entzunaldia egiteko ezarrita zeuden legezko bermeak materialki hautsi».

IV. KAPITULUA

ONDARE ERANTZUKIZUNEKO ERREKLAMAZIOAK

1. KALTE-ORDAINAREN ZENBATEKOAREN ZEHAZTAPENA

José Ramón Mejías Vicandi jauna

A) Sarrera

Herri administrazioen ondare erantzukizuneko erregimenaren oinarri zehatza EKren 106.2 artikuluan aurkitzen da. Horren arabera, partikularrek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute Legeak adierazitako moduan, herriko zerbitzuen funtzionamenduaren ondotik beren ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatik. Eskubide horretatik kanpo geratzen dira ezinbesteko kasuak.

Erregimen hori, dakigun bezala, AJAPELaren 139. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen da egun.

Ondare erantzukizuneko erregimena eratzen duten alde ezberdinen artean, arreta emango diogu Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak nahiz haren berehalako aurrerari izandako Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak kalte-ordainaren zenbatekoaren zehaztapenari eskaini dioten tratamenduari.

Zentzu horretan gogorarazi behar da, Ondare-erantzukizunaren alorrean Herri Administrazioen prozedurak arautzen dituen erregelamenduaren 12. artikulua, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren bidez onarturikoa, dagokion kontsulta organoak eman behar duen ebazpenaren gainean honakoa adierazten duela: «Zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta jasandako lesioaren artean kausalitate loturarik badagoen ebatzi behar da, eta eragindako kaltea eta kalte-ordainaren zenbatekoa eta modua zehaztu. Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako irizpideak jarraituko dira.»

Hau da, behin antzematen denean zerbitzu publikoen funtzionamendutik eratorritako lesioari ordaina emateko derrigorra sortzen duten baldintza ezberdinak existitzen direla, eta kalte-ordaina emateko moduko kalteak baieztatuta, konponbidearen zenbatekoa zehaztu beharko da.

Kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko arauak AJAPELaren 141. artikuluan zehazten dira, baina erabiltzen diren irizpide zehatzak alde batera utzita, garrantzitsuena dena da balorazioak aukera eman behar duela «kaltearen ordain osoa» jasotzeko. Printzipio hori aipatu dugun EKren 106.2 artikulutik dator, partikularrei «beren ondasun eta eskubideetan izandako kalte guztien ordaina jasotzeko» eskubidea onartzen baitie.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzietarako Salaren jurisprudentzian hainbatetan heltzen zaio printzipio horri, eta horixe nabarmendu izan du Batzordeak hasiera-hasierako irizpenetatik (ABJII 27/1999 eta 69/2000), irizpide hori erabiliz sortzen joan diren kalte-ordain kontzeptu eta zenbatekoen zehaztapeneko alde ezberdinak ebazteko.

Horrela, printzipio hori aplikatzerakoan, kontuan hartu da benetan eragin ahal izan den eta ekonomikoki ebaluatu daitekeen kalte oro, sortutako kalteak, lortu gabeko irabaziak, eta kalte fisiko eta moralak. Modu berean, printzipio hori betez, kalte-ordainaren eguneratzea defendatu izan da.

Hori bai, printzipio hori onartzearekin batera, Batzordeak aukera izan du modu berean muga non dagoen gogorazteko: bidegabeko aberasketa (ABJII 36/2000, 25/2002, 40/2004, 99/2005, besteak beste).

Azkenik, eta kalte-ordaina jaso dezaketen kontzeptu ezberdinak eta ordain osoa zehazteko irizpideak azaldu aurretik, komenigarria litzateke zehaztea Batzordeak batzutan, ondare erantzukizuna badagoela adierazi ondoren, izapide jarduera ezberdinak gauzatu dituela, kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztu ahal izateko. Horixe gertatu zen ebazpen proposamenak atzera botatzekoak izan ziren kasuan, eta horren ondorioz, kalteen helmena zehazteko nahikoa instrukzio izapidetu ez den kasuetan (esate baterako, ABJII 47/2000, 19/2001, 50/2003 eta 76/2003an jasotako kasuetan).

B) Kalte-ordaina jaso dezaketen kontzeptuak

Kalte materialak: sortutako kaltea eta lortu gabeko irabaziak

Komenigarria iruditzen zaigu kalteen artean bi multzo handi bereiztea. Batetik, kalte materialak deritzatenak, eta bestetik, kalte fisiko eta moralak. Izan ere, bakoitzak bere zehaztasunak ditu.

Lehenengoei dagokienez, Batzordeak sortutako kaltearen eta lortu gabeko irabazien arteko bereizketa egin du, doktrinak eta jurisprudentziak egin bezala.

Hasiera batean, sortutako kaltearen balorazioak ez du aparteko zailtasunik agertzen behin ondarean jasandako kaltea baieztatzen denean (balorazioaren eta eguneratzearen unearren gaineko gaira itzuliko gara aurrerago).

Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, partikularren ondasun higigarri eta higiezin kasuan, eta baita beste ondasun mota batzuekin ere (esate baterako, enpresa bati obra batzuen esleipendun dela sinistarazten zaionean hori horrela izan gabe, eta horregatik gastu batzuk egiten dituenean. Suposamendu hori ABJI 22/2002 kasuan jaso zen).

Sortutako kalteengatik ordaina jasotzen duten kontzeptu ezberdinen artean, interesgarria da arreta ematea ondare erantzukizuneko erreklamazioengatik abokatua erabiltzetik eratorritako gastuei ematen zaien tratamenduari.

Gai honi dagokionez, bereizketa egin behar da ohiko epaitegian ematen den prozesutik eratorritako gastuen eta bide administratiboan abokatuaren jardunak eragindakoen artean.

Lehenengoei dagokienez, Batzordeak ebatzi izan du horiek ez direla ordaindu behar uste duelako jurisdikzio esparru propioan badagoela horiek ordaintzeko bide zehatza, kostuak ordaintzeko zigorra kasu. Bereziki azpimarragarria da ABJI 10/2003 kasua, jasotzen duen jurisprudentzia aipamenarengatik.

Bestalde, abokatuak bide administratiboan jarduteagatik jaso beharreko ordainei dagokienez, Batzordeko doktrinak aurrerantz egin du. Hasiera batean ez zen kontzeptu hori onartzen (ABJII 57/2000 eta 1/2002), uste baitzen –Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta Estatu Kontseiluaren doktrinak hainbatetan adierazi bezala– «mota horretako gastuak borondatez egiten direla, eta ondorioz horiek norberaren gain hartzeko betebeharr juridikoa dagoela, ez dira beraz, kalteak eta ondorioz ezin eman dakieke kalte-ordainik» (ABJI 1/2002).

Hala eta guztiz ere, ondorenean –Auzitegi Gorenak puntu honetan garaturiko doktrinaren ildo beretik jarraituz– Batzordeak onartu egin du horiei kalte-ordaina emateko aukera. Aipaturiko ABJI 10/2003 kasua horiek onartzearen alde agertzen da –nahiz eta *obiter dicta* moduan onartzen diren, trataturiko gaian erreklamatzan zen ordaina prozedurarena baitzen–, eta horrekin batera Auzitegi Gorenaren 2001eko uztailaren 5eko Epaia dago. Azken horrek honako modu honetan bereizten ditu espresuki: «Prozesutik kanpo profesionalak jaso beharreko ordainaren suposamendua ezberdina da. Sala honek eman izan ditu ebazpenak kontu horri dagokionez eta adierazi, horiek erantzukizun jardueraren bidetik ordaindu beharko lirakeela, beti ere horiek baieztatzen direnean.»

Ildo hori sendotu egin da orain dela gutxi emaniko ABJI 99/2005 kasuarekin. Bertan, abokatuaren ordaina onartzen da, obra publiko baten gauzatzearen ondotik higiezin batean eragindako kalteen jatorri eta zehaztapena argitu behar zituen perituarenarekin batera.

Ordain osoak lortu gabeko irabaziak ere onartzen ditu, nahiz eta kasu horietan zaila den horien egiazkotasuna frogatzea. Hasieratik, Aholku Batzorde Juridikoak ulertu zuen (horrela, DDCJA 23/1999 eta 36/2000) lortu gabeko irabaziengatik ordaina eman zitekeela kalte hori benetakoa eta erreala den kasuan.

Zehazki, Batzordeak azpimarratu du (ABJI 84/2001) lortu gabeko irabazien aplikazio esparrua honako puntu hauek mugatzen dutela:

a) Itxaropen soilak edo irabazi zalantzarriak alde batera utzi behar dira, Auzitegi Gorenak hainbatetan ezarritako jurisprudentzia doktrinaren aurka egitea delako lortzeari utzitako irabaziak kontuan ez hartzea horiek posible direnean baina emaitza zalantzarria eta ziurtasunik gabekoa denean, eta lortu gabeko irabazien frogak zalantzarriak direnean edo besterik gabe balizko kasuan gerta daitekeena denean (1986ko urriaren 15eko AGE-Arz. 5688).

b) Beharrezkoa da lortu gabeko irabaziak ziurtasunez argituko dituen frogak izatea, izan ere, bai kasu honetan eta baita sortutako kaltearenean ere, lortu gabeko irabazien frogak sendoa exijitzen da, eta lortu gabeko irabazien kasuan arreta handia eta joera mugatzailea izan behar da, ez baita onargarria onurak lortzeari utziko zaionaren posibilitate hutsa (1989/2/3ko AGE-Arz.809).

Hori bai, lortzeari utzitako irabazien errealitatea baieztatzen denean, horrengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea onartzen da. Horixe gertatu da, adibidez, zerbitzu arrazoiengatik lortzeari utzitako ordain edo kalte-ordainen kasuan funtzionarioen lanpostuak esleitzerakoan emandako akatsengatik (ABJII 47/2003 eta 101/2004); edo poliziaren ikerketak ematen direnean, lokalak edo negozioak ixten badira (ABJII 48/2002 eta 110/2003).

Kalte fisiko eta moralak

Aholku Batzorde Juridikoak ondare erantzukizunaren esparruan ezagututako kontu askoren xedea zerbitzu publiko ezberdinen funtzionamenduarengatik gorputzean jasandako kalte fisikoak ordaintzea izan da.

Doktrinak azpimarratu bezala, kalte fisikoen balorazioa kontu nabarmenki konplexua da, oso zaila delako –ezinezkoa ez esateagatik– erabateko ordaina ematea, eta beraz, kalte-ordaina konpentsazio hutsa da. Horrengatik, doktrinaren zati batek «ordain osoaren» printzipioaz hitz egin ordez, «zuzentasun ordainarenaz» mintzatzea eskatzen du jada.

Batzordeak hasieratik onartu izan du zailtasun hori eta ABJI 27/1999 kasuan zehaztu zuen jada kaltearen ordain osoaren printzipioak, ondarean jasandako kalteekiko erabateko birtualtasuna mantentzen zuena, kalte pertsonalekiko ñabardurak zituela.

Horrengatik, kaltea benetan ordaintzeko, Batzordeak –Estatu Kontseiluak edo Auzitegi Gorenak egin bezala– naturaltasun osoz jo du «Zirkulazio istripuetan pertsonen era-

gindako kalte eta galerak baloratzeko sistema» delakora, egun erantzukizun zibileko eta ibilgailu motordunen zirkulazioko aseguruaren Legearen Eranskinean jasotzen dena. Urriaren 29ko 8/2004 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Testu bategina.

«Baremo sistema» izenekoaren erabilpena AJAPELaren 141.2 artikuluan ezarritako irizpideen zehaztasuna nahikoa ez izatetik dator.

Sistema hori aplikatuzetik eratortzen diren onurak nabarmenak dira, kalte-ordaina jaso nahi duen gertakaria modu objektiboan eta berdintasunezkoan aztertzeko erreferentea delako. Gainera, praktikoki, ondare erantzukizuneko erreklamazio gehienak txosten medikoek baieztatzen dituzten kalte fisikoengatik aurkezten dira, eta horiek esparru zibilean hedaturik dagoen baremo sistemara egokitzen dira.

Dena dela, baremo horiek aplikatzean kontuan hartu behar da «orientatzeko balio gisa erabili behar direla, ezin aplikatu dakizkiokeelako zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo ez normaletik eratorritako gorputzeko kalteei» (denetarako, ABJI 93/2004).

Batzordeak, ebazpen ezberdinetan, kontuan hartu izan ditu kalte moralak, eta honakoa baieztatu: «EKren 106.2 eta AJAPELaren 139.1 artikuluetan ezarritakotik ulertzen den ordain osoaren printzipioaren arabera, orokorrean onartzen da ordaina kalteturiko pertsonak adierazitako eta frogaturiko kalte guztiengatik jasoko dela, hau da, ez bakarrik interes ekonomiko edo zuzenean ebaluatu daitezkeenengatik, baizik eta modu berean beste esparru batzuetan eman izan daitezkeenengatik ere; adibidez arrasto edo kalte moralengatik, edo modu orokorragoan, *pretium doloris* izenekoagatik» (ABJII 97/2001, 10/2003 eta 44/2003).

Kalte moralen atal honi dagokionez, Batzordeari atentzioa emanarazi dioten kontuak horien baieztapen eta balorazioari buruzkoak izan dira.

Lehenengo kontuari dagokionez, Batzordeak adierazi du ordaina jaso nahi duen kaltea alegatu eta frogatu egin behar dela, nahiz eta exijentzia hori zehaztu daitekeen. Horrela, ABJI 97/2001 kasua frogaren doktrinaren gainean zehaztu zen, ez dagoelako zertan frogak eskatu eman den gertakariaren ondorioa nabarmena denean. Irizpide hori ABJI 10/2003 kasuan aztertutako suposamenduan ere ematen da, kasu hartan baliogabeturiko jarduera administratibotik eratorritako kalte moralak ere baloratu zelako.

Bigarren kontuari dagokionez, balorazioarena alegia, mota honetako kalteen gainean emaniko ebazpenetan horiek suposatzen duten zailtasuna azpimarratzen da (ABJII 97/2001, 108/2002, 10/2003 eta 44/2003).

Horrela, ABJI 44/2003 kasuan –hutsegite baten ondorioz erreklamazio egilearen NANA erantsi zen poliziaren diligenza batzuetan– honakoa ezarri zen: «kalte moralak baloratzeari dagokionez, Batzordeak egokitzen jotzen du gogoraraztea horren ze-

haztopenak alde subjektibo nabarmena duela –1997ko uztailearen 19ko AGE–, eta horrek eragin zuzena duela egiten den balorazioan. Hori dela-eta uste dugu, justifikaturik dagoela arrazoizko hautemateak kontuan hartzea matematikoak baino. Izan ere, ez dago baloraziorako parametro edo modulu objektiborik, nahiz onartzen dugun, 1988ko otsailaren 23ko AGEak egin bezala, “egoera konplexu eta subjektiboak dirutara itzultzeak zailtasunak dakartzala”.

Horregatik, aztertzen diren kasu ezberdinetan agertzen diren gertaera ezberdinak kontuan hartuta, Batzordeak berdintasun eta proportzionaltasun faktoreak izan ditu kontuan zenbatekoa zehazterako garaian (ABJII 10/2003 eta 44/2003).

C) Kaltearen balorazioaren unea eta zenbatekoaren eguneratzea

Kalte-ordaina zehazterakoan kontuan hartu den beste aldeetako bat kaltearen balorazioaren unea eta horren eguneratzea izan da.

AJAPELaren 141.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, –ezarpen horri dagokion idazketa 4/1999 Legeak aldatu zuen– «kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko kontuan izango da zein egunetan gertatu zen benetan kaltea; dena den, erantzukizun-prozedura noiz amaitzen den aintzat hartuta, kopuru hori eguneratu egingo da Estatuko Estatistika Institutuak ezarritako kontsumo-prezioen indizean oinarrituta.»

Kalte-ordaina gauzatzeko beharra ordain osoaren printzipioaren adierazpenetako bat da, Batzordeak bere lehen ebazpenetako batean adierazi bezala (ABJI 27/1999). Kasu hartan honakoa adierazi zuen hitzez hitz: «Kontuan hartu behar da balorazio horretan ezartzen den zenbatekoa eguneratu egin beharko dela prozedura bukatzen den unean, kontsumoko prezioen indizearen bidez. Hori horrela izan beharko da, nahiz eta 4/99 Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, kasu honi ezin aplikatu dakioken Lege honek 30/92 Legearen 141.4 artikuluan erantsitako aldarazpena; izan ere, eguneratze derrigor hori Administrazioaren ondare erantzukizuneko institutuaren oinarritzko azpiegitura arautzailea eratzen duten printzipioen ondorioetako bat da: kaltearen ordain osoaren printzipioa (egun kalte pertsonalei dagokienez zehaztua, baina birtualtasun osoa mantentzen jarraitzen duena ondare kalteen esparruan), eta beraz, kasu zehatzen ebazpenerako balio izan behar du, alde batera utzita zuzenbide positiboko arau zehatz batean islatzen den ala ez.»

Edo orain dela gutxi adierazi bezala, «erabateko ordainaren printzipioa betetzera iristeko, kopuruak baliozko zor gisa hartu behar dira, eta eguneratu egin beharko dira horiek zehazterakoan AJAPELaren 141.3 artikulua ezarritakoaren arabera, hau da, Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritako kontsumoko prezioen indizearen arabera» (ABJII 61/2005 eta 99/2005).

Aurreko adierazpena hainbatetan antzeman bada ere Batzordearen ebazpenetan, zehaztua izan da azterturiko kasu ezberdinen arabera.

Zentzu horretan komenigarria da bereiztea, kalte materialei batetik, eta fisiko eta moralei bestetik, emaniko tratamendua.

Kalte materialei dagokienez, Batzordeak AJAPELaren 141.3 artikuluan jasotako araua aplikatu du, normalean, jasandako kalteak –ondarean izandako kalteak– eta horien datak baieztatzen dituzten dokumentuak egoten direlako. Hau da, kalte-ordainetarako zenbatekoa ezarri izan da eta horixe eguneratzea agindu (ABJII 83/2000, 64/2001, 81/2001, 99/2001, 1/2002, 75/2003...).

Hala eta guztiz ere, kasu guztietan ez da eguneratze klausula delakoa aplikatu. Horixe gertatu da oroharreko zenbatekoa bai baina interesak edo eskaturiko kalte-ordainaren eguneratzea eskatzen ez zuten erreklamazioen kasuan (ABJII 46/1999, 31/2000, 38/2001, 71/2003, 72/2003, 29/2004...). Gauza bera gertatu da itundutako amaiera izan duten suposamenduetan (ABJII 77/2001).

Gorputzeko kalteen gaiak arazo gehiago eman ditu, eta horiek aipatu dugun baremo Sistemaren erabilpenaren ondotik etorri dira.

Zentzu horretan komenigarria litzateke gogoraraztea, erantzukizun zibileko eta ibilgailu motordunen zirkulazioko aseguruaren gaineko Legearen –urriaren 29ko 8/2004 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen testu bategina– Eranskinen lehen ataleko 10. puntuak adierazten duela, urtero, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean hain zuzen, Eranskinen ezarritako kalte-ordainen zenbatekoak eguneratu beharko direla, eta horrelakorik egingo ez balitz, aurreko urteko urte naturalari dagokion kontsumoko prezioen indizearen ehunekoaren arabera eguneratuko liratekeela automatikoki (horixe zen halaber, Ibilgailu Motordunen Erabilpen eta Zirkulazioa aldarazi zuen Aseguru Pribatuen Ordenamendu eta Ikuskapenaren azaroaren 8ko 30/1995 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriak adierazitako funtzionamendua).

Adierazitako ezarpenak kontuan hartuta, beraz, bi izan dira Batzordeak erabili izan dituen teknikak kalte-ordainen eguneratzeari erantzun emateko.

Batetik, kalteak baloratu izan ditu istripua gertatu zen unean edo arrastoak sendotu zirenean indarrean zegoen baremoaren arabera, eta lortutako zenbatekoari kontsumoko prezioen indizearen araberrako eguneratzea aplikatu izan dio (horixe egin zen honako kasuetan: ABJII 91/2001, 72/2004, 62/2005, 63/2005, 87/2005, 89/2005, 102/2005...).

Bestetik, behin gorputzeko kalteak baieztatuta, Batzordeak kalte-ordaina ezarri izan du baina zenbatekoa zehazterako garaian indarrean dagoen Baremoa aplikatuz. Jarduteko modu hori ebazpen ezberdinetan islatzen da (DDCJA 6/2001, 21/2003, 22/2003, 113/2004, 117/2004...), baina eguneratzea balorazio aukera horren kalte-ordainen printzipioari egokitzen zaiola oinarritzen duena ABJI 93/2004 kasua da.

Ebazpen horren amaieran AJAPELaren 141.3 artikulua gaineko irakurketa egiten da, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aipatuz adierazten, eragindako kaltearen or-

dainketa osoa «modu ezberdinetan lortu daitekeela, adibidez, erreklamazioa egin zen unetik zor den interes legala ordainduz, indize edo klausula egonkorren baten bidez eguneratuz, prezio edo txanponarena kasu, edo auzia konpontzen den unean jaso beharreko kalte-ordain kopurua ezarriz (2000ko apirilaren 10eko AGE)».

Modu berean honakoa erantsi zen: «gure kasuan, AJAPELaren 141.3 artikulua hitzez hitzeko irakurketa eginda, aldi-baterako ezintasuneko egunengatiko kaltearen zenbatekoaren zehaztapena 2002 urtea kontuan hartuta egin beharko balitz ere (erorikoa urte horretako uztailearen 1ean jazo zelako), kontuan hartuta (i) kaltearen jarraikako izaera; (ii) erreklamatzaren diren lesioak 2003ko martxoaren 13an egonkortuko direla –data hori ordea, ondorenean bakarrik ezagutu daiteke– eta (iii) interesdunak kalte-ordainak jasotzeko erreklamazioa ez duela 2004ko maiatzaren 25era arte osatu, aipaturiko jurisprudentzia doktrina kontuan hartuta, ez da inolako arrazoirik ikusten kaltearen zenbatekoa bajaran, ezintasun egoeran, egondako egunetarako 2004ko martxoaren 9ko Ebazpenak ezartzen duen zenbatekoa kontuan izanda ez zehazteko –ebazpen proposamenak adierazi bezala–.»

Batzordearentzat garrantzitsua dena, beraz, aipaturiko bi tekniketarik zein erabiltzen den alde batera utzita (erabilpena aztertzen ari den kasu zehatzak adieraziko du: erreklamazioan adierazitakoa; gertatu zen eguna; eragindako kalteak...), ordainaren printzipioa lortzea da, eta hori beti da konplexua ekonomikoki kalte fisikoak baloratu behar direnean.

D) Irizpide zuzentzaileak

Azkenik, aipamen bat egingo dugu Batzordeak *quantum indemnizatorio* delakoa zehazterakoan erabilitako irizpide zuzentzaileen gainean. Izen horren pean arrazoi bataketa (kulpak) edo kalte-ordainen bateragarritasuna jasoko ditugu.

Kalte ekarri duen gertakarian administratuak kulparik izango balu, horrek kalte-ordaina gutxitzea ekarriko luke. Normalean, eta bestelako irizpiderik ez dagoenez, % 50ean ezarri ohi da beherapena (ABJII 6/2001, 10/2001, 1/2003, 22/2003, 95/2002, 29/2004...).

Azkenik Batzordeak, kalteturiko pertsonak gauza ezberdinengatik jaso ditzakeen kalte-ordainen bateragarritasunaren gaia nola jorratu duen adieraziko dugu.

Hasiera batean, ondare erantzukizuneko kalte-ordaina kaltetuari egoki dakizkion beste kalte-ordain batzuekin batera daiteke. Administrazioaren ondare erantzukizunetik eratorritako kalte-ordainaren eta bestelako arrazoiengatik jasotakoaren bateragarritasun horren onarpenak ordea, modulazioak ekar ditzake hari ezarritako zenbatekoan, biak eskubide berdinen gainean bateratzen direnean.

Bateragarritasunaren gaiari dagozkion kontu horiek herri Administrazioetako langileen kasuan eman dira, beren funtzioak garatzerakoan kalteren bat jasan izan dutenean.

Izan ere, Batzordeak adierazi bezala, «gertakari horrek suposatzen du, kalte-ordainaren eskaera funtzionarioa Administrazioarekin lotzen duen harreman juridikoaren esparruan aztertu beharko dela, eta esparru horretan bertan bideratu haren erregimen propioaren arabera. Beti ere, –berriro diogu– zerbitzu arrazoiengatik jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko printzipioaren esparruan» (ABJI 38/2000).

Hala eta guztiz ere, izan daiteke harreman zehatz hori nahikoa ez izatea eragindako kalteak ordaintzeko, eta une horretan ondare erantzukizuneko institutuari dei dakioke. Suposamendu horietan aipaturiko modulazioa posiblea da.

Horrela, adibidez, ABJI 10/2001 kasuan, funtzionario baten heriotzarengatik erreklamazioa bideratu zen, eta Batzordeak, ondare erantzukizuna bazegoela onartu ondoren, kalte-ordainaren zenbatekoa gutxitu zuen onuradunak Administrazioak kontratatuturiko bizi aseguruarengatik jada jasotako kopuruan, bi suposamenduetan kontzeptu berarengatik jaso zuelako kalte-ordaina.

2. ONDARE ERANTZUKIZUNA FUNTZIONARIO PUBLIKOEK BEREN FUNTZIOAK BETETZERAKOAN JASANDAKO KALTEENGATIK

José Ignacio Landín Escos jauna

Funtzionario publikoek beren funtzioak betetzerakoan jasandako kalteengatiko ondare erantzukizuneko erreklamazioei ematen zaien tratamendu bereziaren arrazoia Herri Administrazioen eta funtzionarioen arteko lotura estatutario bereziari atxikitzen zaion titulu zehatzean dago, eta bereziki funtzionario gisa garatu beharreko jardueren kasuan eragindako kalte fisiko eta moralen esparruan eragindako kalteei ematen zaio arreta.

Batzordeak aukera izan du funtzionario publiko batzuk beren funtzioak edo karguak betetzerakoan jasandako kalteengatik beren Administrazioei ondare erantzukizunagatik aurkezturiko erreklamazio ezberdinak aztertzeo.

Gai honi dagokionez emaniko lehen Ebazpenean (ABJI 37/1999), eta antzerako kasuetan ondorenean emaniko Ebazpenetan (ABJII 38/2000; 99/2000; 16/2001; 31/2001; 35/2001; 76/2001; 3/2002; 4/2002; 24/2002; 2/2003; 11/2003; 18/2004; 50/2004; 78/2005; 100/2005 eta 101/2005), Batzordeak modu argian zehaztu izan du aipaturiko ondare erantzukizuneko erreklamazioak aztertzerakoan kontuan hartzen diren irizpide orokorrak. Erreklamazio horien kasuan, adierazten den kaltea funtzio publikoa gauzatzean ematen den funtzionarioarekiko harremanaren esparruan gauzatzen da.

Aipaturiko suposamendu horiek zehazki aztertu aurretik, Batzordeak ondare erantzukizunaren esparruan agertzen diren oinarritzko elementuak aztertu ditu.

Jakina den moduan, herri administrazioen ondare erantzukizuneko erregimenak, etengabeko jurisprudentziaren arabera, EKren 106.2 artikuluan du oinarri zehatza. Horren arabera, subjektu pribatuek, legeak finkatutako eran, eskubidea izango dute, beren ondasun eta eskubideetan izandako kalte guztien ordaina jasotzeko, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta kalte horiek herri-zerbitzuen jardunbidearen ondorioz gertatu badira.

Funtzionarioak Herri Administrazioarekin duen loturaren zehaztasuna kontuan hartuta, Batzordeari ezarpenaren irakurketa iradoki zion lehenengo kontua *partikularrek* hitza izan zen. Ondorioz, adierazpen horrek Herri Administrazioek eragindako kaltea jasaten zuten funtzionario publikoak jasotzen zituen edo alderantziz, hitz horrek pertsona horiek kanpo uzten ote zituen argitu behar izan genuen, eta azken kasu horretan ez lukete partikularren izaera izango, kalte-ordainen eskubideak kasu horietan harreman juridiko estatutarioaren arau esparruan antolatuko bailirateke.

Kontu horren gainean Batzordeak orokorrean aplikatzeko irizpide gisa ulertu du ondare erantzukizuneko institutuaren oinarrian dagoen printzipioa nahiz Herri Administrazioak Legea eta Zuzenbidera makurtzen duena, zigorgabetasunari esparrurik

utzi gabe, funtzionario publikoak partikularren esparruan kokatzeko beharra zehazten dutela, jada existitzen den doktrina eta jurisprudentzia irizpideekin bat etorriz. Horren bidez, pertsona horien eskubideak babesteko aukera egongo da eta kalte-ordaina jaso ahal izango dute sektorearen araudian beran ordaintzeko modukotzat espresuki hartzen ez diren aldeengatik. Horretarako beti ere, ondare erantzukizuneko institutuak aplikaziorako exijitzen dituen baldintzak eman behar dira.

Premisa horretatik abiatuz, Batzordeak honako aplikazio irizpide hauek ezarri ditu funtzionario batek Administrazioak bere funtzioak betetzerakoan eragindako kalteengatik ordaina jasotzea eskatzen duten ondare erantzukizuneko erreklamazioak aztertzerakoan:

A) Lotura bereziko harremana lehentasuna duen elementu gisa

Erreklamazio egile-funtzionarioaren eta Herri Administrazioaren artean dagoen lotura bereziko harremanak, Batzorde honen ustez, jasandako kaltea funtzionario harremanaren esparruan bertan aztertzea eskatzen du. Horrek, hasiera batean, AJAPELaren 139. artikuluan eta hurrengoetan jasotako arauditik kanpo utziko litzuzke suposamendu hauek. Horietan, kontratutik kanpoko Administrazioaren ondare erantzukizuna onartzen da, hau da, gai zehatz batetik eratortzen ez denerako.

Kasu horietako egozpen titulua ez da zerbitzu publikoaren funtzionamendu normala edo ez normala, baizik eta funtzionario harremana bera, eta horrek Administrazioa eraman behar du funtzionarioari lanpostuko betebeharrekin betetzean eta haren kulpaa edo axolagabekeriagatik etorri ez diren kalte eta galerengatik ordaina ematera. Betebehar horren sorrera funtzionario publikoen esparruan agertzen den ordain printzipioan dago. Etengabeko doktrinak honako modu honetan zehazten du adierazpen hori: «Jarduera publikoagatik edo hori dela-eta, eta kulpaa edo axolagabekeriagatik etorri ez den kalterik jasaten duenak, funtzio publikoaren ulermen eta jardueraren eraginetan bertan aurkitzen diren arrazoiengatik ordaina jaso behar du.»

Gertakari horrek suposatzen du, kalte-ordaina jasotzeko eskaera funtzionarioa bere Administrazioarekin lotzen duen harreman juridiko zehatzaren baitan azertu behar delako, eta esparru horretan dagoen erregimenaren arabera, zerbitzu arrazoiengatik jasandako kalteen ordainaren printzipio orokorraren baitan.

B) Erregimen orokorraren aplikazio subsidiarioa

Erregimen orokorra bakarrik aplikatuko da goiburua zehatzen pean eta horretarako araubide zehatzik ez dagoenean, edo azken hori existituta ere, horren aplikazioak ez dituen eragindako kalteak kontuan hartzen, beti ere ondare erantzukizunaren sorrerarako exijitzen diren baldintzak ematen direnean.

Horren ondorioz, ez da *a priori* alde batera uzten ondare erantzukizuneko erregimena aplikatzeko aukera. Hori araudia zehatza ez egotera, edo egotekotan, kalteak betetan ez konpontzearen kasura –izaera berezia kontuan hartuta– loturik egongo lirateke.

Zentzu horretan interesgarria da azpimarratzea ABJI 18/2004 kasuan EHUko funtzionario batek jasandako kalteak aztertu zirela Leioako Unibertsitatearen eraikinera sartzeko eskaileren hondamen egoerarengatik.

Ebazpenetan mantendu izan duen irizpide orokorra badagoela onartuz, Batzordeak azterketarako elementu gisa enplegatzailearen betebeharrak ez betetzea erantsi du, ABJI 35/2001 kasuan jada adierazi bezala. Izan ere, kulparen doktrina garrantzitsua izan daiteke erregimen legal ezberdinak ondoan jartzeko arrazoi gisa.

Zentzu horretan, Batzordeak ulertzen du kalte pertsonal larria ematen dela eta kalte-turiko pertsonaren ahalmenak mugatzen direla. Edonola ere, beharrezko baldintza da kulpazibila eranstea zentzurik zabalenean, eta hori nahikoa baieztaturik geratzen da espedienteetan.

Aipaturiko irizpideen aplikazio praktikoa adierazitako ebazpenen bidez gauzatu da. Horietan egoera ezberdinak aztertzen dira, eta komunean duten elementua funtzionario publiko batek bere funtzioak betetzerakoan jasandako kaltea da.

Ondorenean, ebatzitako kasuen aipamen laburra egingo da, Batzordeak horietako bakoitzari emaniko tratamenduaren arabera sailkatuz:

I) Herri Administrazioaren ondare erantzukizuna ez dela existitzen adierazi diren kasuak, kaltea behar bezala estaltzeko lotura berezia egotea oinarri izanda

ABJI 37/1999

Ertzaintzako agente batek izandako lesioak aztertu ziren. Kaltea Euskal Poliziarren Ikastegian ikastaro bat egiten ari zela jaso zuen, irakasleetako batek paretaren kontra errebotatu zuen koktel su-eragile baten jaurtiketaren ondorioz.

ABJI 38/2000

Ertzaintzako agentek batek izandako lesioak aztertu ziren. Kaltea Barakaldoko Justizia Auzitegian ohiko zaintza funtzioak egiten zebilela jaso zuen, Aitorpen Salako zoru flotagarriko lauza txikien hausturaren ondorioz.

ABJI 99/2000

Ertzaintzako agente batek hiritarren segurtasunerako lanak egiten zebilela jasandako kalteak aztertu ziren.

ABJI 16/2001

Donostiako Campuseko Informatika Fakultateko Atezain nagusiak izandako lesioak aztertu ziren, bere funtzioak betetzen zebilenean.

ABJI 31/2001

Ertzaintzako agente batek izandako lesioak aztertu ziren. Kaltea istiluen aurkako operazio batean kide batek nahi gabe, poliziaren furgonetan gomazko pilota bat jaurti zionean gertatu zen.

ABJI 35/2001

Ertzaintzako agente batek borroka-arteak egitean izandako lesioak aztertu ziren.

ABJII 76/2001, 3/2002 eta 4/2002

Lehendakariordetzako Saileko Zerbitzu Juridikoko funtzionarioek jasandako kalteak aztertu ziren, beren funtzioekin betetzen zuten zerbitzuaren antolaketa desegokiaren ondorioz.

ABJI 24/2002

Ertzaintzako agente batek jasandako lesioak aztertu ziren. Kaltea berak zerbitzuak ematen zituen Komisarian izandako erorikoaren ondotik etorri zen, eta jasandako lesioak aztertu ziren.

ABJI 2/2003

Ertzaintzako agente batek jasandako lesioak aztertu ziren. Kaltea berak zerbitzuak ematen zituen Komisarian izandako erorikoaren ondotik etorri zen, eta jasandako lesioak aztertu ziren.

ABJI 11/2003

Funtzionario publiko batek, betetzen zuen lanpostuari zegokion soldata ez jasotzeagatik, jasandako kalteak aztertu ziren.

ABJI 50/2004

Ertzaintzako agente batek poliziaren furgonetatik ateratzerakoan izandako erorikoaren ondotik etorritako lesioak aztertu ziren.

ABJII 78/2005, 100/2005 eta 101/2005

Ertzaintzako agenteek jasandako kalteak aztertu ziren, beren nagusi zirenen partetik jasotako tratamenduaren ondorioz.

Ebazpen horiek intereseko elementu bat gehiago eransten dute Batzordeak *mobbing*-aren irudia garrantzia duen elementutzat jotzen duenean kaltea eragiteari dagokionez.

II) Herri Administrazioaren ondare erantzukizuna badagoela adierazten da, nahiz eta lotura bereziko harremana existitu

ABJI 18/2004

EHUko funtzionario batek Leioako Unibertsitateko eraikinera sartzeko dauden eskaileren hondamen goeraren ondorioz jasandako kalteak aztertu ziren.

V. KAPITULUA
**OFIZIOZKO
BERRIKUSPENAREN MUGAK**

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna

1. GOGOETA OROKORRAK

Jarduera propioen berrikuspenerako eskumen administratiboari dagokionez, Administrazioek duten autotutoretza erabakitzailearen adierazpena alegia, Batzordeak zuzenbide osoz baliogabekoak diren arrazoiak antzemateko zorroztasuna muturreraino eramateko interpretazio ildo jarraitu du.

Egia da helburu bat lortzea, horrek izan dezakeen legitimotasuna izanda ere, kasu honetan Administrazioa legezkotasun printzipiora makurtzea, ezin dela Legeak lan hori gauzatzeko ezarritako Legeetan jasotako arauak ezagutu gabe gauzatu, prozedura ezberdinak bata bestearengatik aldagarriak bilakatuz suposamendu ezberdinak jorratzerakoan. Bi prozedura horiek ofiziozko berrikusketa (AJAPELaren 102. artikulua) edo Auzitegietan aurre egin aurretik kaltegarri izanaren adierazpena (AJAPELaren 103. artikulua) izango lirateke. Horrela, ofiziozko berrikusketa ezin gera daiteke Administrazio bakoitzaren hautemate subjektiboaren pean, baizik eta baldintzaturik egon behar du gaitzen duten suposamenduen objektibotasun eraginkorrari.

Lan horren aurrean neurritasuna eta kautela egon behar dira, eta interpretazio hedakorrak edo gertakari zalantzagarriko suposamenduetara aplikatzea erabat galarazi.

Hermeneutika ildo hori oso goiz antzeman ahal izan zen ofiziozko berrikuspenen esparruko lehen Ebazpenetan (ABJII 23/2000tik 27/2000ra), eta ordudanik aurrera ere mantendu izan da inolako modulaziorik izan gabe.

Adierazi den bezala, epaitutako gauza, eta horrekin batera baita segurtasun juridikoa ere, apurtzen duen ezohiko eskumena da, eta Zuzenbidea modu ezohiko larrian urratzen den kasuetarako uzten da. Horien aurrean, segurtasun juridikoak amore eman behar du Ordenamenduan inolaz ere onar ezin daitekeen suposamendua agertzean.

Horren ondorioz, beraz, kontrol zorrotza izan beharreko eskumenaren aurrean gaude. Horretarako dauden bideetako bat, gertakaria –Legearen arabera– ahalbidetzen duten (zuzenbide osoz baliogabetzat jotzeko arrazoiak) arrazoiaren gaineko interpretazio mugatzailea egitea da. Horren bidez lortuko dena da, arau-hauste larriago edo nabarmenagoak izanda ere, elkarte juridikoan onartezintzat jotzen diren bidegabekeria eratzten duten Legearen arau-hausteetara ez zabaltzea.

Jarduera administratiboak bidezkoak ez izatearen gaiko arau orokorra baliogabetzat jotzea da, eta horixe adierazten da AJAPELaren 63. artikuluan. Modu berean, erabateko baliogabetzea salbuespena da, eta bakarrik emango da AJAPELaren 62.1 artikuluan jasotako suposamenduren bat gertatzen den kasuan. Horiek, aipaturiko ezohiko izaera kontuan hartuta, interpretazio neurtua izan beharko dute, kasu bakoitzean agertzen diren gertakari guztiak hausnartuz. Horrela, arau-hauste larriek bakarrik zehaztuko dute horietan antzematen diren jardueren zuzenbide osoko baliogabetzea.

Exegesi mugatzaile horrek are zentzu gehiago du, 4/1999 Legeak erantsitako aldarazpenaren aurrean. Izan ere, aurreko erregimen juridikoan zuzenbide osoz baliogabeak izan ez baina araubidearen urradura suposa zezaketen jarduerak Administrazioak ofizioz berraztertzeke zituen aukera guztiak deuseztatzen dira. Argi dago legegilearen helburua ofiziozko berrikusketak kasu oso larrietarako bakarrik uztea izan dela, zuzenbide osoko baliogabetzeentzat, alegia. Hori dela-eta, egoera legal berria errespetatzeko, beharrezkoa litzateke azken horien interpretazio hedakorrak Administrazioari berrikusketa eskumekiko galdu duen esparrua berreskuratzea ekiditea.

2. KONTSULTARAKO FUNTZIOAREN BALDINTZATZAILEAK

Lan hermeneutiko konplexu horri ekin aurretik, kontsultarako funtzioaren mugak zeintzuk diren zehaztu dira.

Lehenik eta behin adierazi da, ezin dela berrikusketaren oinarria erabat aldatu. ABJI 23/2001 kasuan automugaketa horren oinarria adierazi zen: «ez bakarrik bestelako arrazoirik ematea edo Administrazio aktiboaren papera hartzea ez dagokiolako egingdako berrikuspenaren arrazoiak zehazteko, baizik eta batez ere, eta modu oso nabarmenean, horrelakorik egingo balitz interesdunaren defentsarako eskubide osoa apurtuko litzatekeelako, alegazioak, dokumentuak edo egokitzat joko lituzkeen justifikazioak aurkezteko ez litzaiokeelako aukerarik emango».

Zentzu horretan eta nabarmena den arren hau adieraztea, Administrazioak ez duenean berrikuspena AJAPELaren 62.1 artikulua ezarritako baliogabetasun arrazoiaren arabera justifikatzen, berrikuspen espedienteak gainditu ezin izango duen oztopo aurkituko du eta porrot egingo.

Hain zuzen ere, ABJI 84/2005 kasuan gertatu bezala, «ezin onar daiteke AJAPELaren 64. artikulua aplikatuz bakarrik –zehazki adierazten du gainera prozedura batean erabat

edo neurri batean baliogabeturiko jardueratik kanpo geratzen diren jarduerak mantendu behar direla, horiei ez baitie akatsak eragiten— kontrako emaitzara iristea, hau da, esku artean duguna bezalako eskubideen adierazpen jarduera ofizioz baliogabetzera».

Horrela, bada, prozedura kalteturiko eskubide edo interesei ahalik eta babesik handiena emanez garatuko dela bermatu behar da, eraginkortasun ezeko zigorra jasoko duen xedea ahalik eta gehien babestuz.

Bigarrenik, kontuan hartu behar den beste elementua da, Administrazioak modu egokian eta arrazoituan adierazi lezakeela berrikusi nahi duen jardueran zuzenbide osoko baliogabetasuna izan dezaketen hainbat akats agertzen direla.

ABJI 71/2005ean jaso zen, arrazoi bat edo gehiago aipatzen direnean, horietako bakoitzak azterketa zehatza behar duela izan, berrikuspenerako arrazoi aske gisa jarduten duten heinean.

Hala eta guztiz ere, ez da beharrezkoa Batzordeak azterketa guztia amaitzea, izan ere, nahikoa da arrazoiren bat ematen dela antzematea eta zehaztea, jarduera dagokion azterketara makurtzeko, jarraitu beharreko segida AJAPELaren 62.1 artikuluan jasotako segidatik eratorrikoa dela zehaztuz: «nolabaiteko galeraren maila, horiei guztiei atxikitzen zaien gutxieneko larritasunaren barruan, inplizituki dagoenean».

3. BERRIKUSKETARAKO ARRAZOIAK

AJAPELaren 62.1 artikulua lotzen duten arrazoiak ezagututa, gaur arte ez bada espediente gehiegirik egon Administrazioek autokontrola erakustearen ondorioz izan da; Batzordeak egínko azterketa, jarduera administratiboen baliogabetze arrazoi ia guztiak hartu ditu kontuan. Argitaratu gabe bakar bat geratu da, a) letran jasotakoa: «Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete».

Doktrina horri inguratzeko, honako hauek bereiztuko ditugu aurkeztu zaizkion suposamenduen maiztasunaren eta ebatziriko prozeduren ezaugarrien arabera:

Oinarrizko baldintzak

AJAPELaren 62.1 artikuluan jasotako arrazoi guztietatik, bere atenzioa gehien eman duena, dudarik gabe, f) letran jasotakoa izan da: «Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak nahiz presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete, horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei».

Arrazoiak ulergarriak dira: batetik, gertakari suposamenduaren muga zehaztugabe dago, legegileak nahitaez labur adierazi behar izan zuena jardueren eta horien ager-

pen ezberdinen eduki anitzak, jardun administratiboaren konplexutasunaren eta horren esparru eta sektore anitzetako hedaturaren heterogeneotasun naturala jasotzeko. Bestetik, letra horretan 4/1999 Legearen aldarazpena baino lehen baliogabetu daitezkeen jardueretan agertzen ziren kasuak eransteko joera. Administrazioen joera natura da eraginkortasun eta ekonomia ukaezineko teknikaren erabilpena mugaturik ez ikustea.

Arrazoiaren agerpena baloratzeko garaian, aplikazioa ezarpen zehatzetara mugatzeko esfortzua egin da. Izan ere, kontrakoa emango balitz, jarduera administratiboaren baliogabetze erregimen osoaren desnaturalizazioa emango litzateke —hedatzeko aukera kontuan izanda—, eta horrekin Administrazioaren berrikusteko eskumenaren gehiegizko erabilpena.

Modu horretan, Batzordeak honakoari eutsi dio: «62.1 artikuluko f) atalean jasotako akatsa ematen dela ulertzeko, ez da nahikoa jarduera ordenamendu juridikoaren aurkakoa izatea, hori emango balitz neurri-bateko baliogabetasun suposamenduen hustuketa desegokia emango bailitzateke, eta erabat murgilduko lirateke aipaturiko atalean. Aipaturiko arauak zerbait gehiago eskatzen du, izan ere ez da nahikoa jarduera ilegala izatea. Modu berean beharrezkoa da horri esker interesdunak eskumen edo eskubideak lortzea «horiek eskuratzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen ez dituenean». Azken ezarpen horren bidez, legegileak erabateko baliogabetasun suposamendu hau mugatu nahi izan du muturreko kasuetara. Horietan, jarduera administratiboaren ilegaltasuna eztabaidatzeaz gain, bidegabeko jardueran onartu edo eman zitzaiona eskuratzeko ezinbestekoak diren suposamenduan, falta diren kasu larri eta nabarmenak eratzea ere behar du» (ABJII 23 eta 24/2001).

Ondorioz, behin arau-haustea eta eskumen edo eskubideak lortzeko baldintza falta antzemanda, eskatzen zen sinpleziak bete gabeko baldintzaren helmena zehaztera behartu du. Izan ere, ezinbesteko suposamendua —edo ebazpen horietara beste organo aholku-emaileen adierazpenak erabiliz, beharrezkoa da «jarduera emateko eska daitezkeen oinarrizko suposamendua izatea» edo «jarduera definitzen duen azpiegiturari buruzkoa izatea»—, eta ordenamendu juridikoaren aurkako mailakoa izan behar da. Izan ere, ez betetzearen kasu larri eta nabarmena ebatzi behar da.

Eskema horri dagokionez, ebazpenen edukiaren gaineko berrikusketa egitean antzematen da kontuen gaietan neurri bateko parekotasuna ematen dela eta horiek ebazterakoan jarrera koherentea dagoela. Horrela, bi idazpuru mugatu ahal izango dira.

Berrikuspenaren alde eman diren ebazpenak matrikulazio jardueri buruzkoak ziren, eta horietan Unibertsitatean jarraitzea ebatzi zen (ABJII 23/2000 eta 24/2000, 26/2000 eta 27/2000, eta 46/2000). Kasu horietan ikasketekin jarraitzeko hezkuntza baldintzak ezinbestekotzat hartu ziren. Zentzu berean, ABJI 43/2002 kasua eman zen, eta horren berezitasuna interesdunaren aldeko kalte-ordainaren bidezkoatasuna adierazi zen kasu bakarra izatea da.

Kontrako ebazpenak jaso dituzten kasu gehienak «funtzionario-erregimen» goiburuaren azpian koka daitezke. Horietan maila sendotzeko jarduerak epaitu dira (ABJI 23/2001), ordainsari aldean ordainketa (ABJII 24/2001 eta 25/2001) edo hezkuntza merezimen-duengatik bosturtekoen emakidekin batera (ABJII 95etik 99ra). Horietan ez zen erabateko baliogabetasunerako akatsen existentziarik antzeman, labur esanda, jarduera horietan Legearen erabat aurkakoa izango zen emaitzarik ez zelako lortzen, eta hark lortu nahi zuen helburua ez zelako ezta modu adierazgarrian aldatzen.

Gai horretaz gain, meatzaritzako baliabideen ustiapenerako bi emakida ere berrikusi ziren eta kontrako txostena eman zitzairen, lursailen titulartasuna izatea ez delako nahikoa baldintza C) ataleko baliabideak ustiatzeko, eta modu berean ezin delako ezinbesteko suposamendutzat hartu A) ataleko baliabideei dagokienez.

Modu berean ABJI 19/2003 kasuan, zuzenbide osoz baliogabetzat hartzea posible ez zela adierazi zen ikasgai baten baliozkotzea, gaiko ikasketak egin baziren.

Prozeduraren erabateko eta guztizko ez-egitea

AJAPELeko 62.1 artikulua e) letran ezarritako arrazoiak atentzio handiagoa eskatu du Batzorde honen aldetik. Horren bidez, adierazi zaizkigun kasuak suposamendu honetan sartzeko modukoak diren argitu ahal izan dugu.

Orokorrean, puntu berean inkardina daitezke prozedura osoaren ez-egitea, okerreko prozedura baten aukeraketa –Administrazioak, hain zuzen, legalki ezarritako prozeduraren bidez jardun behar du–, edo ezinbesteko izapideen ez-egitea.

Lehenengo suposamenduak ez du aparteko zailtasunik agertzen. Jarduera ematen da inolako prozedurarik jarraitu gabe.

Bigarrenari dagokionez, egia da Administrazioak araudiak kasu bakoitzerako ezarritako prozedura bideak errespetatu behar dituela, baina benetako desoreka larria ematen denean bakarrik ulertu ahal izango da akats horrek jardueraren eskubide osoko baliogabetasuna eragiten duela. Desoreka jardueran emaniko edukiaren eta hori emateko jarraitu beharreko prozeduraren arteko kalifikazioaren artean akats bat ematen denean agertuko da, errespetatu behar izan zituen oinarrizko izapideak orokorrean eta erabat utzi direnean alde batera.

Azkeneko suposamenduari dagokionez eta jurisprudentzia doktrinak erabilitako irizpidearekin bat etorritik, Batzordeak adierazi du prozeduraren ez-egite osoa eta erabatekoa ezin identifika daitekeela izapide faltarekin. Izan ere horrek esan nahiko luke, kontuan harturiko baliogabetasunerako arrazoiak *flatus vocis* bihurtuko dela. Adierazpen hori prozeduratzat hartzeko ezinbestekoak diren izapideen ez-egiteari atxikitzen zaio (1988ko otsailaren 15eko AGE-Ar. 1142 eta 1990eko maiatzaren 23ko AGE-Ar. 4729).

Balorazio hori izango lukete ezinbestean gauzatu beharko lirakekeenak ebazpena prestatu eta emateko, eta organo administratiboaren borondatea arautu eta behar bezala eratzeko ezinbestekoak lirakekeenak.

Batzordearen jardunera itzuliz, ABJI 71/2005 kasuan adierazi zuen, aipaturiko urratzea ematen zela Administrazioak lan kontratu mugagabeak egiteko erabakia hartu duenean izaera publikoko aurretiko hautapen prozesutik pasa izan gabe, izan ere, prozeduraren falta nahiz maila juridiko goreneko sakrifizio nabarmena arrazoi larriak dira: «alde batera utzi diren izapideak, hain zuzen ere, kargu eta funtzio publikora berdintasun baldintzetan iristea bermatzen dutenak dira, EKren 23.2 artikulua zehaztu bezala. Modu berean botere publikoak ezinbesteko eskubide horri lotzea bermatzen da, EKren 53.1 artikuluan ezarritakoa betez».

Aitzitik, prozeduraren erabateko haustura egotea deuseztatu zen Hiri Ordenamendurako Plan Orokor bateko exekuzio unitate baten mugaketaren aldarazpena egin zenean, horretarako LLaren 118. artikuluan eta HKaren 38.2 artikuluan legalki ezarritako prozedura jarraitu baitzen. Hori da, azken batean, Administrazioaren jarduteko modua zehaztu behar duena helburu hori lortu nahi duenean, eta nahikoa arrazoitu eta justifikatuta zegoen. Gaitasuna duten udaleko zerbitzuek ere, aldeko txostena eman zuten.

Baliogabetasunerako gainerako arrazoiak

Baliogabetasunaren gaineko Batzordearen doktrinaren berrikuspen honetan, kontuan hartzeko da kasu batean g) letraren suposamendu orokorraren kasua aztertu izan dela: «Lege-mailako xedapen batean berariaz ezartzen bada», AJAPELaren 62.1 artikulua.

ABJI 63/2000 kasuan, ildo mugatzaile orokorraren indarraldia babesteaz gain, eta legegileak berak kalifikazio hori zehazki eman nahi izan dion suposamendua bada ere, zentzuz egin izango zuena ordenamenduaren oinarritzko edo funtsezko balioak defendatzeko, ulertu zen zuzenbide osoz baliogabeak zirenak jasotzen zirela: «sektore Lege batean, eta 30/1992 Legean ezarritako baliogabetasunerako arrazoen testuinguruan sarturik ulertu behar dira, suposamenduak azken horiei pareka dakiekeen larritasuna dakarrenean, hau da, ordenamenduaren aurkakoa izatea nabarmenki eta modu onartezinean».

Zehazki interpretazioa jaso zuena Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 22. artikuluan idazketa izan zen, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak onarturikoa. Azkenean ebatzi zen, interpretazio irizpide horrekin bat etorritik, bateraezintasun arrazoiengatik kontratatzeke debekuen aurrean, gertakari hori ulertu behar dela zentzu materialean, hau da, horixe ematen dela pertsona batek eginikoa Legearen arabera bateraezina denean, zuzenbide osoko baliogabetasun esparrutik kanpo utziz forma edo prozeduraren akatsak.

Ezinezko edukia duten jardueren tipologia anitzaren barruan, AJAPELaren 62.1 artikulua c) letran, aukera izan zen ABJI 68/2005 kasua epaitzeko, ezintasun juridikoa agertzen zuen jarduera, hain zuzen. Kasu horretan adierazi zen, ilegala izatetik urrun zegoela, baina «demaniozko ondasunen desafektazioak horren besterentzearen suposamendua eratzen duela, eta horren faltak adierazten du larritasuneko ezintasuna existitzen dela, eta bortizkeriarik gabe aipaturiko atalean inkardina daitkeela».

AJAPELaren 62.1 artikuluko d) letra ere, kasu batean erabili zen, ABJI 98/2005ean hain zuzen. Kasu horretan Batzordea bat etorri zen kontsulta erakundearekin uste izatean, jardueraren oinarrian konponbiderik gabe akastu zuen gertakaria zegoela. Hizkuntza eskakizuna ziurtatzeko frogetan egokitasun deklarazioa eman zen; jarduera hori ez da delitua bere horretan, baina horren gauzatzean berebiziko garrantzia izan zuen agiri publikoen faltsutasun delitua eman izana. Zigor Epaia frogaturiko gertakarizat hartu zuen, gainditua jaso zuen pertsonak ez zuela parte hartu frogetan.

Azkenik, urtea bukatzeaz egonda, AJAPELaren 62.1 artikulua b) letraren exegesia aztertu zen («Gaia edo lurraldea dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duten organoek eman badituzte»).

Akats horri dagokionez, Batzordeak ABJI 104/2005 kasuan gogorarazi zuen, eskumenak izatea ezinbesteko suposamendua dela modu egokian jarduteko. Horregatik, «eskumenak izatea da jarduera administratibo batek bete behar duen lehenengo baldintza, 30/1992 Legearen 12. artikulua jasotako lagaezintasun printzipioak eskumenak dituzten organoei beren eskumenak garatzeko betebeharra ezartzen dien heinean. Ezarpen hori araudiaren adierazpen baten ondorio izan behar duenez, inongo agintaritzaren administratibok ezingo du jarduera baliagarri egin berak bere buruari emandako eskumenen bidez (1981eko urtarrilaren 24ko AGE-Ar 22), eta Epaitegiek ofizioz ere onartu izan dute arazoa (1993ko martxoaren 12ko AGE-Ar. 1680)».

Zehazki, arauaren idazketari dagokionez, azpimarratu zen argia dela adieraztean, baliogabetasuna emateko beharrezkoa dela eskumen eza gaikakoa edo lurraldekakoa izatea, eta ez mailakakoa. Gainera, ezarpen legalak *plus* bat exijitzen du, ez delako nahikoa izango gaikako eskumen-faltaren arazoa ematea erabateko baliogabetasunerako akatsa dagoela adierazteko. Horretaz gain, beharrezkoa izango da «eskumen falta argia» izatea.

Gogoeta horietan oinarrituz, aldeko txostena eman zuen Mankomunitate bateko Lehendakariaren jarduera baten berrikuspenari, horren Batzorde Orokorrari zegozkion eskumenen esparruan emandakoa izan baitzen. Izan ere, ez dago bi organoen arteko mailakako loturarik (Alkatearen eta Udaleko Udaltzaren artean ere ez dagoen modu berean), baina Mankomunitatearen Estatutuen aurkakotasun espresa eta larria da. Horrela, pertsona bakar bateko organoak, Lehendakariak alegia, pertsona anitzeko organoaren eskumenak hartu izango zituen, organo honetan ordezkatzeko diren kalteturiko udaleko erakundeen esku-hartzea galaraziz.

4. ONDORIOA

Batzordeak, bere sormenaren Legeak ezarritako lanak betez [9/2004 Legearen 3.1 g) artikulua], berrikuspen prozesuan AJAPELak ezarritako ezaugarri horietako organo baten derrigorrezko esku-hartzearekin bat etorriz (AJAPELaren 102. artikulua), aukera izan du AJAPELaren 62.1 artikuluan zerrendaturiko zuzenbide osoko baliogabetasun arrazoien gaineko interpretazio eta aplikazio arazo ezberdinak konpontzeko.

Azken batean esan daiteke, baliabide honen bidez garbitu nahi izan diren kasuak, dituzten ezaugarri bereziei arreta emanez, zenbait jarduerari eragiten dieten gabezia larri eta nabarmenak izan direla. Garbiketarak organoari, gauzatzeko moduari, edukiari edo horietatik ezartzeko irizpideei eragin die, kasu bakoitzaren ezaugarrietara kontu handiarekin egokitzen zen kontrol lana burutuz.

ERANSKINAK



9/2004 LEGEA, AZAROAREN 24KOA, EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOARI BURUZKOA (EHAA 238 zk., 2004ko abenduaren 15ekoa)

ZIOEN ADIERAZPENA

Arauk eta egintza administratiboak etenik gabe sortzen ari dira gizarte eta ekonomia bizitzako arlo guztietan, hori baita gaur egungo sistema politikoen ezaugarri nabarmenatariko bat. Horrela, botere publikoek lan ikaragarria egin beharra daukate gizarteak bere ordezkarien bitartez jartzen dituen helburuei aurre egiteko eta herritarren eskaerei erantzuteko.

Egungo sistema demokratikoen, bestalde, exijitu egiten dute jarduera publikoa zehatz-mehatz atxiki dakiela ordenamendu juridikoa osatzen duten printzipio eta arauari. Horren helburua ez da indarrean dauden legeek adierazitako borondate orokorra gauzatzea bakarrik, gehiago da: herritarren eskubide eta interes legitimoak errespetatzea eta botere publikoak albait eraginkorrenak izatea.

Horiek horrela izanik, eta zuzenbide-estatua osatzen duten printzipioei, erakundeak eta arauak ardatz dituzten horiei, erabateko eraginkortasuna emateko, beharrezkoa da Administrazioaren egintzak eta arauak ekoizteko prozedurei organo espezializatuak laguntza eta aholkularitza juridiko etengabekoa eskaintzea, bai egintzok eta arauok gertatu eta idazteko orduan, bai horiek onartzekoan.

Bereziki, indarrean dauden legeetan jasota dagoenez, ordenamenduko araurik nabarmenenetako batzuei buruz eta finkatutako egoera edo harreman juridikoak sakonago alda ditzaketen egintzei buruz amaierako azterketa juridikoa egin beharko litzateke. Ildo horretatik, horiei buruzko irizpena emateko ardura eginkizun horretarako beren beregi eratutako organo aholku-emailearen esku egongo da. Organo hori berezia izango da, hots, arauak eta egintzak gertatzeko edo ekoizteko prozeduran Administrazio aholku-eskatzaileari laguntza zuzena eskaintzen dioten zerbitzu juridikoetatik berezia. Organo kolegiatu legetxe jardungo du; bere kideek prestakuntza

tekniko egiaztatua izango dute eta aspaldiko eskarmentua ere aztertu beharreko gaietan.

Erakundeek legezkotasun objektiboa lortzeko eta herritarren eskubide legitimoak aintzat hartzeko duten beharrianari erantzutearren, lege honek Euskal Autonomia Erki-degoko kontsulta-organo kolegiatu gorena arautuko du, zeinaren helburua, bere eskumenen alorrean, kontsulta-eginkizunetan aritzea izango baita. Hasiera batean, apirilaren 13ko 187/1999 Dekretuak –Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautzen duenak– ezarritakoa hartzen du eredu gisara. Batzorde hori, dekretuaren zioen adierazpenean zehazten den moduan, behin-behineko sortu zen, asmoa, izatez, lege-mailako araua ateratzea baitzen. Horretara dator, hain zuzen ere, lege hau: kontsulta-eginkizunaren antolaketa behin betiko ezartzera, batzordearen funtzionamenduak ekarritako eskarmentutik abiatuta.

Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren jarduera –bere sorreratik gaurdaino– garrantzitsua izan da, eta polito bete ditu ordenamenduak kontsulta-organoei izendatzen dizkien eginkizunak. Era berean, organo horiek bildu behar dituzten ezau-garriak erakutsi ditu, hots: objektibotasuna, inpartzialtasuna eta kalitate teknikoa.

Eskarmentuak agerian uzten du, beraz, kontsulta-erakunde honen egokitasuna; izan ere, ondo bateratu dira, batetik, bere kideak –zeinek aldaezintasuna, egonkortasuna eta iraunkortasuna eskaintzen dizkien estatutu pertsonala baitute– Administrazio aholku-eskatzailearen zerbitzu juridikoetan formalki atxikita egotea eta, bestetik, kontsultak egiteko eta irizpenak emateko prozedura zehatz eta formala erabiltzea. Kideon eginkizunaren autonomia bermatuta dago era horretan, izan ere, Aholku Batzorde Juridikoak, duen adskripzio organikoa gorabehera, ez du ezelango atxikipen hierarkikorik, eta bere jarduna ez dago zuzendaritza edo bulego baten menpe.

Eskarmentuak berak erakutsi du, halaber, finkatu egin behar direla zenbait alor garrantzitsu, honako hauei eragiten dietenak: kontsulta-organoaren jarduera-eremuari, eremu horretatik kanpo baitzeuden Tokiko Administrazioako organo eta entitateak; kontsultaren gai diren auziei; bokal izateko baldintzei, bokalen agintaldiaren iraupenari eta haien estatutu pertsonalari, hala kargu-uzteari eta eginkizun-gabetzeari nola eskubide ekonomikoei eta bateraezintasunei. Barne-funtzionamenduko zenbait alderdi ere aldatu behar izan dira, batzordearen jardun-ahalmena areagotzeko eta bere jarduera arintzeko. Kontsultak egiteko prozeduran ere egin dira aldaketak. Horren guztiaren helburu bakarra: batzordeak bere eginkizuna betetzean izan behar duen autonomia, objektibotasuna eta prestakuntza sendotzea.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eraketa.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa bere jarduera-eremuan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen kontsulta-organo kolegiatu goren da.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, bere objektibotasun eta inpartzialtasuna bermatzeko, autonomia hierarkiko eta funtzional osoarekin beteko du kontsulta-eginkizuna.

3. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpenek ez dute beste organo baten txostenik beharko.

4. Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridiko nagusiak menpe dituen organoari atxikiko zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, baina ez da Administrazioaren egitura hierarkikoan sartuko.

2. artikulua. Jarduera-eremua.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak hainbat organo eta erakunderen jardueraren inguruan betetzen du kontsulta-eginkizuna, betiere honako hauei atxikitakoak badira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.
- b) Tokiko Administrazioari.
- c) Euskal Herriko Unibertsitateari.
- d) Goian aipatutako erakundeen menpekoak edo horiei atxikitakoak izan eta berezko nortasun juridikoa duten gainerako entitate publikoei.

2. Lurralde historikoetako foru-erakundeen jarduna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jarduera-eremutik at gelditzen da.

3. artikulua. Eskumena.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkion gaiak honako hauek dira:

- a) Lege-aurreproiektuak, horien edukia eta helburua direnak direla ere. Badira batzuk, hala ere, ogasuneko eskumena duen saileko titularrak eskatuz gero baino ez dutenak beharko batzordearen txostena; alegia:
 - Baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundien ekarpenak zehazteko metodologia ezartzen dutenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak onartzeari, kreditu gehigarriak emateari, konpromiso-kredituen baldintzak aldatzeari eta Aurrekontuak likidatzeari buruzkoak.
- b) Legegintzako dekretuei buruzko proiektuak.
- c) Legebiltzarreko legeak garatuz edo betez Eusko Jaurlaritzak ematen dituen xedapenei buruzko proiektuak.
- d) Estatuko legeak garatzeko Autonomia Erkidegoak dituen eskumenak erabiliz Eusko Jaurlaritzak ematen dituen xedapenei buruzko proiektuak.
- e) Europar Batasuneko araudiak edo zuzentarauak garatzeko edo aplikatzekoak diren Eusko Jaurlaritzaren xedapenei buruzko proiektuak.
- f) Tokiko autonomiaren defentsan erakunde interesatuek aurkeztutako gatazkak, Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.
- g) Administrazioaren egintzen eta xedapenen ofiziozko berrikuspena, herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko legeetan ezarritakoarekin bat etorritz.
- h) Berrikusteko errekurso administratibo bereziak.
- i) Administrazioaren kontratuen deuseztasuna, interpretazioa eta suntsiarazpena, herri-administrazioen kontratuei eta tokiko erregimenari buruzko legeek xedatutakoaren arabera.
- j) Administrazioaren emakiden –horien edukia eta helburua direnak direla ere– deuseztasuna, interpretazioa, aldaketa eta iraungipena, aplikazio-arauek horrela eskatzen dutenean.
- k) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jarduera-eremuan dauden administrazioen ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioak, erreklamaturako zenbatekoa 6.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean.
- l) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osaera, antolaketa, eskumena eta funtzionamenduari buruzko gaiak.
- m) Udal-mugarteak aldatzea, lurralde historiko bati baino gehiagori eragiten dionean.
- n) Lege honen aplikazio-eremuan dauden administrazioen eskumenerako gainerako gaiak, lege maila edo indarra duten arauen arabera Administrazio aholku-emai-learen parte-hartzea nahitaezkoa dutenean.

2. Batzordeak, kontsulta-eginkizunaz baliatzerakoan antzematen dituen arazoak kontuan hartuz, Administrazio aholku-eskatzaileari igorriko dizkio, on deritzon bidezko zat jotako iradokizunak eta jarduera-proposamenak.

3. Batzordeak urtero gertatu eta argitaratuko du memoria bat, non bere jardueren berri eta emandako irizpenetan jasotako doktrinaren berri emango baitu.

4. artikulua. Jarduera-irizpideak.

Administrazioaren jarduera Legearekin eta Zuzenbidearekin bat datorrela bermatzea da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ardura. Eta, ildo horretan, bere irizpenera jarritako arau eta egintza proiektuak ordenamendu juridikoari egokitzen zaizkion ala ez begiratu beharko du.

5. artikulua. Laguntza eskaini beharra.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako organoek eta 2.1 artikuluan jasotako erakundeetakoek, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eskatzen dienean, laguntza eskaini behar diote, kontsulta-eginkizuna albait eraginkorra izan dadin.

II. KAPITULUA OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA OSAERA

6. artikulua. Osaera.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa hamar kidek osatzen dute. Hala ere, unean-unean, antzemandako gaien eta beharriaren arabera, bokalen kopurua handitu edo murriztu dezake antolaketa eta jarduera araudiak.

2. Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridiko nagusietako burua eta zerbitzu horiei esleitutako arau-kontrolerako eskumena duen organoko burua izango dira, hurrenez hurren, batzordeko lehendakari eta lehendakariorde.

3. Bokal izateko, Zuzenbidean lizentziatua edo doktorea izateaz gain, beharrezkoa da batzordeak landu behar dituen gaietan gaitasun profesional frogatua izatea; gainera, karrerako funtzionario izan beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako goi-mailako kidegoetan hamar urtez aritu izanak, hain zuzen ere. Euskal Herriko Unibertsitatean zerbitzuak betetzen diharduten unibertsitateko irakasleen kidegoetakoak ere izan daitezke, bertan gutxienez bost urtean jardun badute, betiere.

4. Batzordeak idazkaria izango du, zeina lehendakariak izendatuko baitu, izendapen askearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan diharduten goi-kidegoetako funtzionarioen artean. Zuzenbidean lizentziatua edo doktorea izan behar du, eta edozein herri-administrazioetako kidego horietan gutxienez hamar urtean aritutakoa.

7. artikulua. Bokalen estatutu pertsonala.

1. Bokalak aldaezinak dira.

2. Bokalak, Jaurlaritzaren Kontseiluan onartutako dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak izendatzen ditu, zerbitzu juridiko nagusiak atxikita dituen sailaren ardura duen kontseilukidearen proposamen arrazoitua entzun eta gero. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da izendapen-dekretua.

3. Sei urtekoa izango da bokalen agintaldia, lanpostuaz jabetzen diren egunetik kontatzen hasita. Izendapena argitaratu ondoren jabetuko dira lanpostuaz, batzordeko lehendakariaren eta idazkariaren aurrean. Iraupen bereko beste agintaldi batzuetarako izenda daitezke bokalak.

4. Bokalen agintaldia amaitu baino lehen sor daitezzen hutsuneak beste pertsona egoki batzuk izendatuz beteko dira. Izendapen horrekin beste agintaldi bat hasiko da, eta artikulua honetan aurreikusitako modu eta ondorioekin formalizatu eta burutuko da.

5. Bokal izendatzeak jatorrizko kidegoan zerbitzu berezietako egoera administrati-boan deklaratzeko dakar.

6. Bokalek ordainsari bakarria izango dute eta kontzeptu bategatik bakarrik ordainduko zaie. Ordainsaria gauzatzea eta eguneratzea, baita zerbitzuaren edo egoitza-aldaketaren ondorioz izan ditzaten gastuak ordaintzea ere, Administrazioako goi-kargudunei dagozkien baldintza berberetan egingo dira.

7. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokalak abenduaren 20ko 32/1983 Legean –Euskal Autonomia Erkidegoan Herri Jardunean Aritzeagatiko Bateriaezintasunei buruzkoan– ezarritako bateraezintasun-erregimenari atxikiko zaizkio.

8. artikulua. Bokalen kargu-uztea, eginkizun-gabetzea eta ordezkotza.

1. Lege honetan ezarritako arrazoiengatik eta finkatutako baldintzetan baino ez dute utziko euren kargua bokalek.

2. Kargua uzteko arrazoiak:

- a) Heriotza.
- b) Agintaldiaren amaiera.
- c) Idatziz egindako ukoa.
- d) Funtzionario izateari uztea.
- e) Batzordeko osoko bilkuraren erabateko gehiengoak antzemandako bateraezintasuna.
- f) 10. artikuluko a), b), c) eta e) idatz-zatietan ezarritako eginkizunak eta 11. artikuluan adierazitako abstentzio eta isiltasun betebeharren ez-betetze larria. Egoera hori batzordearen osoko bilkuraren erabateko gehiengoak antzeman behar du interesatuari entzun ondoren.
- g) Epai irmo batez deklaraturako gaitasungabetzea.
- h) Epai irmo batez delituagatik kondenatua izatea.

3. Kargu-uztea gertatuko da horretarako arrazoia gauzatzen denean edo eragin duen egintzak ondorioak izaten dituenean, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak emandako dekretuaren bidez formalizatuko da. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, kargua uzteko arrazoiak eta eguna adierazita.

4. 2 b) idatz-zatian ezarritakoaren ondorioz euren kargua uzten duten bokalek eginkizunak betetzen jarraituko dute, harik eta bokal berriak euren karguaz jabetu arte.

5. Batzordearen osoko bilkuraren erabateko gehiengoak erabaki dezake bokalak eginkizun-gabetzea zuhurtasunez, harik eta kargua uzteko izan den arrazoiaz ebatzi arte. Bai eginkizun-gabetzeko erabakia, bai eginkizun-gabetzea kentzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Bokalen eginkizun-gabetzea besterik gabe egingo da, hau da, Osoko Bilkuraren erabakirik gabe, baldin eta askatasunaz gabetzeko ebazpen judizial irmo bat badago. Eginkizun-gabetzea deklaratzeko eta kentzea batzordeko lehendakariaren ebazpenez egingo da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Askatasun-gabetzeak dirauen bitartean iraungo du eginkizun-gabetzeak.

6. Bokalen baten luzaroko absentzia gertatuz gero, aurreko paragrafoan adierazitako eginkizun-gabetzearen ondorioz edo lege ezarritako arrazoiren baten ondorioz, eginkizun berberak beteko dituen ordezkotzat bat izendatuko da bokalaren absentziak dirauen bitartean aritzeko. Ordezkoaren izendapena eta kargu-uztea 7.2 eta 8.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera formalizatuko dira. Ordezkoaren denbora bokal ordezkatuaren agintaldiari egotziko zaio.

9. artikulua. Lehendakaritza eta lehendakariordetza.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakariari honako ahalmen hauek dagozkio:

- a) Batzordearen ordezkari izatea.
- b) Batzordearen jardueren egitaraua zehaztea, Osoko Bilkura entzun eta gero.
- c) Bilkuretarako deia egitea eta bilkuretan buru izatea, gai-zerrenda jartzea eta, urgentziazko arrazoiek justifikatzen badute, gai-zerrendan sartu gabeko aztergaiak proposatzea.
- d) Gai bakoitzerako txostengileak aukeratzea.
- e) Batzordearen jardun egokirako behar diren azterlan teknikoak eta juridikoak zehaztea, eta horiek burutzeko ardura izango duten batzordekideak aukeratzea.
- f) Lege honetako 5, 23 eta 24. artikuluetan aipatzen diren errekerimenduak eta eskabideak administrazioko organoei igortzea.
- g) Batzordearen irizpenak eta erabakiak sinatzea.
- h) Lege honek edo indarrean dauden arauak esleitutako gainerakoak.

2. Lehendakariak, edo horren ordezkotzat, honako betebeharrak izango ditu bilkuretan:

- a) Bilkurei hasiera eta amaiera ematea.
- b) Eztabaidak gidatu eta antolatzea.
- c) Berdinketak bere botoarekin ebaztea.

3. 1. paragrafoan jasotako ahalmenak, a) idatz-zatian aurreikusitakoa izan ezik, lehendakariordearen esku utz daitezke.

4. Lehendakariordeari honako ahalmen hauek dagozkie:

- a) Antolaketa eta jarduera araudian zehaztutako batzorde-atalen buru izatea.
- b) Lehendakaria ordezkatzea, kargua hutsik uzten duenean, edo absente edo gaxorik dagoenean.
- c) Lehendakariak eskuordetu diezazkion eginkizunak betetzea.

5. Lehendakaritzako edo lehendakariordetzako titularren baten abstentzioa gertatuz gero, euren artean egingo dituzte ordezkapenak.

6. Gai jakin bat aztertzerakoan biek ala biek abstenitu behar badute, batzordean denborarik gehien daraman bokalak bereganatuko du gaia aztertzen duen osoko bilkurako edo batzorde-ataleko lehendakaritza. Berdinketa gertatuz gero, funtzionario modura urterik gehien daramatzana izango da lehendakari; eta, hala ere, berdinketak irauten badu, zaharrena.

7. Lehendakariak eta lehendakariordeak boto partikularrak eman ditzakete, bokalei aitortutako baldintza bereberekin.

10. artikulua. Bokalak.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokalei honako hauek dagozkie:

- a) Bilkuretara joan eta eztabaidetan parte hartzea.
- b) Gaien edo azterlanen irizpen-proposamenak idatzi eta batzordeari aurkeztea, baldin eta txostengile izateko aukeratu badituzte.
- c) Batzordean aurkeztutako irizpen-proposamenak onartu, aldatu edo ezezteko proposatzea.
- d) Lege honetako 23, 24 eta 28. artikuluetan aurreikusitako ekimenaz baliatzea.
- e) Botoa eman eta zer bozkatu duten adieraztea. Halaber, boto partikularra ematea, gehiengoaren iritziarekin bat etorri edo ez.
- f) Organo kolegiatu bateko kide izateari dagozkion beste eginkizunak.

11. artikulua. Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta isiltasuna.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kideek objektibotasunez eta inpartzialtasunez betetzen dute kontsulta-eginkizuna. Ez dute izango atxikipen hierarkikorik eta ez dute ezelango instrukziorik hartuko Administrazio aholku-eskatzailetik.

2. Administrazio-prozedura erkideari buruzko legeetan ezarritako abstenitzeko eta errefusatzeko arrazoiren baten eragina izan dezaten gaietan inhibitu egin beharko

dute. Gairen bat gertatzen edo taiutzen modu zuzenean parte hartu badute, orduan ere abstenitu egin beharko dute gai horiei buruzko kontsultetan.

3. Batzordeko edozein kidek aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuren baten berri izanez gero, batzordeari jakinarazi beharko dio, eta batzordeak, kasu bakoitzaren nondik-norakoak aintzat hartuz, ebatzi beharko du eragindako bokalak gaia aztertzeari eta irizpena bozkatzeari ekin behar dion ala ez.

Auzia aurkezten den bilkuran hartuko du batzordeak dagokion erabakia, aldez aurreko txostenaren beharrik gabe.

Abstentzio-arrazoi baten eraginpean dauden kideek ezingo dute parterik hartu arrazoi horretaz batzordeak egin dezan azterketan, eztabaidan eta botazioan, nahiz eta batzordeak har ditzan erabakiak lotesleak izan beraientzat.

4. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kideek eta idazkariak sekretupean izan behar dituzte proposamenak, hartutako erabakiak eta kontsultarako diren gaiak, haririk eta eskumena duen organoak gaiok erabaki arte. Beti izango dituzte sekretupean batzordeak irizpeni eta emandako botoei buruz izandako eztabaidak.

12. artikulua. Idazkaritza.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko idazkariari honako hauek dagozkio:
 - a) Batzordearen batzarretara joatea, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe.
 - b) Batzordearen bilkuretako gai-zerrenda eta aztertu beharreko gaiiei buruzko agiriak gertatu eta igortzea.
 - c) Lehendakaritzaren aginduz batzordearen bilkuretarako deia egitea.
 - d) Bilkuretarako aktak idatzi eta baimentzea.
 - e) Lehendakaritzaren aginduz eta beraren oniritziarekin, akten, irizpenen eta erabakien ziurtagiriak ematea.
 - f) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari zuzendutako kontsulta, espediente eta gainerako agirien sarrera eta irteera erregistroaz arduratzea.
 - g) Organo kolegiatu bateko idazkari bati dagozkion eginkizunak eta Osoko Bilkurak eta atalek haren ardurapean utzitakoak.
2. Idazkariari, halaber, honako eginkizunak dagozkio:
 - a) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jardueren eta doktrinaren laburpenen urteko memoria-proiektua gertatzea. Memoria osoko bilkuran onartuko du batzordeak.
 - b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kabinete teknikoa zuzendu eta koordinatzea, lehendakaritzaren jarraibideak betez.
3. Antolaketa eta jarduera araudian arautuko da idazkariaren ordezkotza, aurreko paragrafoetan adierazitako eginkizunetan jarduteari dagokionez.

13. artikulua. Kabinete tekniko.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak kabinete tekniko bat izango du bere jardunean, zeinak lanpostuen zerrendan zehaztutako pertsonal tekniko eta administratiboa izango baitu.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere jardun egokirako behar dituen langileak eta baliabide materialak eskura izatea bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.

14. artikulua. Ekonomia, ondare eta langileen araubidea.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, bere langileen arloari, kontratazioari, baliabide material eta informatikoen horniketari eta ekonomia eta aurrekontu kudeaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailek aldianaldian bere gain izan ditzaten eskumen berberak izango ditu, eta eskumen horiek bere organoen bidez baliatuko ditu lege honetan eta antolaketa eta jarduera araudian ezarritakoarekin bat etorritz.

2. ATALA FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua. Osoko bilkura eta atalak.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak osoko bilkuren edo atalen bidez gauzatu du bere jarduna.

2. Lehendakariak, lehendakariordeak eta bokalek osatzen dute Osoko Bilkura. Eta 3.1 a), b), c), d), e), f) eta l) idatz-zatietan adierazitako gaiez, xedapenen ofiziozko berrikuspenaz eta lege honek zein bestek beren beregi esleitutakoez arduratu da.

3. Antolaketa eta jarduera araudian zehaztuko dira atalen kopurua, atalen osaera –inoiz ere ez hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea duten hiru kide baino gutxiagokoa izango ez dena–, lehendakaritzaren eginkizuna, bokalak atxikitzeko modua eta atalen eskumeneko gaiak.

16. artikulua. Bilkuretarako deia.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa behar adina aldiz bilduko da, egiten zaizkion kontsuluten, horien izaeraren eta lehendakaritzak –Osoko Bilkura entzun ondoren– erabakitako egitarauaren arabera.

2. Bilkuretarako deia, gai-zerrenda eta aztergaien agiriak batzordeko edo dagokion ataleko kide guztiei bidaliko zaizkie, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago. Urgentziazko kontsultetarako deia, ordea, al bait azkarren egin behar da, irizpena emateko jarritako epea aintzat hartuz.

17. artikulua. Bilkurak egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkuraren eta ataletako batzarrak baliotasunez egiteko eta erabakiak hartzeko, beharrezkoa da lehendakaria, bokalen erdiak eta idazkaria bertan izatea.

2. Edozer dela-eta bokalek lehendakaria edo idazkaria ordezkatu behar badituzte, bilkurak egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma honako hau izango da:

- Osoko Bilkuran lau kide, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.
- Ataletan hiru kide, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.

3. Atalek, euren kideren bat inhibititu egin delako, ezin badute lortu aurreko paragrafoan eskatutako quoruma gai jakin bat eztabaidatu eta erabakitzeko orduan, Osoko Bilkurak emango du gai horri buruzko irizpena.

4. Osoko bilkuraren eta ataletako erabakiak, legez ezarritako kasuetan izan ezik, egon daudenen artean hartuko dira, botoen gehiengoaz. Berdinketarik gertatuz gero, bilkurako buruaren botoaz ebaziko da.

5. Kide bakoitzak lehendakaritzari adierazi beharko dio zer bozkatu duen, eta botoa bozketaren gai izan den irizpen edo erabakiaren aldekoa edo aurkakoa baino ezin da izan. Bozketan ezin da abstenitu. Irizpen eta erabakiei ere ezin zaie erreserbarik, baldintzarik edo ñabardurarik jarri, ez bada boto partikularren bidez aurkeztu dena.

18. artikulua. Boto partikularrak.

1. Gehiengoak hartutako erabakiari Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kideren batek boto partikularra ematen badio, beharrezkoa izango da bilkura amaitu baino lehen iragartzea.

2. Boto partikularrak irizpenarekin bat etor daitezke edo aurkakoak izan daitezke, eta, irizpena behin betiko ematen denetik kontaktzen hasita, gehienez bost eguneko epean bidali beharko dira batzordeko idazkaritzara, idatziz eta irizpenari atxikita bidali ere.

3. Boto partikularra iragartzen dutenek beste kideren batek emandakoarekin bat egin dezakete, baina orduan uko egin beharko diote boto propioa emateari.

19. artikulua. Aktak.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkuraren eta ataletako erabakiak aktan jasoko dira, non laburbilduta jaso beharko baita erabakiok zein organok hartu dituen, bilkuraren eguna, hasierako eta amaierako ordua, parte hartu dutenen eta parte hartu ez dutenen izenak, hartutako erabakiak, iragarritako boto partikularrak eta beste bilera baterako utzitako gaiak.
2. Aktak bilkuraren amaieran edo hurrengo bilkuran onartuko dira, eta idazkariak eta lehendakariak izenpetuko dituzte.

III. KAPITULUA PROZEDURA

1. ATALA KONTSULTA

20. artikulua. Kontsulta-eskaera. Modua eta garaia.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bere jarduera-eremuan dauden administrazioetatik honako hauek egingo dizkiote kontsultak:
 - a) Eusko Jaurlaritzako sailburuek.
 - b) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak.
 - c) Tokiko korporazioetako lehendakariak.
 - d) 2.1 d) artikuluan aipatzen diren entitateen ordezkari den organoko titularrak.
2. Kontsultetarako baldintzak:
 - a) Aholkua eskatzen duen agintaritzaren erabaki baten bidez egingo dira kontsultak, eta agintaritza-egintzek formaren aldetik izan ohi dituzten baldintzak bete behar ditu erabaki horrek.
 - b) Kontsultarako erabili den lege-agindua adierazi behar da erabakian, eta, laburbada ere, hori aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak azaldu behar dira.
 - c) Administrazio-espeditentea osatzen duten agiri guztien kopia konpultsatua eta agirion zerrenda zenbakitua erantsi behar zaizkio kontsultari.
3. Araua onartu edo ebazpena edota erabakia hartu baino justu lehenago egingo dira kontsultak. Interbentzio-kontrola, berriz, berorri dagokion arautegi bereziaren arabera burutuko da.

21. artikulua. Espedienteak itzultzea.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakaritzak ofizios itzuliko ditu erretiratutako kontsulten espedienteak, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak bete-

tzen ez dituztenak eta 23.2 artikuluan aurreikusitakoa aplika dakiekeenak. Bide batez, laburki azalduko ditu itzultzearen arrazoiak.

2. Itzultzen direnetan, irizpena emateko epea hasi gabekotzat joko da.

2. ATALA IRIZPENA

22. artikulua. Txostenak.

1. Txostengileak izendatzerakoan, batzordeak ezarritako banaketa-irizpide berak hartuko ditu aintzat batzordeko lehendakariak, lan-karga kideen artean orekaz esleidi dadin zainduz.

2. Txostengileek lege honetako 23 eta 24. artikuluetan aipatzen den beharrizana –justifikatzekoa edo osatzekoa– antzematen dute, eta lehendakaritzari jakinarazten diote beren proposamena, dagozkion errekerimenduak eta eskabideak egin ditzan.

23. artikulua. Izapideak frogatzea.

1. Kontsulta jaso ondorengo hamabost egunen barruan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakariak, irizpena eman behar duten txostengileek edo Osoko Bilkurako zein ataleko gehiengoak proposamen arrazoitua eginda, aholkua eskatu duen organo edo entitateari errekeritu diezaioke bidalitako espedientean dokumentatu ez diren izapideak burutu egin direla justifika dezala horretarako ezarritako epean.

2. Ez frogatzearena izapide horiek ez egitearen ondorioa balitz, eta izapideok nahitaezkoak balira, itzuli egingo litzateke espedientea eta ezingo litzateke kontsulta gehiagorik egin, harik eta zuzendu arte.

24. artikulua. Informazioa osatzea.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakariak, txostengileek edo irizpena eman behar duen Osoko Bilkurako edo ataleko gehiengoak proposamen arrazoitua egin eta gero, kontsulta-gaiari buruzko hainbat alderdiren berri emateko agerraldi informatiboan azaltzeko eska diezaieke honako hauei: txostenaren aztergai den proiektua, egintza edo xedapena gertatzen parte hartu duen organo edo entitate aholku-eskatzailearen agintari eta funtzionarioei, edo gertatze horretan lankidetzan aritutako beste organo edo entitate batzuetako agintari eta funtzionarioei, edo proiektu, egintza edo xedapen horiek eragindako organo edo entitateetako agintari eta funtzionarioei. Azaldu beharrekoak laburki adierazi behar dira eskabide-idazkian; horiekin ba-

tera agerraldiaren tokia eta eguna ere adieraziko dira. Agerraldi-eskeak aldi baterako eteten du irizpena emateko epea, harik eta gauzatu arte.

Antolaketa eta jarduera araudian zehaztuko da agerraldiak egiteko modua.

2. Lehendakariak, txostengileek edo irizpena eman behar duen Osoko Bilkurako edo ataleko gehiengoak proposamen arrazoitua eginda, espedientea –bidezkotzat jotako aurrekari, txosten eta frogak aurkeztuz– osatu dezala eska diezaioke organo edo entitate aholku-eskatzaileari. Osatze-eskabideak etenda uzten du irizpena emateko epea, eskatutako informazioa batzordeko erregistroan sartu arte.

3. Dagokion irizpena onartu aurretik edonoiz osatu daiteke bidalitako informazioa, kontsulta-egileak hala eskatuta. Informazio gehiago bidaltzeak aldi baterako eteten du irizpena emateko epea, harik eta lehendakariak, dokumentuen kopurua, konplexutasuna eta eraginkortasuna aintzat hartuz, hilabetetik gorakoa izango ez den epea ezarri arte.

25. artikulua. Irizpenak.

1. Irizpenetan adierazten da Osoko Bilkurak edo atal batek emandakoak diren, noizko bilkuran onartu diren eta parte-hartzaileak nortzuk izan diren. Adierazten da, halaber, aho batez, gehiengoz edo lehendakaritzaren boto ebazleaz onartu diren.

2. Organo edo entitate aholku-eskatzaileari bidaltzen zaizkio irizpenak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakariak eta idazkariak izenpetu eta gero.

3. Emandako boto partikularrak erantsiko zaizkio irizpenari, eta boto-emaielen eta horiekin bat egiten dutenen izenak adieraziko dira.

26. artikulua. Irizpenak emateko epea.

1. Batzordearen irizpenak emateko epea horren audientzia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa da, eta, adierazita ez badago, bi hilabetekoa.

2. Urgentziazko kontsulta bada, hamabost egunekoa da irizpena emateko gehiengo epea.

3. Organo aholku-eskatzaileari dagokio kontsulta bat urgentziazkotzat kalifikatzea, horretarako dituen arrazoiak adieraziz. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko lehendakaritzak behar diren neurriak hartuko ditu urgentziazko kontsultei adierazitako epearen barruan erantzuteko; hala ere, horretarako funtsik ez dutenak arbuia egin ditzake.

4. Aurreko paragrafoetan adierazitako epeak espediente osoa Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko erregistroan sartzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuko dira.

5. 23 eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan aldi baterako eteten da epeak igarotzea. Epe-etetea errekerimendua edo osatze-eskabidea jasotzailearen erregistroan sartzen denetik hasten da kontatzen, eta horiek egoki bete arte edo egoki betetzeko emandako epea igaro arte irauten du.

6. 5. artikuluan aipatutako eskabideek ez dute etengo epe horiek igarotzea.

27. artikulua. Irizpenen eta erabakien izaera.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak ez daude beste erakunde edo organo batek emandako txosten edo irizpenen menpe. Batzordearen irizpena jasoko duten administrazio-egintzak, hala ere, kontrol ekonomiko-fiskalaren menpe daude, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean ezarritako moduan, hain zuzen ere.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak eta erabakiak ez dira lotesleak, ez bada lege honetan edo besteren batean kontrakoa xedatzen dela.

28. artikulua. Administrazioaren jarduerarako iradokizunak eta proposamenak.

3.2 artikuluan jasotako iradokizunak eta proposamenak batzordeko edozein kideren ekimenez hartuko dira kontuan, eta erabaki baten bidez formalizatuko dira. Erabaki hori irizpenak gertatzeko, onartzeko eta bidaltzeko erabiltzen diren arau berberekin gertatu, onartu eta bidaliko zaie jasotzaileei.

3. ATALA KONTSULTA BERRIA ETA EBAZPENA

29. artikulua. Kontsulta berria.

Irizpena eman eta gero, irizpenaren aztergaiari garrantzizko aldaketak egiten badira eta, ondorioz, batzordeak egindako iradokizun edo proposamenekin bat ez datozen edo horiek gainditzen dituzten eduki berriak jasotzen badira, aldaketa horiei buruzko kontsulta berria egin beharra dago.

30. artikulua. Emandako ebazpena edo xedapena, jakinarazpena eta omisioak.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak informatutako xedapenek eta egintzek argi erakutsi behar dute euren azalpen-zatian ea irizpenarekin bat etorritik onartu ala erabaki diren, edo irizpenarekin bat ez datozen.

2. Batzordearen irizpena duten proiektu edo xedapen edo ebazpenei dagokienez, horietako proiektu bat onartzen denean edo xedapen edo ebazpen bat ematen denean, organo edo entitate aholku-eskatzaileak batzordeko idazkariari jakinaraziko dio horren berri, antolaketa eta jarduera araudian ezarritako epean eta moduan.

3. Prozedura baten izapideak egiterakoan beharrezkoa den Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren audientzia egiten ez bada, batzordeko lehendakariak kontsulta egitea dagokion agintariari jakinaraziko dio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Ondare-erantzukizunari buruzko gaiak baztertzea.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aztertzeke aurkezten diren kontsuluten kopurua aintzat hartuz, ahalmena ematen zaio Jaurlaritzari, organo aholku-emaile horrek ondare-erantzukizunari buruzko gaien irizpena emateari begira, auzietako gutxieneko zenbatekoa eguneratzeko.

Bigarrena. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osaerari eta atxikipen organikoari buruzko aldaketak eta egokitzapenak.

Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako egitura organikoa aldatzen bada eta horrek Araubide Juridikoaren idazkari nagusiari eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendariari dagozkien organoen izena edo eginkizunak aldatzea badakar, aldaketa hori ezartzen duen dekretuan zehaztu beharko da zeintzuk izango diren oraingo organoen parekoak.

Horiek horrela, eginkizun horietan jarduteko beharrezkoa izango da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren kontsulta-eginkizunaren gai diren alorretan gaitasun profesional aitortua duen jurista izatea, eta eskarmentu frogatua izatea zeregin publikoetan edo unibertsitateko irakasle edo ikertzaile jardunean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakaritza eta lehendakariordetza.

Lege honek indarra hartzerakoan Araubide Juridikoaren idazkari nagusia eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria izango dira, hurrenez hurren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakari eta lehendakariorde.

Bigarrena. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osaera eraberritzea:

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren erdia eraberrituko da aldi bakoitzean, era honetan:

- a) Lege honek indarra hartzen duenetik kontaktzen hasita gehienez ere hiru hilabete epean eraberrituko da batzordearen erdia. Orduan lau bokal izendatuko dira, eta 187/1999 Dekretuaren bidez izendatutakoaren artean batzordean antzinatean gutxien duten lau kideak ordezkaturako dituzte.
- b) Batzordearen beste erdia lege honek indarra hartu eta hiru urte igaro ondoren eraberrituko da.

2. Aurreko a) idatz-zatian xedatutakoa aplikatuz batzordean jarrai dezaten bokalei lege honetan araututakoa aplikatuko zaie. Bi aukera izango dituzte: jarduneko zerbitzuan jarraitzea edo zerbitzu berezietara pasatzea.

Hala ere, agintaldia amaitu baino lehen bokalen batek bere kargua utziko balu, beste bokal bat izendatuko litzateke haren ordezkari, lege honetan ezarritakoa betez, eta aipatu den hiru urteko epea osatzeko falta den denborarako.

3. 187/1999 Dekretuarekin bat etorritik izendatutako bokalen kargu-uztea, dekretuan xedatutakoaren arabera deklaratu eta formalizatuko da.

Hirugarrena. Bokalen ordainsariak.

Bokalen ordainsariak 59.500 eurokoa izango da 2004an.

Laugarrena. Idazkaria.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko idazkariak, 187/1999 Dekretuaren arabera izendatutakoak, dekretu horrekin bat etorritik jarraituko du betetzen bere eginkizuna, harik eta, lege honetan aurreikusitakoari jarraiki, bere ordezkaria karguaz jabetu arte.

Bosgarrena. Ebazteke dauden kontsultak.

Lege honek indarra hartzerakoan izapideetan egon daitezkeen kontsultei, kontsultak egin ziren garaietan kontsulta-eginkizuna arautzen zuten xedapenetan aurreikusitakoaren arabera emango zaie irizpena.

Seigarrena. Aurrekontuaren habilitazio eta aldaketak.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailari baimena ematen zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-erregimena arautzen duen legediarekin bat etorritik, aurrekon-

tuan bidezko habilitazio eta aldaketak egin ditzan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jardunerako beharrezkoak diren kredituez hornitzeko, harik eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da apirilaren 13ko 187/1999 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautu zuena, bai eta lege honen aurkakoak izan daitezzen gainerako xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea aldatzea:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 23.1 artikuluko bigarren letrorik honelako erredakzioa izango du aurrerantzean:

Kontrol ekonomikoa eta fiskala eduki ekonomikoko egintzak, egitateak eta eragiketak gauzatu baino justu lehenago gauzatu da. Ondorio horretarako, Administrazio Orokorreko organoek edo Administrazioako erakunde autonomoek espediente osoak bidali beharko dituzte Kontrol Ekonomikoko Bulegora, araz ezarritako moduan.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.1 artikulua honelako erredakzioa izango du aurrerantzean:

1. Nahitaezkoa den kontrol-txostena bidalita burutuko da kontrola –ekonomikoa eta arauena–, eta kontrolaren gai den araua edo xedapena organo eskudunak onartu edo, hala behar denean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu baino justu lehenago gauzatu da. Azken kasu honetan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi beharko zaizkio organo aholku-emaile horren irizpenak jasotako iradokizun eta proposamenen ondorioz lege-aurreproiektuetan eta arau-proiektuetan egin daitezzen aldaketak, onartu baino lehen.

Bigarrena. Araudi organikoa.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, lege honek indarra hartzen duenetik aurrera sei hilabeteko epean, berari dagokion antolaketa eta jarduera araudia gertatuko du eta Jaurlaritzari aurkeztuko dio, onar dezan.

Hirugarrena. Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean lege hau.

167/2006 DEKRETUA, IRAILAREN 12KOA, EUSKADIKO A HOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA

(EHAA 181 zk., 2006ko irailaren 21ekoa)

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, batzorde horrek bere antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamendua prestatuko du eta Jaurlaritzari aurkeztuko dio, honek onar dezan.

Gorago aipatutakoa agindua betaz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2006ko uztailaren 19an egindako batzarrean, erregelamendu-proposamena onartu du, zeina Jaurlaritzari aurkezten zaion, onar dezan.

Hortaz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ekimenaz eta Jaurlaritzako lehen-dakariordeak proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2006ko irailaren 12an egindako bileran, eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzea, zeinaren testua dekretu honen eranskinetan jasotzen baita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 13.2 artikuluan aurreikusitako bermea beteaz, eta Lehendakariak otsailaren 28an emandako 2/2006 Dekretuaren –Jaurlaritzako Lehendakariordetzaren egitura organi-

koa onartzen duenaren— xedapen gehigarrietako laugarrenean xedatutakoarekin bat etorriaz, dekretu honek onartzen duen antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamenduak xedatutakoa osatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Zerbitzu Zuzendaritzak Batzordeari beharrezko zaizkion administrazio-euskarria eta funtzioak burutzen jarraituko du, zehazki, honako arlo hauei dagokienez: pertsonala, kontratazioa, baliabide informatiko eta materialez hornitzea eta ekonomia-aurrekontuen kudeaketa; hartarako, Batzordeko lehendakariaren mendekotasun funtzionalean jardunez.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 12an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

EUSKADIKO A HOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendua eta funtzionamendua –azaroaren 24ko 9/2004 Legean aurreikusiak– garatzen dira araudi honen bitartez.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Erregelamendu honen eta 9/2004 Legaren bitartez artezten da Euskadiko Aholku batzorde Juridikoa.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak funtzionamendurako barne-arauak onar ditzake.

3. artikulua. Konfigurazioa.

1. Bere jarduera-eremuaren barruan diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei dagokienez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa da kide anitzeko organo aholku-emaile gorena, betiere 9/2004 Legearekin bat etorriaz.

2. Okjektivotasuna eta inpartzialitatea bermatzearen, autonomia hierarkiko eta funtzional osoz burutzen du funtzio aholku-emailea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak.

4. artikulua. Jarduera-printzipioak.

Administrazio-jarduna legeari eta zuzenbideari egokitua izateaz arduratzen da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa; hartarako, irizpena emateko berari aurkezten zaizkion arau- eta egintza-proiektuak ordenamendu juridikoari egokituak diren ala ez aztertuko du.

5. artikulua. Atxikipena.

1. Zerbitzu juridiko zentralak menpe dituen organoari atxikiko zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, betiere Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan izan barik.

2. Egoki funtziona dezan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea bermatuko du Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazioak.

3. Pertsonalaren, kontratazioaren, baliabide informatiko eta materialez hornitzearen eta ekonomia eta aurrekontuak kudeatzearen arloei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailek eskumen batzuk dituzte; bada, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak horrelakoxe eskumenak izango ditu eta bere organo propioen bitartez baliatuko ditu, erregelamendu honetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

6. artikulua. Ikurra.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere ikurra izango du, osoko bilkurak onar-tutako diseinuarekin bat datorena.

7. artikulua. Memoria eta doktrina.

1. Aurreko urtean burututako jarduera aholku-emaileari dagokionez Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkurak memoria bat onartu beharko du, urte bakoitzeko lehen hiruhilabetekoaren barruan onartu ere. Emandako erabaki eta iriz-penetan jasotako doktrinaren laburpen bat jaso beharko du memoriak.

2. Bere erabaki eta irizpenetan jasotako doktrina argitara emateko, edozein bitarte-koz balia daiteke Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.

3. Erabakien, irizpenen eta doktrinaren zabalkundea egiteko, datu pertsonalak ba-besteari dagokionez indarrean dagoen araudia errespetatu beharko da.

II. KAPITULUA ANTOLAMENDUA

1. SEKZIOA ORGANOAK

8. artikulua. Osaera.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa honako organoek osatzen dute:

- a) Kide bakarrekoa:
 - Lehendakaria.
 - Lehendakariordea.
 - Idazkaria.

- b) Kide anitzekoak:
 - Osoko Bilkura.
 - Lehenengo eta bigarren sekzioak.

9. artikulua. Lehendakaria.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aginte gorena denez, 9/2004 Legeko artikulua 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako funtzioez gain, honako hauek ere baditu:

- a) Ekintza korporatibo eta ofizialetan buru izatea.
- b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren erabakiak betearaztea.
- c) Beharrezkoa bada, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jardueri buruzko informazioa jendearenganaztea.
- d) Idazkaria izendatzea eta kargutik kentzea eta ordezkoa izendatzea kasu haue-
tan: postua hutsik izatea, edo kanpoan izatea edo gaixorik izatea.
- e) Pertsonalaren arloari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak Administrazio-ko sailei zenbait eskumen esleitzen dizkie; bada, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak horrelakoxe eskumenak izango ditu, baina erregelamendu honek beste organo bati berariaz esleitutakoak ez dira sartuko aipatutakootan.
- f) Euskadiko Aholku Batzordeko Juridikoaren kontratazio-organuari doazkion ahalmenak baliatzea, eta bai kontratazioaren arloari dagokionez indarrean den araudiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko sailletako titularrei esleitzen dizkieten bezalakoak ere.
- g) Aurrekontuen kudeaketari dagokionez indarrean den araudiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko sailletako titularrei zenbait funtzio esleitzen dizkie; bada, horrelakoxe funtzioak baliatzea.
- h) Funtzio aholku-emailea hobekien burutzeko, era guztietako pertsonarekin edo erakunde pribatu zein publikorekin hitzarmenak egitea proposatzea.
- i) Araudi honek edo 9/2004 Legeak beste organoren bati esleitu ez dion beste edozein kudeaketa-ahalmen.

2. d), e) eta f) idatz-zatietan aipatutako funtzioei dagokienez lehendakariak hartutako erabakiek administrazio-bidea amaitzen dute.

10. artikulua. Lehendakariordea.

1. Lehendakariak eskuordetzen dizkion funtzioak baliatuko ditu lehendakariordeak; eta lehendakaria kanpoan bada edo gaixorik bada edo kargua hutsik bada, lehendakariordeak egingen ditu haren ordezkioak.

2. Sekzio-ko lehendakari denez ondoko funtzioak dagozkio lehendakariordeari:
- a) Bilkuretarako deialdiak egitea.

- b) Gai-zerrenda finkatzea, eta, premiazko arrazoirik bada, gai-zerrendan ez diren gaiak sartzeko proposamena egitea.
- c) Eztatidak zuzendu eta ordenatzea.
- d) Berdinketa-kasuetan, bere botoarekin ebaztea.

11. artikulua. Idazkaria.

1. 9/2004 Legeko 12. artikulua zehaztutako funtzioez gain, honako hauek ere badagozkio idazkariari:

- a) Lehendakariaren jarraibideen barruan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Kabinete Teknikoari atxikitako langileen burutza baliatzea.
- b) Pertsonalaren, kontratazioaren, baliabide informatiko eta materialez hornitzearen eta ekonomia eta aurrekontuak kudeatzearen arloei dagokienez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari doazkin eskumenen barruan proposamenak egitea; Batzordeak hobekien funtziona dezan, beharrezko bitartekoz hornitzeko, betiere. Eta proposamenok izapidetzeko jarduketaz arduratzea.
- c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren bulegoen barne-araudia zaindu eta artatzea.
- d) Erregistro orokorra eta dokumentazio- artxibategi- eta liburutegi-zerbitzua antolatuta, zuzendu eta kudeatzea.
- e) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren zerbitzuei eta lan egiteko sistema eta metodoei dagokienez, barne-antolaketa, arrazionalizazio eta informatizazioaren gaineko proposamenak prestatu eta antolatzea.
- f) Hala eskatuz gero, erabaki-proposamenak landu eta prestatzea.
- g) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarenak izanik, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu behar dituen gaiak izapidetzea; eta, halaber, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein aldizkari ofizialetan argitaratu behar diren administrazio-xedapen eta -egintzak.
- h) Administrazio-kudeaketako arazoei dagokienez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aholku juridikoak ematea.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari Kabinete Juridikoak egiten dion laguntza-funtzioa zuzendu eta koordinatzea, betiere lehendakariaren jarraibideekin bat etorriaz. Letratuek eta pertsonal tekniko eta administratiboek —lanpostuen zerrendan zehazten direnek— osatuko dute Kabinete Teknikoa.

3. Postua hutsik badago, idazkaria kanpoan bada edo gaixorik bada, lehendakariak ordezkaria izendatuko du, Kabinete Teknikoko letratuen artean.

4. Gorago esandakoa kontuan izanik ere, motiboren bat dela-eta, osoko bilkuretara edo sekzioetara agertu ezina justifikatzen badu idazkariak edo kanpoan izan behar badu, batzarreko idazkari-funtzioak honako honi esleitu ahal izango dizkio lehendakariak: batzarrean izanik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan antzintasun txikie-

na duenari; berdinketarik bada, funtzionario legez zerbitzu-urte gutxien dituenari, eta besterik ezean adin txikiena duenari.

12. artikulua. Osoko bilkura.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkura honako hauek osatuko dute: Batzordeko lehendakaria –buru izango dena–, lehendakariordea eta batzordekide.

Batzarretan idazkaria ere izango da, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa ematekoa barik.

2. 9/2004 Legeko 3.1 artikuluan aipatutako gaiekiko kontsulten gaineko irizpenak eta erabakiak prestatu, eztabaidatu eta onartzea osoko bilkurari dagokio.

3. Honako hauek ere Osoko Bilkuraren eskumenak izango dira:

- a) Administrazio aktiboari egiten zaizkion iradokizunak eta proposamenak onartzea; 9/2004 Legeko 3.2 artikuluan aurreikusten dira iradokizun eta proposamen horiek.
- b) 10. artikuluko a), b), c) eta e) idatz-zatietan ezarritako funtzioekiko ez-betetze larriak eta bateraezintasunak prezatzea, eta, halaber, 9/2004 Legeko 11. artikuluko abstentzio eta isiltasun betebeharrakiko.
- c) 9/2004 Legeko 8.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz, batzordekide izatea bertan behera uzteko erabakia hartzea.
- d) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzeko proposamena egitea Jaurlaritzari, eta, halaber, erregelamendu horren aldaketak.
- e) Funtzionamenduko barne-arauak onartzea.
- f) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari doazkion osaera, antolamendu, ahalmen eta funtzionamenduari eragiten dieten arazoez arduratzea.

13. artikulua. Sekzioak.

1. Aholkuak emateko funtzioa egoki buru dezan, Osoko Bilkurak zehaztu beharko du Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren funtzionamendua.

Lehendakariak proposatuta, Osoko Bilkurak hala erabakitzen badu, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak sekzio birekin funtzionatu ahal izango du, lehenengoa eta bigarrena izango dira haien izenak.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak oso bilkura eta sekzioen bitartez funtzionatzen badu, 9/2004 Legeko 15.2 artikuluko Oso Bilkurari uzten ez dizkion kontsultei dagokienez, irizpenak eta txostenak prestatu, eztabaidatu eta onartzea sekzioei egozituko zaie.

Hala ere, gaiaren garrantzia kontuan izanik eta sekzio jarduleak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakariak hala erabakitzen badu, zenbait kontsulta Osoko Bilkurari aurkeztu ahal izango zaizkio.

3. Lehenengo sekzioa honako hauek osatuko dute: Euskal Autonomi Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakaria –sekzioko buru izango dena–, idazkaria eta lau batzordekide.

4. Bigarren sekzioa honako hauek osatuko dute: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakariordea –sekzioko buru izango dena–, idazkaria eta lau batzordekide.

5. Batzordekide bat sekzio bateko kide izan daiteke, bakarrik batekoa, eta lehendakariaren erabakiz zehaztuko da batzordekide bakoitza zein sekziori atxikitzen zaion, betiere Osoko Bilkurari entzun ondoren.

6. Postu hutsik bada edo lehendakariordea kanpoan bada edo gaixorik bada, bigarren sekzioko burutzan lehendakariak egingo ditu lehendakariordearen ordezkioak.

2. SEKZIOA BATZORDEKIDEAK

14. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

1. 9/2004 Legeko 10. eta 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz burutu behar-ko dute aholkuak emateko zeregina batzordekideek.

2. 9/2004 Legeko 7.6 artikuluan aurreikusitako ordainsariak jasoko dituzte batzordekideek, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko goi-kargudunentzako indarrean diren baldintza berdinetako gizarte-babesa edukitzeko eskubidea izango dute. Bestalde, zerbitzua zein etxebizitzaz aldatzea dela-eta egindako gastuengatik estaldura-erregimen propioa aplikatuko zaie.

3. Euskal Autonomia Erkidegoan herri-jardunean aritzeagatikako elkartueztineu buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legearen bitartez, langileen bateraezintasun-erregimena arautzen da; bada, batzordekideak erregimen horren azpian izango dira; horretaz gain, honako lege eta dekretuaren menpe ere izango dira: Jaurlaritzako kideen, Administrazio goi-kargudunen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritzako jarduerak, eskubideak eta ondare-ondasunak erregistratu eta deklaratzeko arautzen duen dekretua, zehazki, otsailaren 23ko 129/1999 Dekretua; aurrekontuei buruzko legeak.

4. Osoko Bilkurari dagokio bateraezintasun-eskabideak ebaztea.

15. artikulua. Izendapena, karguaz jabetzea eta kargua uztea.

1. Jaurlaritzaren Kontseiluaren dekretu bidez, Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu batzordekideak; delako dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

2. Aldizkarian (zeinetan?) izendapena argitaratzen denetik harako hamabost eguneko epearen barruan jabetuko dira euren karguez batzordekideak.

3. 9/2004 Legean ezarritako betekizunekin eta lege horretan ezarritako kausak direla-eta utzi beharko dituzte karguak batzordekideek, ez beste edozein kasutan.

III. KAPITULUA FUNTZIONAMENDUA

1. SEKZIOA TXOSTENAK

16. artikulua. Txosten arruntak eta bereziak.

1. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aurkeztutako arazoan azterketa eta analisia, sekzioan zein Osoko Bilkuran, txostenak prestatuaz eta aurkeztuaz egingo da.

2. Txosten arruntak eta bereziak izango dira.

3. Zenbait gaiei buruzko kontsulta egin behar izaten zaio Euskadiko Aholku Batzordeari, eta gai horiei buruzkoak izango dira txosten arruntak, betiere 9/2004 Legeko 3.1 artikuluaarekin bat etorriaz (artikulu horretako l letrako kasua aparte uzten da).

4. Txosten bereziak honako gai hauei buruzkoak izango dira:

- a) Etendurako espedienteak izapidetzea, batzordekideen kargu uzteak zein bateraezintasunak.
- b) Administrazio aktiboari zuzendutako jarduera-proposamen eta -iradokizunak prestatzea.
- c) Erregelamendu hau aldatzeko proposamenak, barne-erregimeneko arauak prestatzea, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osaera, antolamendu, ahalmen eta funtzionamenduari eragiten dieten arazoak.

5. Lehendakariak proposaturik, ondoko zeregina izango duen batzordea eratu ahal izango da: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egoki funtzionatzeko beharrezko azterlan teknikoak eta juridikoak prestatzea.

17. artikulua. Txostengileak izendatzea eta txostenak emateko epea.

1. Lehendakariak batzordeka banatuko du lana eta batzordeon kideak izendatuko ditu, betiere Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ezarritako banaketa-irizpideak zainduaz eta kide horiei lan-karga orekaz banatuaz.

2. Idazkariei/ari txostenak bidaltzeko azken eguna zein izango den finkatuko du lehendakariak. Data hori zehazteko, kontsultak presazko diren ala ez izan beharko da kontuan eta bai Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren jarduera-egutegia ere.

3. Behar bezala arrazoituta batzordekideek egindako proposamenez, lehendakariak luzatu egin dezake txostenak prestatzeko epea.

4. Izapideak egiaztatzeko eskatu delako edo informazio gehiago eskatu delako prozedura eten egin bada, txosten arruntak entregatzeko epea berehala luzatuko da, eten horrek dirauen arte luzatu ere.

2. SEKZIOA KONTSULTA-PROZEDURA

18. artikulua. Hasiera.

1. Organo kontsulta-egileak egindako eskabiderekin hasiko da kontsulta-prozedura, betiere 9/2004 Legeko 20. artikuluan xedatutakoarekin bat izapidetu bada eskabide hori.

2. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan eskabidea jaso ostean, Erregistroan jasoko da, eta idazkariak honako hauek aztertu beharko ditu eskabidean: ea eskudun agintaritzak egina den, ea betekizun guztiak konplitzen dituen, ea epeen barruan egina den, eta ea administrazio-espeditentea osatzen duten agirien zerrenda eta agiri guztien kopia egiaztatuak aurkeztu diren.

3. Beherago zehaztutako ezaugarriak dituzten kontsultak organo kontsulta-egileari itzultzen zaizkion ala ez erabakitzeke, idazkariak lehendakariarengana joko du:

- a) 9/2004 Legeko 20. artikuluan aurreikusitako betekizun formalak ez konplitzen ez dituztenak.
- b) Bere jarduera-eremuaren barruko ez diren administrazioek edo organoek egindakoak.
- c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eskumenik ez duen arazoan gainean egindakoak.

4. Aurreko paragrafoan zehaztutako zirkunstantziarik agertzen ez bada, idazkariak alta emango dio kontsulten erregistroan eta doakion espeditentea irekiko du, zeinari

erlazioa duten agiri guztiak erantsiko zaizkion. Horren ostean, ebaztea zein organori dagokion adieraziaz, lehendakariari igorriko dio, honek batzordea izenda dezan.

5. Aurrekoarekin batera, idazkariak hartu-agiria bidaliko dio organo kontsulta-egileari, irizpena emateko eta jakinarazteko epemuga adieraziaz.

6. Batzorde izendatu ostean, idazkariak espediente osoa eskuratuko dio.

7. Kontsulta-eskabideak izapidetzeko, baliabide telematikoak ezarri ahal izango ditu Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak.

19. artikulua. Kontsultak erretiratzea.

Kontsulta egiten duen agintaritzak erretiratu egin ditzake eskatutako kontsultak, irizpena onartu aurreko edozein unetan.

20. artikulua. Kontsultak berkonsideratzea eta etetea.

1. Legebiltzarra desagiten bada, lege aurreproiektuei buruzko kontsultak, izapideetan direnak, eten egingo dira, eta kontsultak aurkeztu dituztenei itzuliko zaizkie espedienteak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen jarduera-arloak esleitzerakoan aldaketa funtsezkorik izan bada, eta 9/2004 Legeko 3.1 artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan aipatutako edozein gairi dagokionez izapideetan den kontsulta egin duen organoaren ahalmenari eragiten badio aipatu aldaketak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren lehendakariak, berkonsidera dezan, honako honi igorriko dio espedienteak: aipatu gaiak proposatu edo onartzeko eskumenak dituen saileko titularrari. Kasu horretan, harik eta saileko titularrak bere erabakia jakinarazi arte, irizpena emateko epea etenda izango da.

21. artikulua. Onargarritasuna.

1. Erregelamendu honetako 18.3 artikuluan xedatutakoaren kontra egin barik, irizpena emateko epea amaitu aurreko edozein unetan, bere kabuz edo txostengileek proposaturik, Osoko Bilkurak edo sekzioak atzera bota dezake kontsulta, baldin eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eskumenik ez duela ikusten badu edo organo kontsulta-egileak gaia oker sailkatu badu.

2. Ez onartzea erabakitzen bada, kontsultako espedienteak eskabidea egin duenari igorriko zaio, Euskadi Aholku Batzorde Juridikoaren erabakiarekin batera igorri ere.

22. artikulua. Izapideak egiaztatzea.

1. Kontsulta bat jasotzen denetik harako hamabost eguneko epearen barruan, txostengileek arrazoituta egindako proposamenez nahiz ebazpena eman behar duen sekzioak edo Osoko Bilkurak egindako proposamenez, lehendakariak organo edo erakunde kontsulta-egileari honako hau eska diezaioke: bidalitako espedientean dokumentatu gabe dauden izapideak egin direla justifikatzeko, finkatzen den epean, zehazki, errekerimendua jasotzen denetik harako 7 eguneko epea baino txikiagoa ez den epearen barruan.

2. Eskatutako izapideak egin direla justifikatzen ez bada, haiek itzultzearen edo prozeduran aurrera egitearen gaineko erabakia hartuko du Osoko Bilkurak edo sekzioak.

23. artikulua. Agiri bidezko informazioa handitzea.

Kontsultaren gaineko erabakia hartu aurreko edozein unetan, handitu ahal izango da igorritako espedienteko informazio agiri bidezkoa; betiere, lehendakariak eskatuta nahiz txostengileek, Osoko Bilkurak edo sekzioak proposaturik nahiz agintaritza kontsulta-egileren ekimenez, betiere 9/2004 Legeko 24. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

24. artikulua. Agertzeak eskatu eta gauzatzea.

1. Irizpena emateko epea amaitu aurreko edozein unetan, txostengilek, Osoko Bilkurak edo sekzioak, arrazoituta, honako hau proposa diezaioke lehendakariari: organo edo erakunde kontsulta-egileko funtzionarioak edo agintariak agertzeko eska dezala, eta, halaber, txostenaren xede den proiektu, egintza edo xedapena prestatzen parte hartu duten organoak edo haiek eragiten dioten beste edozein, betiere kontsultaren gaiari buruzko informazio emateko.

2. Jatorria onartu ostean, agintariei edo funtzionarioei agertzeko eskabidea bidaliko die lehendakariak, hori jasota uzteko balio duen edozein bitarteko erabiliaz eta honako hauek adieraziaz: sekzioaren edo Osoko Bilkuraren aurrean egingo den ala ez, zein egun eta lekutan gauzatuko den eta agerraldiaren xede diren gaiak.

3. Erabakia eman behar duen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko organoaren aurrean, adierazitako egun eta lekuan agertu beharko dute agintariek edo funtzionarioek.

4. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko organoaren buru egiten duenak arteztuko du agerraldia. Idazkariaren aurrean kreditatu ostean, bertaratutako agintariak edo

funtzionarioak identifikatuaz hasiko da agerraldia. Ondoren, kontsultaren xede diren gaietarako dagokienez, Euskadiko Aholku Batzordeko kideek eskatzen dizkieten azalpenak eman beharko dituzte agertu direnek.

5. Idazkariak akta egin beharko du, honako hauek jasotzen dituenak: bertaratutako enizak eta ezaugarriak, agerraldiaren eguna eta motiboa, eta izan diren galdera eta erantzunen funtsezko zehaztasunak.

6. Dagokion kontsultaren espedientean artxibatuko du akta idazkariak.

3. SEKZIOA BILKURAK

25. artikulua. Egikaritzea.

1. Lehendakariak deituz gero egingo dituzte batzarrak Osoko Bilkurak eta sekzioek, betiere finkatutako jarduera-programazioarekin bat etorriaz.

2. Salbuespen gisa eta presazko arrazoiak direla-eta beharrezkoa bada, aztergaiak adieraziaz lehendakariak edo lehendakariordeak proposatuta, alde aurretiko deialdirik gabe egin ahal izango dira Osoko Bilkuraren eta sekzioen batzarrak, betiere organoko kide guztiak bertan izanik aho batez hala erabakitzen badute.

3. Osoko Bilkurari entzun ondoren, Osoko Bilkuraren edo sekzioen batzar batzuk publikoak izan direla xedatu ahal izango du lehendakariak.

26. artikulua. Deialdia.

1. Lehendakariaren edo idazkariaren aginduz egingo dira Osoko Bilkuraren edo sekzioen batzarretarako deialdiak; deialdia organoko kide bakoitzari bidaliko zaio, hala egin dela jasotzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoz.

2. Deialdiaren datatik batzarrak egingo diren egunaren arte, gutxienez, 48 orduko tartea izango da, presazkotzat jotzen diren kontsultak aztertzekeo batzarretan izan ezik, baldin eta horiek, irizpena emateko finkatutako epea kontuan izanik, al bait arinen egin behar badira.

3. Aldez aurretik banatu ez bada, aztergaiak eta eztabaidatu beharreko gaietarako dokumentazioa erantsi beharko zaio deialdiari.

4. Presazko arrazoiak direla-eta, aztergaietan ez diren gaiak sartzea proposatu ahal izango du lehendakariak, eta bertaratutako gehiengoak prezatu beharko du hori.

27. artikulua. Akta.

1. 9/2004 Legeko 19.1 artikuluan finkatutako edukia duela, idazkariak jasoko du Osoko Bilkuraren edo sekzioen batzar bakoitzaren akta. Onartutako irizpen eta erabakiak eta horien gainean eman diren boto partikularrak batu beharko zaizkio aktari.

2. Batzarra amaitu eta akta onartu ez bada, idazkariak zirriborro bat prestatuko du eta Euskadiko Aholku Batzordeko dagokion organoaren gainontzeko kideen artean banatuko, hurrengo batzarra egin baino gutxienez 24 ordu lehenago.

3. Batzarreko buru izan denak eta idazkari izan denak sinatu behako dute onartutako akta.

4. SEKZIOA IRIZPENAK ETA ERABAKIAK

28. artikulua. Irizpenak eta erabakiak.

1. Gai batzuk aztertzekeo batzorde arrunt bat eratu behar izan bada, gai horiei dagokienez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoan bukatuko da kontsulta-prozedura, batzorde horrek bere irizpena eman.

Hala ere, kontsulta erretiratua, baztertua edo berkontsideratua izan bada, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak zirkunstantzia hori egiaztatu baizik ez du egingo.

2. Salbuespen gisa, Osoko Bilkurari edo sekzioari kontsulta baten ardura eman bazaio eta beheragoko zirkunstantziaren bat ikusten badu, erabaki batez buka daiteke kontsulta-prozedura:

- a) Erregelamendu honen 21. artikuluaaren arabera, kontsulta onargarria ez izatea.
- b) Instrukzioa ez izatea osabetezkoa eta horrek ardurapeko gaiaren gaineko erabakia ematea eragozte.
- c) Aldaketa funtsezko barik, gaiaren gainean alde aurretik erabakia eman izana; edo Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako iradokizun eta proposamenen ondoriozkoak izatea eduki berriak sartzen dituzten funtsezko aldaketak.

3. Aztertzekeo eta analizatzeko batzorde berezi bat eratu beharra izan duten gaiak dagokienez, erabaki batez bukatuko da prozedura, eta erabaki horrek honako edukia izango du: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak gauzatutako jarduerak behar duena.

4. Irizpena eman ostean, bere kabuz edo erakunde kontsulta-egileek eskatuta zuzendu ahal izango ditu: erabakian diren erakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

29. artikulua. Formalitateak.

1. Irizpenetan honako hauek adierazi beharko dira: onartzen dituen organoa, onartu dituen batzarra zein egunetan egin den, bertaratutakoen izenak, gehiengoaren iritzia espresatzen duen batzordekidea, aho batez, gehiengoaz edo lehendakariaren boto erabakitzaileaz onartu diren. Horretaz gain, irizpenaren zenbakia ere jaso beharko da.

2. Irizpenak izate desberdineko zehaztapenak jasotzen baditu, ahal dela, funtsezkoak direnak finkatu beharko ditu honako ondorio honetarako: erantzun erabatekoa ematen bazaie, gauzatzen den egintza edo xedapenak «Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren erabakia» formularen ildokoak izatea.

3. Erabakietan honako hauek bakarrik jaso beharko dira: hartzen dituen organoa, onratu direneko bilkuraren data, eta aho batez, gehiengoaz edo lehendakariaren boto erabakitzailez onartu diren.

4. Irizpenari edo erabakiari boto partikularrak erantsi beharko zaizkio, nortzuk ematen dituzten zehaztuaz eta bai botooi nortzuk atxiki zaizkien ere.

30. artikulua. Boto partikularra emateko epea.

1. Boto partikularrak eta, halakorik bada, atxikipenak, behar bezala sinatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali beharko zaizkio, irizpenaren behin betiko idazketa egiten denetik harako bost eguneko epearen barruan; boto eta atxikipenok, bestalde, irizpenari erantsi beharko zaizkio.

2. Bilkuraren osteko edozein unetan, boto partikularra eman duela edo horri atxiki zaiola iragarri duen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren kideak, hura ez formulatzeko erabakia hartu duela jakinarazi ahal dio idazkariari, hala egin dela jasota uztea ahalbidetzen duen edozein bitartekoz jakinarazi ere.

31. artikulua. Ziurtagiriak bidaltzea.

Emandako boto partikularrak jasotzen dituen irizpen eta erabakien ziurtagiriak Euskadiko Aholku Batzordeko lehendakariak eta idazkariak sinatu beharko dituzte, eta idazkari horrek organo edo erakunde kontsulta-egileari bidali beharko dizkio, irizpena emateko finkatu den epearen barruan.

32. artikulua. Artxibatzea.

Irizpen eta erabakien ziurtagirien kopia bat artxibatu beharko du idazkariak.

5. SEKZIOA
HARTUTAKO ERABAKIA EDO XEDAPENA

33. artikulua. Formula.

Euskadiko Aholkua Batzorde Juridikoak hartutako xedapen eta erabakiek azalpenen zatian argi eta argi adierazi beharko dute: irizpenarekin bat onartu diren edo irizpenetik aldendu egiten diren. Lehengo kasuan «Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat» formula erabiliko da, eta bigarreanean «Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzunda».

34. artikulua. Jakinarazpena egiteko era eta epea.

1. Organo edo erakunde kontsul-egileak prozedura izapidetu dela jakinarazi beharko dio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko idazkariari, emandako egintza edo onartutako xedapena beherago zehaztutako eran jakinaraziaz:

- a) Lege-proiektuetan edo lege mailako arauetan, Eusko Legebiltzarrera bidali zeneko eguna jakinarazi beharko da.
- b) Gainontzeko kasuetan, egintza edo xedapena aldizkari ofizialen baten argitaratzen bada, aldizkariaren eguna eta zenbakia adierazi beharko dira, eta, argitalpenik ez badu, administrazio-egintza edo -xedapenaren kopia konpultsatua bidali beharko da.

2. Argitaratu, onartu edo Eusko Legebiltzarrera bidaltzen denetik harako 15 eguneko epearen barruan egin beharko da jakinarazpena, kasuen arabera.

3. Irizpenen eta xedapenen edo organo kontsulta-egileek onartutako behin betiko egintzen artean diren irizpide-desberdintasunei dagokienez, idazkariak informaturik izango du Euskadiko Aholku Batzordea.